llagaz), euren ekanduakaz batera euroen ogasunak (ondasunak) be obetu ta ugarituaz; aonetarako dei egin eutzuen Jaun-goikuak, auxe da zeuen aurretikoen ikasbidia, auxe eskatzen dautzue lurlangillakaz dozuen ezaupidiak, eta aonexetara jardun biar zaree, zeuen Eleiz-lana onurakorragoa ixan daiten

Lurlangillen artian bizi ixan zanen ordekoak zaree, eta sarritan lur, solo ta inguruak, artzain eta lurlangillak berbaldiyaren adibiderako, aitatuten ebazanen jarraitzalliak.

Lenengo gixaldietan, gixarteko triskantza gogor ostean Eleiz-gixonak ziran «Cruce et aratro» Gurutzea ta goldea, euren ikurritzat artu eta an or emen eraldutako (organizau) alkartasun on onen bidez, larditzak garbitu ta goldatu, bidiak zuzendu, oziñak agortu ta aolan lurrak ondu ta ugaritu ebezanak.

Eurakazko aidetasuń edo ostantxeko ziyuen (motibuen) batzukaitik, lagundu biar dautsazue, al dozuen giñoan, aundi ta ugariyak ixango litzakezelako Eleiziari, orrexen bidez, ekarriko zeunkioezan onurak.

Baña emen-beko gauzetan, orretara arduratu arren, ez egixuez astu Eleizia eta bertako egikixun istuak: goitik itxaron biar dozue argiya, eta itzu-itzuan ibilli ez zaitezen, eskatu lenengo Kistori, aldara-oñian, gauza gatx orrek atonduteko zurtasuna, eta eragozpenetan atzeratu etzaitezen sendotasuna.

«Cruce et aratro» Gurutzea ta goldea; auxe ixan biar da, antziñetikuana lez, oraingo lurlangillen ikurritza (banderia, lemea) eta ixango da ori benetan, lur-basoak ondo erabilten, batak bestiari laguntzen badautsazue, guztiok alkarren leyan ostasun baga aleginduten bazaree, lan izerdiyen ostian ikusi daixuen ugari zeuen ondasunak; baña ori guztiori, gurutz deunatik agindu gura dauskun Jainko - Eroslia bastertu baga, bere gurutz deunatik erakusten deuskulako gixon arteko matazak arilduteko bide zuzen eta bakarra, au da, geure buru - ukapena (sakrifizioa), zuzentasunian ibiltia eta azkenez alkarrentzako maitetasun anaikorra eukitia.

Leopoldo Gazteiz'ko Gotzañak.

Amabosteroko
— inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
155'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Uŕila 1'gn.

JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI·EUZKERAZ

Gotzañaren baimenaz.

JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI·EUZKERAZ

1920'ko
tarrilla'ren 1'gn.

IX 'Urtia
137'gn. Zenbakija

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
137'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Urtarrila 1'gn

URTEBAŔI

Urte baŕija bizkera baŕija *esan oi da. Guk baña bizkera baŕija barik, zaŕa len baño gogotsubago jaŕaitzeko asmua dogu. «Euzkeldunai Euzkeraz» da gure bizkerea; euzkeldunak euzkera-biaŕ zirala, buruba agiri jaŕi gebanian, ikusi ba'geu, gauŕ euzkera-biaŕ dirala, biaŕago ezpa-dira gero, dakusgu.*

Beraz, bizkerea, beintzat gure ixakerea ukatu gura ezpa-dogu, ezin dogu aldatu; alderantzira, biaŕaren neuŕiz, azaŕijagotu-biaŕ-gara ta lana iñozko gogotsuben iñardu biaŕ-dogu. Bai-litxake baŕiz auxe bizkera baŕija ixatia. Alpeŕ, nagijak, eskubak eunduta iraun dabenak ainbat edo-dira.

Askok gure Aldiztingija aŕetaz irakuŕi ez edo dabe: gure idazti ta idaztiñuak ez edo dabez erosi; aŕpide baŕirik ez-edo dabe ekaŕi; beste utsen bat be egin-edo dabe. Onexek gustijok «urte baŕija bizkera baŕija» esakuna egiztauko dabe, ta, aurten, gure Bazkunak goraskada andija dagike.

Askotxu gara, asko geyago ixan-biaŕ gara; garanok baŕiz, garan baño zintzuaguak ixango gara; euzkotaŕa ta euzkelduna, beste edonoi baño geyago biaŕak goriŕu ta gaŕtuten daulako.

Euzkotaŕ ta euzkeldunak biaŕez dirala, ta iñozko geyen biaŕez dirala, edonok daki.

Aldistingija igazi diran urtietan baño be obia dagikegu; orain aŕtian baño be jantzijago urtengo da, atal baŕijak be ixango dauz, ta guk be, zelanbait beintzat, bizkera baŕija aŕtuko dogu. Zebek ba, aŕetaz irakuŕi egikezube, doguzan idazti ta idaztiño poliŕak, ugari erosi egikezubez, aŕpidiak, bai aŕpidiak, bildu egikezubez. Ara, Urtebaŕi baŕi, daukanak eztaukanari; zebek idazti ta idaztiñorik ez dozube ta zeberi, guk aŕpiderik eztogu ta guri.

Urtebaŕija, Josu'ren oneskunez asetuta, zoruntsuba be zoruntsuba opa dautzubegu.

JOSU-KISTO'REN ALATZAK

(MIRARIAK)

KAPHARNAUM'GO GAIZKINDUA

Eta (Josu) Galilea'ko Kaphaŕnaun urira jatsi zan eta bertan larunbatez irakatsi oi eutsen. Eta bere irakaskintzaz aŕitzen ziran, bere itz-egikera agintzazkoa zalako. Eta sinagogan (judaŕen batzaŕtokian) gokaizto loidun gizon bat zan, eta gaŕazika oyu-egin eban: Itxi; guk zu, Josu Nazarethaŕ oŕegaz zer ikusirik ete daukagu? gu galtzeko etoŕi ete zara? Zu nor zarean bai dakit: Jainkoa'ren Deuna. Eta Josu'k agiraka egin eutson esanaz: Ixil, eta oŕtik urten eikezu. Eta gokaiztoak gizona erdian egotzi ondoren, beragandik urten zan. Eta gustiak ikaratu ziran eta alkaŕ-izketan ziarduen esaten: ze itz ete da ori; almen eta eskubidez gokaizto loyari agindu ta urten egiten dabe da? Eta bere ospea erki basteŕ gustietan zabaldu zan. - (Luk. IV-31-37).

* * *

Gizona baño goragoko maĩan, Jainkoa'k egindako gogoak bai-dirala ziñeste-bidez dakigu. Tálde bitan banandu zirala be bai, gotzonak; Jainkoa'ri zintzoro men - egin eutsenak, eta betiko neketan dagozan gokaiztoak, Jainkoa'ren aurka jaiki ziralako. Gokaiztuok, Jainkoa'ren lakemenez geu betiko zoritxaŕeko egiten alegintzen dira. Eta alegin au gogoaren kaltezkoa izaten da, girña txaŕak sutu, ta irudi obenkoyak piztuaz obenerako bultz - egin eta zirikatzen gaituanean, batez be, oben eragiten ba'dausku. Beste batzuetan baña bere alegin gustia zuzen-zuzen gorputz-kaltez zuzentzen dau, eta oŕetarako goŕputz baŕuan biztoki baten lez, saŕturi; gorputzeko atal gustiai berak gura dabena eragiten dautse, gogoak nai ez-da be, ez baña obenik, berak nai ez-padau, gokaiztoa gorputz baŕu euki aŕen, gizonak azkatasuna eztau galtzen-da. Diñogun au irudi bidez zerbait azaldu geinke. Beribiĩa zuzen daroyan beribiltzain edo *txopeŕari,* bera baño indaŕtsuago dan etsayak, berak nai eztaben lez, erainkia (motoŕa) erabili ta nai ta naiez edozein tokitara eroango ba'leu, beribiĩ au gizon gaizkinduaren irudi lez izango litzake. Beribiĩa giza - gorputz irudia; txopeŕa, gogoaren irudia ta gizon gaiztoa gorputzean saŕtzen dan gokaiztoena. Bai gara.....?

Gokaiztoa gorputz baŕu euken gizonak, Josu-Kisto'n aldian batez be ziñesge edo gentiĩen aŕtean ugari ziran. Josu-Kisto ezkero, uŕitu dira, Jon deunak diñoskun lez (I. Jon. III-8) Josu, Satanas'en agintza ondatzeaŕen ludiratu zalako

Auŕez-auŕe lenengoz euki eban buŕukea gauŕko alatzak azaltzen dausku:

Josu bakalduntxoen semea osatu ondoren Kapharnaum'era jatsi zan: eta bertaratu baño len inguruetako eŕiak arakatu ebazan bere irakaskintzak azaltzen. Bere gaste aldia igaro eban eŕiŕa, Nazareth'era be, joan zan, eta bertako sinagogan egin eban itzaldi edeŕ-zintzoak minduta, eŕitaŕak bere auŕka jagi ziran, eta aŕtuta amiltegi batera eroan eben beŕtatik jauŕtiteko asmuaz; baña gustia al dabenak, bira egin eta euren eŕditik igaro zan iñoŕ txitik egiten asaŕtzen etzala. Jatsi zan ba, berak biztokitzat autu eban Kapharnaum'go urira, ta larunbatez, oi eban lez, judaŕak Idazti deuna irakuŕi ta otoi egiteko eukiezan sinagoga eritxoen aretoan itzaldi edeŕ bat egiten ziarduala, gokaizto loya gorputzbaŕu eukan gizon bat gaŕasika azi zan esanaz: «Itxi; guk zugaz, Josu Nazarethaŕ oŕegaz zer ikusirik ete daukagu? ¿gu galtzen etoŕi ete zara? Zu nor zaran bai'dakigu: Jainkoa'ren Deuna.» Eta Josu'k arantzun eutson: Ixil; eta gizon oŕen baŕutik urten eikezu. Eta beriala gizona gokaiztoak azke itxi eban, entzule gustiak aŕituta geratzen zirala. Bai ba; eurak otoi luzeak egin aŕen, saŕi askotan gokaiztoa gorputzetik ezin jaurti al izaten eben eta Josu'k itz bategaz jauŕtitea aŕitzekoa zan izan be. Bere ospea ba, beriala inguruko eŕi gustietan zabaldu zan.

* * *

Kistaŕ maite: Gokaiztoa, Josu - Kisto'k garaitu eban ezkero, indaŕgetuta gelditu zan aŕen, buŕuka-bidez betiko zoriona irabazi beaŕ dogulako, bere kaltez guda gogoŕa egitea dagokigu; bera, Kepa deunak diñoskunez (Kep. V-8) leoi amoŕatua lez geure inguru dabil ba, nor iruntsiko. Eta bere kaltez Jauna'k laguntzeke ezertxo ez dagikegun ezkero, zirikatzen gaituanean, ala oben-bidez biotz baŕu saŕtzen yakunean, uste osoaz, aŕen, laguntzeko eskatu dayogun, eta bere itz bakaŕ bat, gokaiztoen asmo gaiztoak ezereztu, ta oben-estuntzak uŕatzeko naiko izango da.

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 4'gn.; Josu-Ixen Deuna; 11'gn.

JAI OSUAK: 1'gn.; Josu-Biłebaikundia 6'gn. Jauna-Erakuskundia edo Bakaldunak Josu-guŕ-egiłia; Kaskante'ko Jon-Deuna, autoŕlia.

Amabostaruan, gure Goteŕkijon beste jai osorik ezta.

Igande ta jai osuetan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 2 gn. Iłako lenengo barikuba.

Iłako lenengo bederatzi bariku jaŕałubetan Jaunaŕkuna, biaŕ dan eraz, ba'dagixu-Josu'k esan eban-donokija zeuria dozu.

URTE ZARRAREN AGURRA – J.Z. 1920-137-06

Buru solla ta
bekoki tximur
bizkarra konkor
zamauta,
Aguratxo bat
iltzer datza gaur
arnasaz ezin
beteta.

Bakar-izketan
diardu berak,
biotza daula
samiñez:
«Ludi zitala;
agur betiko.. !
agur dagiskat,
iguñez...!

«Erruge izanik
zer dala-ta ni
zamau ete nok
obenez?
Zer egin dauskat
neure biotz au
erdibitzeko,
naigabez?

«Eugaz geyago
nik etxoat nai
artu-emonik...
ezer bez...!
Nayago yoat
il bein betiko
ta il bein-betiko
iguñez!

«Baña il baño len
entzun egidak,
beste bein eta
azkenez:
«Ludira Yaunak
bialdua nok
eu asetzeko

zorunez...!».

URTE ZAREN AGURA

Buru soila ta
bekoki tximuŕ,
bizkaŕa konkoŕ
zamauta,
aguratxo bat
iltzeŕ datza gauŕ
arnasaz ezin
beteta.

Bakaŕ-izketan
diaŕdu berak
biotza daula
samiñez:
«Ludi zitala!
aguŕ betiko..!
aguŕ dagiskat
iguiñez!

Eŕuge izanik:
¿zeŕ dala-ta ni
zamau ete nok
obenez?
Zer egin dauskat
neure biotz au
eŕdibitzeko
naigabez?

Eugaz geyago
etxoat nai nik
artu-emonik...
¡ezeŕ bez..!
Nayago yoat
¡il bein betiko!
ta il bein betiko
iguiñez!

Baña il baño len
entzun egidak
beste bein eta
azkenez:
Ludira Jauna'k
bildu nindula
eu asetzeko
zorunez...

GABIREL

Zamau=*kargau* iltzeŕ=*agoliñan* Ludi=*mundu* oben=*pekatua*

JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI · EUZKERAZ

1920'ko
Urtarrilla'ren 15'gn.

IX 'Urtia
138'gn. Zenbakija

Amabosteroko — ingurtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
138'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1920 Zornotza, Urtarrila 16'gn

Josukisto'n Alatzak

(MIRARIAK)

SIMON-KEPA'REN AMAGIÑAREBA

(Mark, I-29-LUK, IV'38)

TA sinagogatik urtenda, Jon eta Jakoba'gaz Simon eta Ander'en etxera joan ziran. Simon'en amagiñareba, beroeri andiaz oeratua zan, eta bera osatzeko eskatu eutsoen. Eta gexoagana ureraturik, eskutik artuta, beroeriari gexoa azke izteko agindu eutson, eta azke itxi eban, eta une atantxe oetik jagi eta eurai mirabetza egiten azi zan.»

* * *

Josu'k, Kapharnaum uria bere biztokitzat autu ebala esan gendun. Lenago arantzale-eri koskor bat izan aren, aldi atan, Galilea'ko uri buru, ta ogei mila biztanle eukazana zan. Bertako salerosketak garantzi andia artu eban, bertan biltzen ziran ba, inguruetako saloskari gustiak, judar eta atzeritar euren artu-emonetarako. Eta an be, oraingo salerosle-erietan gertatzen dan lez, ogasun-arazoetzaz geyago arduratzen ziran, gogo araozetzaz baño. Josu'ren Jainkotasun-argiak bere izpi biziaz, sari askotan dis-dis-egin eban uri onetan, baña ekandu txar eta arokeri lañoz itxututa, ezeban aintzat artu-ta, Josu'k gaiztetsi eban; (Matth, XI-21) eta gaur egunean bere lorratzik be ia ezta ezautzen. ¡Jainkoatzaz aztuta bizi diran eriak, eurekanatzen daben zigor bildurgaria!

Uri onetako sinagogan gizon gaizkindua osatu ondoren, Josu bere ikasle batzukaz, Simon (gero Kepa) eta Ander'en etxera joan ziran. Ander eta Kepa, jayo-

tzez, Kapharnaum - egoaldean, Genesareth-itxaseŕtzeko zelai-une baten egoan Galilea'ko, Betsaida'taŕak ziran, (Jon. I-44). Anai biok Kapharnaum'en etxe bat euken. Eztakigu Kepa'ren amagiñaŕebagandik yatoŕkiena, ala eurak saleroskетarako aŕtuta eukena ete zan. Dana dala, etxe onetara Josu saŕtu zanean, Simon - Kepa'ren amagiñaŕeba beroeri andiaz oeratuta zegoan, eta bere senideak eŕukituta aŕen gexoa osatzeko eskatu eutsoen. Josu be, eŕukitu zan eta bere Biotzeko ontasun andia agertzen ebala, gexoagana uŕeratu ta aŕtu eutson bere eskua, eta beroari gexoa azke izteko aginduaz jaso eban; bapatean guztiz osatu zan, eta beriala etxeko zeregiñak egiten jardun eban.

Zelango beroeria izan zan eztakigu. Batzuk diñoe alde atan auŕkitzen diran oxin ugariak emoten dabezan ustelin edo luŕun galgaŕietatik beroeri aldaŕtetsuak (intermitentes) sortzen diralako, olakoren bat-edo izango zala. Garbi beintzat ezer bez alatz (mirari) andia zala baño. Auxe da ba, eskieŕ dakiguna: 1.° Kepa'ren amagiñaŕeba beroeriaz eta bero andiaz gexorik egoala. 2.n Josu'k ezertako osaki barik beroeria kendu eutsola. 3.n eta oso - osoan kendu be, gexoaren loŕatzik be sometan ezebala. Egia da osakai ta aldienpuruz osagileak beroa gitxiagotu leikela, batzuetan beintzat; baña osakai barik, bapatean, eta oso - osoan, ondorengo aultasun eta gusti, osatu leiken ludi onetako osagilea beti izango da jayoteko. Alatz onen baŕi eŕian zabaldu zanean izautzi edo *impresiño* andia aŕtu beaŕ izan eben; Marka deunak diñoskunez ba, uri gustia Kepa'ren etxe inguruan bildu zan Josu goraltzeko.

* * *

Kistar maite: Josu'ren Biotz eŕukitsuari osatze gelgaŕi au egiteko eretia gexoaren senideak emon eutsoen. Eurak, Kepa buru ebela, gexoaz eŕukituta, uste osoaz gexoaren osasuna eskatu eutsoen. Eta eŕuki utsa dan Biotzak, biotz eŕukioŕetik soŕtzen dan otoyari ez entzunik egiten eztakialako, beriala euren gurariak beteta pozez asetu ebazan. Bera da eŕukioŕentzat pozgaŕi diran itz oneik esan ebazana: «Zoruntsuak eŕukioŕak, eurak be eŕukia loŕtuko dabelako» (Matth. V-7) Jauna'ren eŕuki-ondasuntegiko atea idigiteko giltza geure eskuetan daukagu ba. Kistar zintzo ori, ez aztu. Baita Kepa'ren amagiñaŕebak Jauna'ri eskaŕ ona zelan agertu irakasten dausku: Berari otsein-egin, Bere agindu deunak zintzoro bete ta bere aintza zabaltzen aleginduta.

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 18'gn.; 25'gn. Paul Deuna Donekundia.

Amabostaruon, gure Goteŕkijan jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 15'gn. Deun-Paul lenengo lekautija.

17'gn. Deun-Andoni, lekaipuruba, aberc-Zaintzalia, beraz lugiñak eraskun bedegaŕa dautsoena.

19'gn. Sendi Deuna.

22'gn. Deun-Bingen, ziñopea, bizkaŕaŕa odolez.

24'gn. Gentzadun Ama Neskutza.

27'gn. Deun-Jon Kisostoma, gotzaña. irakaslia, txonizlari-eredu ta Zaintzalia.

29'gn. Salestaŕ Deun-Pantzeska, gotzaña, irakaslia ta iraslia.

31'gn. Bijaŕ asten dira Joseba Deunaren opazko saspi igandiak.

Urtaŕila 20'gn.

Deun-Sebasten, ziñopea.

Odolez Milan'daŕak ziran aŕen, Uzkuŕtz deunaren aldez egin euzan goi-alatz eta

YOSU! – J.Z. – 1920-138-015

IXEN bat da eder samur
ezti gozo biguna;
saminpean dagonentzat
atsegin ta zoruna

IXEN bat da, illunpean
Dabillenen argia,
bera bezin argi ezta,
ortze-goyan euzkia.

IXEN bat da obenpean,
Dagoanen itxaro,
Aitatuaz beste barik
lagun dagi oparo.

IXEN bat da donokia
poz-asetzen dabena,
ta gaiztoki lexa barru
dardaratzen txerrena.

IXEN bat da goi eta be,
orok dauna gurtutzen,
etsayak be, nai ta nai ez
beti dauna agurtzen.

IXEN au da zorionez,
maite-maite dozuna;
goiko poz ta beko bildur:
YOSU, IXEN DEUN-DEUNA.

¡JOSU!

IXEN bat da,
edeŕ-samuŕ,
ezti-gozo
biguna;
saminpean
dagonentzat,
atsegin ta
zoruna.

IXEN bat da,
ilunpean
dabilenen
argia;
berau aña
argi ezta,
ortze-goyan
euzkia.

IXEN bat da,
biotz otza
berotzeko
su-gaŕa;
ta argalentzat
etsai-kaltez
neuŕibako
indaŕa.

IXEN bat da,
obenpean
dagoanen
itxaro;
aitatuaz
ba, argi eta
lagun dagi
oparo.

IXEN dat da,
donokia
pozasetzen
dabena;
ta gaiztoki
lexa-baŕu
dardaratzen
txeŕena.

IXEN bat da,
goi eta be,
orok dauna
guŕtuten,
etsayak be
nai ta nai ez
beti dauna
aguŕtzen.

IXEN au da
zorionez,
maite-maite
dozuna;
goiko poz ta
beko bilduŕ;
«JOSU», IXEN
DEUN-DEUNA

GABIREL.

Egurrola'ren **Jostetxea, Lekeitio**'n

PLAZA DE LOS FUEROS

ABADE, GIXON ETA EMAKUMIEN SOÑEKO LIRAÑAK

BILBAO'n ESTRELLA ostatuan ilero.

GERNIKA'n NUÑEZ' arenian.

JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI · EUZKERAZ

1920'ko
Otsalla'ren 1'gn.

IX 'Urtia
139'gn. Zenbakija

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
139'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Otsala 1'gn

Josukisto'n Alatzak

(MIRARIAK)

Lenengo Araintza gelgaria

(Luk, V-I-II.)

GTA Bera (Josu) Genezareth-aintzira (lago) ondoan egoala, jazo zan gizozteak moltzoka inguratu ebala, Jainko-aren itza entzuteko. Eta aintzira eŕtzean egozan batel bi ikusi zituan, eta aŕantzaleak jatsita ziran eta sare garbitzen ziarduen. Simon'ena zan batel batera igo zan ba, eta apuŕ bat luŕetik zeaŕtuteko eskatu eutson. Eta jezaŕita gizoztiari bateletik irakasten eutson. Itzaldia amaituta, Simon'eri esan eutson: Itxas-baŕuratu egizu, eta aŕaintzarako zeuen sareak zabaldu egikezuez. Eta Simon'ek erantzun eutson: Irakasleoi; gau gustian nekatuta ezeŕ eztogu aŕapau; zeure itzaz baña, sarea edatuko dot. Eta au egin ebanean, aŕañak ugari bai ugari aŕtu ebezan, euraen sarea ba, apurtzen zan. Eta beste batel baten ziran lagunai ikuŕez deitu eutsen, etoŕi ta eurai laguntzeko. Eta etoŕi ziran, eta batel biak bete ebezan ia ondatuteko añan. Ta Simon-Kepa'k au ikusi ebanean, Josu'ren belaunetan auzpeztu zan esaten: Jaunoi, alde nigandik, gizon obendia (pekataria) naz-ta. Aŕitasunak ba, bera, ta beragaz ziran gustiak aŕtu ebazan, aŕapau ebezan aŕañak ikusirik. Eta bardin Jakoba eta Jon Zebedai'ren semeak, Simon'en lankide ziranak. Eta Josu'k Simon'eri esan eutson: Ez zadiz bilduŕ izan; gauŕtik gizaseme aŕtzale izango zara. Eta batelak luŕera atarata, gustia laga ta jaŕaitu eutson.»

* * *

Josu'k, Luka deunak diñoskunez, Simon-Kepa'ren amagiñaŕeba osatu ondoren, aŕatsez be, ekaŕi eutsoezan gexo-mueta asko ta gaizkinduak ugari osatu ebazan, eta goxalde inguruan bakaŕ-toki batera joan zan, oi eban lez, otoi egiteko. Baña Kepa ta an bertan ziran lagunak jaŕaitu eutsoen, eta aurkitu ebenean, esan be bai: Danak zeure bila dabiltz. Eta Berak erantzun eban: Goazen inguruetako uri ta baseŕietan Goizparkia zabaltzen, oŕetarakoxe etoŕi naz-ta. Eta Galilea'ko sinagogaetan, bere irakaskintza edeŕa azaltzen ebilela, egun baten Genezareth-

-itxas-ertzean, gizozte izugaŕiak inguratuta, Berari entzuteko gurari bizia ageŕtu eutson, eta itz-egiteko aukerako tokirik ezegoalako, bertan egoan Kepa'ren batel batera igo zan.

Eta itzaldi ondoren gauŕko alatz edeŕ au egin eban. Alatz au egin eban tokia zein dan eskieŕ (ziuŕ) eztakigun aŕen, dirudienez, Betsaida-itxas-eŕtza izan beaŕ eban. Eta Josu'k alatz au egin eban, Kepa ta bere iru lagun Ander, Jon eta Jakob'ari, bere ikasletzarako deyari erantzuteko bultz - eragiteaŕen. Aŕantzaleok beragantzeko aukerakoa zan izan be. Gau gustian lanean nekatu ta aŕain bat aŕtu ez; eta gero egunez, usterik gitxien ebela, Josu'ren aginduz sareok bota ta ain aŕaintza aŕigaŕia egin; Kepa lako biotz sutsudunak oso - osoan Berangantzeko etzan beaŕ beterik.

Aŕaintza au, ustegabekoa etzala izan, alatzez egiña baño, egiztuteko, gogaldu daigun, egunez izan zala, ta edonok daki aldirik egokiena eztala, araña sakonago ibilten dalako, tokiatzaz be baŕdin esan geinke, itxas-eŕdian izan zan eta, onez gañera batel bi gonburu bete ebezan, eta ori gau gustia aŕain bat aŕtzeke alpeŕik nekatuta igaro ondoren. Eta ainbeste aŕaiñ, zelan bildu ete ziran? Ekatx-auŕetik bildu oi diran lez, ez beintzat; ekatxa uŕeratzean izan ba'litz, ezeukan Kepa'k iñok esan beaŕik sareak zabaltzeko. Josu'k ba, ala bere almenez beŕtan irazan ebazan, ala bere aginbidez bertan bildu, ala bere goi-jakituriz jakin aŕaintza ain izugaŕia non bilduta egoan. Era batera nai bestera izan, goi-ala beaŕa zan. Berak ezik ba, ¿nok irazan? ¿nok bildu? ¿nok jakin? Ziñez aŕigaŕia izan zan ba, aŕaiñtza edeŕak egiten oituak ziran aŕantzeleentzat be!

* * *

Kistaŕ maite: Aŕaintza ugari au Josu -Kisto'k irasitako Doibatz (elexa)'ren irudia da. Bere izatea, bere bideak eta elburua bertan ikusi geinkez. Baña ez luzetzeaŕen auxe bakaŕik baño ezpada be ikasi beaŕ dogu: Geure bizitz onetako alegiñak; igaro beaŕ ditugun nekeak; jasan (sufridu) bear ditugun atsekabeak Josu'ren izenean igaroten ezpa-dituguz, bizitz onetako gau-ondoren alpeŕekoak izango yakuzala, Kepa deunagaz autoŕtu beaŕko dogu: «Gau-osoan lan egin da ezeŕ be eztogu aŕtu» eta alderantzira, Josu'ren izenean egin ezkero, onura - onuratsuak izango jakuzala. Saŕitan gogaldu daigun ba. Goteunak Iragaŕle bidez diñoskuna: Etxea, Jauna'k iragiten ezpa-dau, alpeŕik lan dagie etxegiñan diaŕduenak.

(Psl. CXXVI-I)

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 1'gn.; 8'gn.; 15'gn.; Iñauteri-Igandia.

Amabostaruon, gure Goteŕkijan jai osoŕik ez da. Igandietan kistaŕ oroK jaupa osua entzun biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 2'gn. Ama Neskutza-Garbikundia; Adabalda-Deuna, ziñopea, laburditaŕa odolez.

3'gn. Deun-Balasi, gotzaña, ziñopea, estaŕimin-aurka Zaintzalia; Josu'ren Otoya Baratzan

5'gn. Deun-Martin Igokunde, ziñopea, giputzkuaŕa.

6'gn. Ilako lenengo barikuba.

Ilako lenengo bederatzi bariku jaŕaŭubetan Jaunaŕkuna, biar dan eraz, ba'dagixu —Josu'k esan eban--donokija zeuria dozu.

11'gn. Lurdes'ko Ama Neskutza.

NEGU OLDOZKUNA- J.Z. 1920-139-021

Mendi gallurrak zuri, soill-soill aran-muñoak
zugatzak billotsik ta ixilik txoriak,
axe-erauntzi barruan ekaitzaren marraskak
negu bildurgarrian dantzuz bideztiak.

Berun margoz ortzea dager, ta eguzkia
bildur dala dirudi arpegia agertzen;
odei zearka nozbait izpiak bialduta
ekaitzaren bildurrez dau laster igesten.

Ta uste dau bideztiak, eriotz baltz ituna,
ekaitz-bidez ludiaz yabetuko dala;
gogaldu bearrean udabarri pozkilla
ekaitz-bidez gertatzen dabillela Yauna.

Bardin gogo-bizitzan goi-eskar edur zuriz
apain egonarren be, eltzen da negua;
adimena goibel ta biotza leortuta
bere barru entzunik girñaren orrua.

Ta sarritan gogoak uste dau etsaipean
ekaitz galgarri onek ondatuko daula;
gogaldu bearrean betiko udabarria
ekaitz bidez gertatzen dabilela Yauna.

NEGU-OLDOZKUNA

Mendi galuŕa zuri,
soil-soil aran muñoak;
zugatzak bilotsik ta
ixilik txoriak;
axe erauntsi baŕuan
ekatxaren maŕaskak,
negu bilduŕgaŕian
dantzuz bideztiak.

Berun maŕgoz oŕtzea
dageŕ ta eguzkia
bildur dala dirudi
arpegia ageŕtzen;
odei seaŕka nozbait
izpiak bialduta
ekatxaren bildurez
lasteŕ dau igesten.

Ta uste dau bideztiak
eriotz-baltz ituna
ekatx-bidez ludiaz
jabetuko dala;
gogaldu beaŕean
udabaŕi pozkila
ekatx-bidez geŕtatzen
dabilela Jauna.

Baŕdin gogo-bizitzan,
goi-eskaŕ eduŕ zuriz
apain egon aŕen be,
eltzen da negua;
adimena goibel da,
biotza leoŕtuta,
bere baŕu entzunik
girñaren oŕua.

Ta saŕitan gogoak
uste dau etsaipean
ekatx galgaŕi onek
ondatuko daula;
gogaldu beaŕean
betiko udabaŕia
ekatx-bidez geŕtatzen
dabilela Jauna.

GABIREL.

Berun-margo=color plomizo.
Axe-erauntsi=huracán.
Ekatxaren maŕaska=bramido de la tempestad.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
140'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Otsala 16'gn

Josukisto'n Alatzak

(MIRARIAK)

Legenaŕdun baten osatzea

(Math. VIII-2-4; Mark. I-40; Luk. V-12-161)

GTA jazo zan uri baten egoala, ara non yatoŕkon legenaŕez betedun gizon bat, eta Josu ikusi ebanean, bere aŕpegi-gain makuŕtuta, guŕtuten eban, eta belauniko aŕen-egitson esaten: Jaunoi, gura ba'dozu osatu neikezu. Eta Josu beratzaz eŕukituta, eskua luzatu eban eta ikutu eutson esanaz: Gura dot. Gaŕbi zadiz. Eta esanaz bapatean legenaŕa joan yakon, eta gaŕbi geldiĩtu zan. Eta zematu, eta bereala bialdu eban eta agindu eutson. Ara, iñori be ez eyokezu esan, baña zoaz eta jaupari nagosiari aurkeztu zakioz, eta Mois-agindu-arauz oparia eskeñiyokezu, zinaltzat izan dakion. Bera baña, andik uŕtenda esaten asi zan, eta ospea zabaltzen. Eta alan bere ospea edatuaz joyan; eta berari entzuteko eta euraen gexoak osatzeko gizozte ugari eltzen yakon, agirian urira saŕtu eziteko baña. Berak baña, lekaroratuta, otoi egiten eban. Eta toki bazter danetatik beraganatzen ziran.»

* * *

Palestina - ipaŕ - aldean dagon, Galilea luŕaldea gustiz biztanletsua zan. Bertan bai edo ziran iru bat miĩloe biztanle beŕeun eta lau uri-baseŕitan bananduta.

Eta beste judaŕ-eŕkietan lez, legenaŕ (lepra) gexodunak ugari ziran. Josu'k gexo aunetatik gaŕbitu ebazan, beste askoren artean, aitatu dogun legenaŕduna dirudienez (Luk. V-12) Kapharnaum'an osatu eban.

Legenaŕa gexo bilduŕgaŕi ta bein gorputzan zabaldu ezkero osagatxa zan. Legenaŕdunak lenengotik itxuragetu ta antz inguingaŕia artzen eben; azal ta gorputzatal gustiak maŕgogetu (kolorgetu) zuŕmindu ta anditutten yakezan; gero zauriz bete; begi eta-suŕetatik ur-ustel iguingaŕia erioela, abotsa laztu, atzoskolak jausi, goŕputz gustia usteldu ta iĩ aŕteraño atalka jausten yaken. Legenaŕdunak bizirik ustelduta dabiĩen gorputz iĩa dirudi. Gorputz gustia daŕdaraz ta askure aŕtegakoŕaz,

gogoa iīun, iltzer dagonen antzera, ta etenbako il gurea eukan. Eta legenaŕduna beste barik eŕukaŕi-eŕukaŕia zan aŕen, legeak oŕbandutzat esten ebalako eŕukaŕiago egiīen eban. Gexo au eukana, itsaskoŕa dalako, iñor kutsututeko biďuŕez eŕitik aldenduta, jantzi berezia erabilteko beaŕtuten eben. Jateko biīa, izten eutsen izentautako tokira joan beaŕ izaten ziran, burutzik ta aŕpegia suŕetaraño estalduta. Zeŕbait ibiīiko ba'ziran onantxe jantzita ibiīi bear; eta iñoŕ auŕkitu ezkero ez uŕeratzeko didaŕ egin beaŕ izaten eben: «Tame, Tame.» «Loi - Loya naz.» Eta agindu oneik austen ebazana eriotzaz zigoŕtzen eben. Legenaŕdun gixajoak ba, zoritxaŕ gustiak bere gain eukezan.

Alatz onetako legenaŕduna, Josu'ren al eta ontasunen baŕi eukalako edo, arau gustiok ostikopetuta uŕeratu yakon, eta apal-apalik ta uste biziaz otoi labuŕ eta edeŕ auxe egin eutson: «Jaunoi, gura izan ezkero osatu neikezu.» Eta Josu biozperak eskuaz ikututa erantzun eutson: «Gura dot. Garbi izan zaitez». Eta bapatean gexo bilduŕgaŕia joan yakon. Eta osatuta baldintza bi ipiñi eutsozan; lenengo, iñori ez esateko; ta bigaŕen, Mois'en agindua betetako jaupariagana auŕkeztuta. Lenengo agindua pozaŕen ezeban bete, baña bai bigaŕena, eŕitaŕakaz aŕtu-emonik eukiko ba'eban beaŕekoa eban ba. Lege aginduz gaŕbi azaltzeko auxe egin oi eben: Txoritxo bat uritik at eraiī; eta aonen odolaz nastautako uretara beste txori bat saŕtu ta bereala azkatzen eben. Onez gañera legenaŕetik garbi azaltzeko, elexan arkume bat eskintzen eban; eta jaupariak arkuma aonen odol ta orio nastuaz igoŕtzi ta gaŕbi zala iragaŕten eutson. Aonantxe jazo zan legenaŕdunaren osatze gelgaŕi au. Josu'k; beratzaz eŕukiīuta, Bere Biotz-samuŕtasuna; eta gexorik ikar agaŕiena itz bategaz osatuta, Bere Jainkotasuna azaltzen ebazala.

* * *

Kistar maite: Legenaŕdun gizon au oben aztunaz kutsututa dagoanen irudia da. Legenaŕa gexo iguingaŕi ta bilduŕgaŕia da; obena askozaz bilduŕgaŕiagoa. Gexo osagatxa da; obena be bai, Josu'k bakaŕik ala Josu'ren izenean jaupariak autoŕkuntza bidezkendu leikena. Obendun garanean ba, legenaŕduna lez, Josu'ren oñetan auspeztu, ta otoi edeŕ-apalau dagiyogun: Gura ixan ezkero osatu neikezu. Ta bereala Josu'ren Biotz eŕukioŕetik urtendako itz gozuok entzungo dituguz: Gura dot. Eta bai dakigu bere guraria egikoŕa dala.

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 22'gn.; 29'gn.

Amabostaruon, gure Goteŕkijan jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 17'gn. Jauna'ren Zigoŕketa-aŕaga deuna.

18'gn. Auts-Egubaztena; barau-eguna. Beŕogeikarua asten da.

20'gn. Jaunaren Arantzazko Burestuna; barau ta *aratuzte*-eguna.

21'gn. Barau-eguna.

25'gn. Deun-Matai, belduba, jai erditzat zaintzen doguna; barau-eguna.

27'gn. Jauna'ren Aztamakiīia ta Untziek; barau ta *aratuzte*-eguna.

28'gn. Barau-eguna.

Guk emen ixendatzen doguzan barau - egun eta aratuzte-egunek-aragija iztekuek— Buldadunentzat baño ez dira.

Buldadun ixan-biaŕ eta ez diranak guk emen ixendatzen doguzan aratuzte ta barau egunak baño geyago zaindu-biaŕ dabez. Bulda bako gure irakurlerik ixango danik baña ez dogu uste.

DIXIT INSIPIENS.... – J.Z. 1920-140-029

«Sentzungeak bere biotzan diño:
Yaungoikorik ez da».
(Psl. XIII-1)

Ludi edertasunai so-egin eta nor da
ezer ezpalekus lez gizon ayergea?
Ortzean ikusirik euzki zoragarria
ta ainbeste izar eder, nor geltzen eztana?

Oyan baso, mendia tantaik orleiz yantzirik
aran eta moñoak bedar eta loraz,
ikusten dituana; zelan ez oroituko
ainbat gauza gelgarrin Egille Yaunagaz?

Ainbat egazti mueta, ainbat arrain, abere,
zomorro eta pizti ugari, ugari,
nor da ezdakuszana, lur itxaso axetan,
ereserki ederra zuzentzen Yaunari?

Itxaso zabal-azal antzikur ederran lez
Yaunaren arpegia, nok ikusten eztau?
Ekatxaren barrenan Yainko-beso altsua
tximistaren argiaz edonok ez dazau?

Baña zer; geure barru sentzunak ertsita be,
adimen ta biotzan ezdaurkigu Yauna?
nor da ba lotsagabe Yaungoikorik eztala
esaten biotz barru asartuten dana?

Oroen lotsagarri izate bat bakarrak
ukatzen dau ero lez Yaunan izatea;
«Yaungoiko bat bai dala» abes-aintzatsu-aurka
auxe bakar-bakarrik: Gizon sentzungea.

DIXIT INSIPIENS...

«Zentzungeak bere biotzan diño;
Jainkorik ezta.» (Psl. XIII-1).

Ludi edertasunai
so-egin eta, ¿nor da
ezeŕ ezpalekus lez
gizon ayeŕgea?
Oŕtzean ikusirik
euzki zoragaŕia
ta ainbeste izar edeŕ
¿nor geltzen eztaña?

Oyan-baso-mendiak
zugatz oŕleiz jantzirik
ara eta muñoak
bedaŕ eta loraz,
ikusten diñuana,
¿zelan ez oroituko
ainbat gauza gelgaŕin
Egīle Jaunagaz?

Ainbat egazti mueta
ainbat aŕain, abere,
pizti eta zomoŕo
ugari-ugari
¿nor da ez dakuzana
axe lur-itxasoan
ereseŕki edeŕa
abesten Jauna'ri?

Itxaso zabal azal-
antzikuŕ edeŕan lez
Jauna'ren aŕpegia
¿nok ikusten eztau?
Ekatxaren baŕenan
Jainko-beso altsua
tximistaren aŕgiaz
edonok ez dazau?

Baña zer? geure baŕu
zentzunak ertsita be,
adimen ta biotzan
ez dauŕkigu Jauna?
¿nor da ba lotsagabe
Jaungoiko'rik eztala
esaten biotz-baŕu
asaŕtuten dana?

Oroen lotsagaŕi
izaki bat bakaŕak,
ukatzen dau ero lez
Jauna'n izatea;
«Jaungoiko bat ba'dala»
abesti aintzatsuen,
auŕka auxe bakaŕik:
Gizon-zentzungea

GABIREL.

So-egin-begiratu; ayerge=indiferente, *Oŕtze*=firmamento, *geldu*=admirarse, *zomoŕo*=insecto, *ereseŕki*=himno, *zentzunge*=insensato, *antzikuŕ*=*espīlua*.

Laugaren atzalburua

GOGOAREN IZATE TA GOGOKORTASUNA

Norbere oarikaspenez gustiok dakigu geure gorputz-baru dagola zerbait, gogaldu, gura izan eta oartzen dabena; aoni gogoa deritxogu. Gogokora dala diñogunean, geure gorputzeko zatiren, bat eztala adirazten dogu: ezta geure odola, geure kirioak, geure gorputz ta geure garunak be, zabal, luze ta sakon danik be eztala: ataletan ezin deitekela zatitu atalik eztaukolako: itz baten ikusi, ikutu ala beste zentzumenakaz oartuten doguzen edezeren antzeduna eztala; beste mala bardinge batekoa baño, ta geure inguruan daukaguzanen gañe - gañetikoa: au da: «Izate gaigea (atalgea) gogaldu, ta gura izateko almena daukona.

Geure gogoa gogokor eta gorputzgea dala eraz ezagutuko dogu, gogo ta gorputzaren bardingetasunak gogoratuta. Gorputz edo gaidun gauzak, eragin ezkero igitzen dira: baña geldi izten ba'yake geldi iraungo dira, au da berez egipen eta igipenik eztauke. Geure gogoan bariz alderantziz oartzen da: ez bakarik gorputzari berak gura dabenean eta berak gura daben eran eragiten dautsolako, baita be, bere gogalkun bidez une baten zeru ta lura arakatzen ditualako eta ain artega, egikor eta bizia dan ezkero, bere izatea gaidunen izatetik gustiz bardingea eztala esatea, argiari begiak iztea da.

M. 'tar G. Euzk.

Oarirakaspen=experiencia, *gogokor*=espiritual, *kirio*=nervio, *gorputz-ari*=fibra corporal, *egipen*=movimiento, *alderantziz*=al revés, *bardingea*=diferente, *Irazapen*=creación.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
141'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1920 Zoŕnotza, Epala 1'gn

Josukisto'n Alatzak

(MIRARIAK)

ELBAŔITU BATEN OSATZEA

(Math. IX-1-8; Mark. II-1-12; Luk. V-17-26)

GTA egun batzuk igaro ta, baŕiro bere uri Kapharnaum'era saŕtu zan. Eta etxe batean egoala zabaldu zan; eta asko eŕdu ziran, ataŕiak be aŕtu eziteko aña. Eta Bera jaŕita irakasten zegoan, baita be, jaŕita egozan, Galilea, ta Juda'ko eŕi gustietatik eta Jerosolim' dik etoŕitako parixetaŕ eta lege-jakitunak. Eta Jauna'ren ala gexoak osatzen agertzen zan. Eta ara non eŕdu ziran gizon batzuk, gizon bat elbaŕi zana, balaŕta edo oetxo baten ekaŕela, eta lauen aŕtean eroyen. Eta saŕtu ta bere auŕera eroateko bide asmetan ebizen. Eta gizostea zala-ta nondik saŕtu auŕkitzen ezebelarik Josu zegoan etxegain igo ziran; loyaŕ edo tela batzuk kendu ebezan eta andik elbaŕitua zetzan balaŕta eŕdiraño Josu'ren auŕera jatsi eben. Eta Josu'k euraen zinestea ikusirik elbaŕituari esan eutson: Seme, uste izan egizu, zeure obenak paŕkatzen yatzuz. Oŕduan idazkari ta parixetaŕak euraen biotzean oldozten asi ziran, euren baŕuan ziñoela: ¿Zeŕ da onek diñon au? Onek birao-diño. Obenak nok paŕkatu ete leikez Jainkoak izan ezik?

Eta Josu'k bere gogoan bereala ezauturik, auxe euren baŕu oldozten ebela, erantzuten esan eutsen: Zeuen biotzetan oldozkun txaŕ oŕeik, ¿zelan oldozten dozuez? ¿Zeŕ ete da eŕazago, elbaŕituari «zeure obenak paŕkatzen yatzuz» ala «jagi, oetxoa aŕtu ta zabil» esatea? Jakin dagikezuen ba, gizonaren Semeak luŕean obenak paŕkatzeko ala daukola (oŕduan elbaŕituari esan eutson.) Neuk diñotzut; «Jagi, zeure balaŕta aŕtu ta zeure etxera zoaz.» Eta bereala, euraen auŕean jagi zan, eta zetzan oetxoa aŕtu ta danen agerian etxera joan zan, Jainkoa goraltzen.

Eta gizostea ikusirik bilduŕtu zan, eta aŕitasuna euretzaz jabetu zan, eta Jainkoa goraltzen eben, ainbesterañoko ala gizonai emon eutselako esanaz: Gauŕ gelgaŕiak ikusi ditugu.»

* * *

Josu egun batzuk igarota baŕiro Kapharnaun'era biuŕtu zan. Eta etxe baten, Kepa'renan-edo, aurkitzen zala dirudienez, legenardunaren osatze miŕagaŕiaren ospeak erakaŕita, Jerosolim, Juda, ta Galilea'ko bazteŕ gustietatik bildutako gizoste izugaŕia, ta euraen aŕtean maltzuŕkeriz etoŕitako parixetaŕ, eta lege-jakitun asko zirala, Josu zegoan etxera eŕdu ziran. Eta oi eban lez, itzaldigiñen ziaŕduala, ara non ageŕtzen diran lau gizon; eŕukituta elbaŕitu bat oetxo baten zekaŕela, Josu'ren auŕean ipinteko asmuaz; uste eben ba eŕukituta osatuko ebala. Baña etxea gonburu ta ataria be, ostez beterik, ta iñondi - iñora ezin biderik egin izan eben. Orduan gizon adoretsuok, ate edo kanpoko mala ala alboko etxe batetik gexoa etxegañera jaso eben, eta sabaitik, orduko etxeak laua euki oi eben eta; kanabera soi eta tela batzuk kenduta, soka batzukaz Josu'ren auŕera jatsi eben.

Josu'ren auŕean auŕkitu zanean uste izan beaŕ dogu elbaŕituak apal-apalik otoi egin izango eutsola. Ta Josu'k be, eretiau aukeratu eban bera salatzeko etoŕi ziran parixetaŕai batez be, obenak paŕkatzeko eskubidea ageŕtuaz bere Jainkotasuna begien auŕean ipinteko. Eta alan ekaŕi ebenen zinestea ikusirik, elbaŕituari esan eutson: «Uste izan eikezu, seme, zeure obenak parkatzen yatzuz.» Entzunaz beste barik parixetaŕak aŕtegatu ziran, eta euraen baŕuan ziñoen: Onek birao diño. Obenak paŕkatzea Jainkoa'ri bakaŕik ez ete dagokio ba? Noŕ ete da ba berau obenak paŕkatzeko? Baña biotz baŕenak azteŕten diŧuan Jainkoak euraen gogalbenok ezaguturik diñotse: ¿Zer ete da eŕezago elbaŕituari «Zeure obenak paŕkatzen yatzuz» ala «Jagi ta zabil» esatea? Gizon utsarentzat gauza biok dira eziñak, baterako be almenik eztauko-ta, baña Josuk Jainko-Gizona zalarik begiz-jo leiken gexoa osatzeko ala eukala ageŕtuaz baŕengo oben-gexoa osatzeko almena be, bai eukola agertu gura izan eban, eta oŕetarako esan eutson: Jakin daikezuen Gizonaren Semeak luŕean obenak paŕkatzeko almena bai daukola (elbaŕituari esan eutson) «Jagi, aŕtu zeure bala ta etxera zoaz» «Eta bapatean jagi ta oetxoa lepoan aŕtu ta etxeratu zan, Jainkoa goraltzen ebala. Alatz aŕigaŕi onek elbaŕituaren biotza eskaŕ onez bete eban; gizosteak aŕituta Jainkoa goraltzen eban ta parixetaŕ zitalak, zer? Goizpaŕkiak ezeŕ be eztiño, ta oi ebena egin eben: aŕgiari begiak itxi.

* * *

Kistaŕ maite: Josu'k alatz aunen bidez argiro geure begien auŕean ipiñi gura izan eban, gero bere ordezkoeri emon eutsen, obenak paŕkatzeko eskubidea eukala. Poztu gaitezan ba, ta eskaŕ ona ageŕtu dagiyogun, obendiyontzat pozkaŕi-pozkaŕi dan egi au, etsayen kaltez alatz-bidez sendetsi gura izan ebalako, ta goraldu daigun Jaingoikoa gizosteak egin eban lez.

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 7'gn.; Akino'taŕ Toma, autoŕlia, irakaslia; 14'gn.

Amabostaruon, gure goteŕkijan jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 3'gn. Barau-eguna.

4'gn. Jabier'taŕ Deun Pantzeska'ri bederatziuŕeun eskaŕtsuba, asteko eguna.

5'gn. Barau ta *aratuzte*-eguna; Jaunaren Ixara Deuna; ilako lenengo barikuba.

IKASI TA... EGIN

Ikusten dok oŕ espetxerantza
lotuta doyan zantzaīla;
gazte dan aŕen iñoren gauzak
beraganduten azkaŕa?
Orixe dok ba, beñola ikasi
ñai ez ta Ikasti kistaŕa
«sasieskola» egiīten yoan
gañarin mutil koskoŕa.

Bai dakusk oŕtxe bide basteŕan
lokatz aŕtean dagonoi?
«Lebatz» edeŕaz laguntzeke ezin
etxeratu dan mutiīloi?
Orixe dok ba, txiki zalarik
bete ez guraso esana,
ta Ikasti kistaŕ aldian beti
jolaska ibilīten zoana.

Ikusten dok oŕ, oitura zataŕ
giŕnaren jopu otzana,
gurasoentzat laguntza oŕdez
baŕiz arantza dokana?

Berberori dok Goi-ikastiko
a... mutil nagi-alpeŕa,
naspil zale ta biuŕi zoan
buŕukalari zakaŕa.

Ikusten dok a, birao zikin
eta itz nasayaz aboan,
jaupari-kaltez tentelkeriak
esaten. «Kape» txokoan?
Orixe zoan ikastolan be,
lelo aŕtean auŕena,
aŕoputz, ezeŕ etxakit baña
«sosolisto» dok kiŕtena

Entzun mutiko; gura dok izan,
gurasoen poz-atsegin:
Goi-ikastia zintzoro ikasik
ta agintzen daunai men-egin.
Itz eta oituraz gentzatsu-gaŕbi
izatea dok beaŕa;
oŕetarako auxe bidea:
GOI-IRAKASTI KISTARRA.

GABIREL.

Zantzaīla=*pillastre*. Goi-ikasti=*Doctriña*. Jopu=*esclavo*. Otzana=*manso*.

JAINKO-Gurtza Egiztuta (Balmes)

Boskarren Atzalburua

Gogoaren izate ta gogokortasuna beregiztuten da.

Gogoa soingea eztala diñoen gizonak bai dirala, zinesgatxa dirudi. Soingea ez-pa-da ba, ala geure odola, ala uren bat, ala lobel me-meen bat, ala zuntz piloen bat, ala olako zerbait izango da; ta au guzura ta eziña dala ondo agertzen da, begiz jo orduko bakan eta iguingari egiten yaku ba. Ta izan be, gauza ain guren eta ederak asmau ta egin dituzan, gogoa, zelan izan leiteke, aragi ataltxo bat, kirio txorta, zuntz pilo bat, ala odol apur bat ala ur, ala lobel naiz iruditu leikenik meena, baño ez izatea? Homero, Virgilio, Tasso'ren olerki, Demostenes, Zizeron, eta Bossuet'en idazti, eta Mikel Anjel, eta Erapel'en laurka gelgariakaz aritzen garanean: aren buruetan, aragi, kirio, zuntz odol, ur, ta mueta askotako lobelak bai, baña gogorik ez egoala gogoratu be ete geinke? Bere senean dogon gizonak onelako kirtenkeririk oldoztu ete leike?

Seigaren Atzalburua

Gogoaren ezilkortasuna, geroko Bizitzako sari zigorak

Gogoa gorputzaz batera ezta ilten. Ludiko eri gustiak ziñestu izan dabe beti bizitza au igaro ezkero, egite onak saritu ta txarak zigortuteko beste bizitza bat dala: ta ondo gauza bakana izango litzake gizadi gustia atzipetuta bizitzea. Au egia ez-palitz; ¿gizon gustiai nok adirazi ete eutsen? Onek agertzen dau ba, Jaunak geure lenengo gurasoeri irakatsi eutsela ta gero belaunik-belaun aldi ta toki gustietara zabaldu zala, osterantzean ezin lei ulertu, ainbeste aldi-aro ta tokietako, oitura ta aburu ain bardingedun gizonak zineste bat eukiteko zelan itundu al izan diran. Egia da, era askotara azaldua izan dala, uskurtz bakotxak bere erara: baña, gauza garantzitsuenatzaz, au da, beste bizitza baten izate ta gogoaren ezilkortasunatzaz, gustiak aburu batekoak dira. Gorputzagaz gogoa eztala ilten egiztuteko agerbide erantzun ezin leikiona da au: Ziñaldari askok ba, ezetan alkar aitzen eztiranak, gauza baten bakarik bat egiten ba' dabe, axe egia dan ikura da.

Gizadiaren ziñeste orokar au beste ziyo sendo bategaz egiztuten da. Egunoro dakusgu gozaro bizitzau igaroten daben gizon gaiztoak bai'dirala; baita beste batzuk, onak, atsekabe ta samitasun artean arastaka bizi dirala. Jainkoa zuzena dalarik; ontasuna saritu ta gaiztakeria zigortuteko beste bizitza bat ez izatea ¿zelan izan ete leike? ¿Ziñestu al izango ete dogu ba, gizona abere basatia lez ilgo dala, bere egite txar ala onen zuri-garbia iñori emon bearik barik? Eztaigun, ¡ez! Jainkoa'ren zuzendasuna iraindu: geure izatea eztaigun ostikepetu basatienagaz bardinduta.

M.'tar G. Euzk.

Soinge=espiritual, *lobel*=liquido; *zuntz*=fibra, *kirio*=nervio. *Laurka*=cuadro, *gogokortasuna*=espiritualidad, *ezilkortasuna*=inmortalidad, *orokar*=universal.

UARRA

Bilbao'ko bazkidiak leku onexetan euren arpide sarija ordaindu leiskegube: Librería de San José, Correo kalian 25'gn zenbakijan eta Librería de Elexpuru Banco de España kalian 3'gn. zenbakijan.

Bilbao'tik atakuak be geure ordelarijai ordaindu legijoe, daukoguzan erijetan; euroi ba datoren astian, Jaungoikua lagun, okain-agirijak, *erezibuak* bidalduko dautseguz.

Ordelaririk ez daukogun erijetatik, cheque edo giro postalez ordaindu begiskube.

ZORNOTZA.-Jaungoiko Zale'ren Irarkolea.

JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI · EUZKERAZ

1920'ko
Epalla'ren 16'gn.

IX 'Urtia
142'gn. Zenbakija

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
142'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Epaĺa 16'gn

Josukisto'n Alatzak

(MIRARIAK)

Bethesda'n gexo bat osatzen dau,

(Jon. V—I=16.)

GAUZA onein ondoren Judaŕen jaya izan zan, eta Josu Jerosolym'era igon zan. Eta Jerosolym'an dago Probatika, Aŕain-osina, bost ateŕpeduna, ibeŕkeraz Bethesda deritxona. Eta oneitan zetzan gizoste ugaria, gexo, itsu, eŕen ta elbaŕituena uraren igikunaren zain. Jauna'ren Aingerua ba, aldiz-aldizka jatsi oi zan Aŕain-osinera, eta ura ziŕkintzen zan, eta ur-ziŕkin ondoren lenen Aŕain-osinera jasten zana, edozein gexotik osatzen zan. Eta an zan gizon bat igaroko ogetamazortzi urtetan gexo zana. Eta Josu'k berau etzunda ikusirik, eta aldi luzean egoala jakiñik, esan eutson: Gura dozu osatu? Gexoak erantzun eutson: Jaunoi, ura astintzen danean Aŕain-osinera saŕtuko naben gizonik eztaukat; eta neu noyan bitaŕtean, beste bat ni baño len jasten da. Josu'k esan eutson: Jagi, aŕtu zeure oetxoa ta zabiĺ. Eta bapatean gizona, osatu zan, bere oetxoa aŕtu eban ta ba ebiĺen. Eguna, larunbata zan. Judaŕak ba, osatua izan zanari esaten eutsoen: Gauŕ larunbata da, ta zeure oetxoa eroatea ziĺegi etxatzu. Erantzun eutsen. Ni osatu naunak axek esan daust: Aŕtu zeure oetxoa ta zabiĺ. Orduan iīandu eutsoen: Aŕtu zeure oetxoa ta zabiĺ esan dautzun ori, noŕ da? Baña osatua izan zanak noŕ ete zan etzekian, Josu ba, ango gizoste aŕtetik aldendu zan. Gero Josu'k elexan auŕkiīu eban eta esan eutson: Ara, osatuta zagoz: ezegikezu geyago obênik, zeŕbait txaŕagorik geŕtatu ez dakizun. Joan zan ba gizona, eta judaŕai esan eutsen Josu zala osatu ebana. Au zala-ta, judaŕak Josu jazaŕtuten eben gauza oneik larunbatez egiīen ebazalako.»

* * *

Josu, Kapharnaum'go elbaŕitua osatu ondoren, bere jaŕai joyan gizosteari irakatsiaz, baŕiro itxasoratu zan. Bidean Levi Alpeo'n seme Matthai izendunari bere ikasletzarako dei egin eutson, eta onek eskaŕonez emon eutson oturuntzan (janari) obendi ta zergalariakaz Josu batu zala-ta parixetaŕen moŕmoxetari egokiro erantzunda, bere bizitza agiriko bigaŕen Pasko - jaya igaroten, Jerosolym'eratu zan.

Uri aunek eukazan amabi atetatik, bat zan ardien atea eritxona, elexan Jauna'ri opaltzen yakozan ardiak beŕtatik igaroten ziralako-edo. Uŕean Aŕain-osin bat zan, bost aterpeduna. «Probatika» (gerkeraz, probaton=ardi itzetik) ta ibeŕkeraz Bethesda edo Eŕuki-etxe zeritxona. Bertoko urak urtean bein-edo, aingeruak astinduta uste ebenez, uretan lenen saŕtzen zan gexoa osatzeko indaŕa eukala-ta, an biltzen ziran itsu, eŕen, elbaŕi ta abaŕ ura ziŕkintzen zanean len bait-len saŕtzeko. Josu'k ikeŕtu ebanean, beste askoren aŕtean berenez uretan saŕtzeko gauza etzan gexo eŕukaŕi bat auŕkitu eban. Ogetamazoŕtzi urte eroyazan gexorik, ta baten baño saŕiago, osatzeko itxaropenaz osin gelgaŕi onetara etoŕi izango zan aŕen, nok lagundu izango ezebalako-edo, biotz atsekabatuaz beratzaz eŕukituko zanik idoro ezebalako etxeratua izango zan. Baña nozbait eŕuki eguzkiak beretzako be aŕgi egin eban. Josu biotz biguna uŕeratu yakon eta itandu eutson: «Osatzea gura dozu? «Eta berak erantzun eutson: Jaunoi, ura zirkintzen danean, osiñean saŕtuko naben gizonik eztaukat, eta neu noyan bitaŕtean besteen bat lenago jasten da.» Josu'k esan eutson: Jagi zaite, aŕtu zeure oetxoa, ta zabil.» Eta bapatean gizon au osatu zan, aŕtu eban bere oetxoa ta ba-ebilen. Alatz aŕgi ta gaŕbia izan zan. Guraso deun askok gexo au elbaŕitua izan zala diñoskuen aŕen, gaŕbi ezeŕ eztakigu, baña eskieŕ dakiguna da, ogetamazoŕtzi urte gexorik eroyazala, beraz osagatxa zala, uretan saŕtuta ezebala osatu, ezta ta irasoŕkintza bidez (por sugestión) Josu ezautzen ezebalako, ta Josu'ren itz bat naiko izan zala oso-osoan osatzeko. Judaŕak be, au igaŕi edo-eben eta ezeutsoen itandu nok osatu eban, iñartziz itsututa, Josu'ren onik ezeben entzun gura be-ta; baña bai esan larunbatez oetxoa eroatea zilegi etxakola, ez legeak lan au debekatzen ebalako, euraen legezalekeriak legea Josukisto'n kaltez biurtu gura ebalako baño. Gexo osatuak adoretsu erantzun eutsen: bera osatu ebana etzekiala nor zan, baña berberak oetxoa artuta joateko agindu eutsola. Gero elexaratu zanean, Josu'k adirazi eutson bere gexoa bere obenen zigoŕa izan zala, eta aŕen obenik geyago ez egiteko. Eta eskaŕ oneko gizon au, beriala joan zan judaŕakana, eurak gura ezebena esaten: Bera osatu ebana Josu-Kisto izan zala. Eurak baña, apalik Josu-Kisto'n Jainkotasuna autoŕtu beaŕean, amoŕuz Josu erailteko asmoa aŕtu eben, gauza oneik larunbatez egiten ebazalako! ¡Girña-pean bizi danen itsukeria ara noraño eltzen dan!

* * *

Kistaŕ maite: Bakaŕtasuna zoritxaŕen geriza dala dirudi; saŕitan ba, dakuskeguz alkaŕtuta. Bethsaida'ko gexo au ogetamazoŕtzi urtetan osatzen lagunduko eutson gizon barik auŕkitzen zan; eta eŕuki egaŕi zan aŕen, beragana izpi bat be etzan eldu. Azkenez baña Eŕukia berbera ageŕtu yakon eta itz bategaz sendatu eban. Obendia be, zoritxaŕik baltzenen azpian auŕkitzen da, ta goiko laguntza barik, eriotza ilunpean yaŕita egon beaŕko da, baña benetan osatu gura ba-dau, Josu-Kisto Eŕuki berberak, ipiñi ditu bere Ikuŕton (sakramentu) ta bere ordezkoak obenak paŕkatzeko. Ezin leike, ba, esan «laguntzeko gizonik eztaukala.»

GABIREL.

EGI-BIDEA – J.Z. – 1920-142-047

Egi-egarriz gustiz aulduta
bein bidezti bat zegoan,
bidekatuta erantzun billa
oldozten bere barruan:

Nondik sortu naz? norantza noa?
Zertako nago ludian?
Gaudi eder au yakin neinke nik
zeñek egiña ete dan?

Berez sortua eztirudi ta,
norbaitek egin dau ziñez!
Ze asmoz baña egin ete dau
yakin gura dot yoranez.

Bizitz igeskor onen ondoren
bai ete dago besterik?
Eriotz baltzan beste aldean
ete da sari-zigorrik?

Gorputz ustelkor onez gañera
badot nik ezer barruan?
«On egin beti, txarrik iñoz bez»
nor diñostana gogoan?

Zorun egarriz dodan biotz au
ete da iñoz be aseko?
Ludi onetzaz iguintzen da-ta,
nok egiña da? norako....?

* * *

Onetan ara non agertzen dan
arpegi alai argiaz,
Yaunan Gotzon bat au diñotsona
idaztiño bat emonaz:
-Egi-zoruna lortu nai bozu
ara or bide bakarra».
Pozez beterik zabaltzen dau ta
zan... IRAKASTI KISTARRA.

EGI BIDEA

Egi egaŕiz gustiz aulduta
bein bidezti bat zegoan,
bidekatuta, erantzun bila
oldozten bere baŕuan:
—¿Nondik soŕtu naz? ¿norantza [noya?
¿zeŕtako nago ludian?
Gaudi edeŕ au jakin neike nik
zeiñek egiña ete dan...?
Berez soŕtua eztirudi ta,
norbaitek egin dau, ziñez!
Baña ze asmoz egin eta dau?
jakin gura dot joranez.
Bizitz igeskoŕ aonen ondoren
bai ete dago besterik?
Eriotz baltzan beste aldean
¿ete da sari-zigoŕik...?
Gorputz ustelkoŕ aonez gañera
bai dot nik ezer baŕuan?
«On egin beti, txaŕik, iñez bez»
¿noŕ diñostana gogoan?

Zorun egaŕiz dodan biotz au
¿ete da iñoz be aseko?
Ludi aonetzaz iguintzen da-ta
¿nok egiña da..? Norako...?

. . . . . .

. . . . . .

Onetan, ara non agertzen dan
arpegi aŕgi-alayaz,
Jauna'n gotzon bat au diñotsona
idaztiño bat emonaz:
Egi zoruna loŕtu nai dozu?
ara oŕ bide bakaŕa»·
—Pozez beterik zabaltzen dau-ta
zan... IRAKASTI KISTARRA.

GABIREL.

Oldoztu=*pensar*, ludi=*mundo*, gaudi=*universo*, igeskoŕ=*fugaz*, idaztiño=*librito*, Irakasti kistaŕa=*Dotrina cristiana*, ziñez=*en verdad*.



JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI·EUZKERAZ

1920'ko
Jorralla'ren 1'gn.

IX 'Urtia
143'gn. Zenbakija

Egurrola'ren **Jostetxea, Lekeitio**'n

PLAZA DE LOS FUEROS

ABADE, GIXON ETA EMAKUMIEN SOÑEKO LIRAÑAK

BILBAO'n ESTRELLA ostatuan ilero.

GERNIKA'n NUÑEZ' arenian.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
143'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Joŕala 1'gn

ASTE GURENA



ZENBAKI auk aste guren gustija aŕtzen ez daun aŕen, lenengo lau egunak beriak diralako, aste gurenatzaz zerbait esatia erabagi dogu.

Aste au gurena da, urte gustiko aste-artian urtenena, agirijena dalako; ta urtenena ta agirijena da, Uzkuŕtz Deunak irakatsi ta ziñistuazoten dauskuzan ziñiskairik omengaŕijenak, guretzako onuragiñenak, astion, Doibatzak gomutarazo ta ospatzen dauzalako.

Abaŕ-Igandia da aste gurenako lenengo eguna. Josu'k Hierosolym'en egin eban gurenda-saŕkuna ospatzen dau gauŕ Doibatzak. Gurenda bi baŕiz gomutauazoten dauskuz. Bata asto-ganian juanda Hierosolym'en ixan ebana, ba, orok dakigunez Gora diaŕka eŕijak aŕtu eban, zugatzetatik abaŕak ebagi, soñetik ganerenguak kendu ta Josu gustijuen Bakalduna igaroko zan bide-ziaŕ edatubaz. Bigaŕen gurendea da, Josu'k bere nekauste, odol-ixuriṫe, erijotza ankeŕ ta gurutziagaz loŕtu ebana, luŕ joazota geiztoki ta geteungiari, gixonatzaz eban ala kendurik.

Egun autan abaŕ-oneskun eta Jaupa nagosira erdu zadiz, zuŕ ba'zagoz eskututs goreskaŕi ta onuratsu asko bere uzkuŕtz-iñarkunez agiri jaŕiko dautzuz Doibatzak. Onesteko abaŕen bat, zure eŕijan oi dalakua, eruan egixu, ta ibildeunan bera eskuban dozula, Hierosolym'go biztanliek lez Josu zure Bakaldunari lagun-egingo dautsazu, gaur dagixunak, donokijan egingo dautsazun gurenda-laguntzea gomutauazoten dautzula. Onetsi dozun abaŕa leyuan, soluan edo imiñiṫa zaindu egixu, bera darabilenentzako, jauparijak, onestian, Jaunari eskatu dautsazan eskaŕak zeugandu dagixuzan.

Aste gureneko bigaŕen egun ixendaba da Eguben Guren. Beldubakin Josu'k egin eban Igaratz-aparija, euskun maṫasunez itxi euskun Oteun-Ikuŕtona, Baratzako otoya ta abaŕ gomutau-erazoten dausku Doibatzak Eguben Gurenez. Bijotzeko apaldasun eta maṫasunez egun au ospatu-biaŕ dogu. Eta apaldasun eta maṫasunik gorenenguena ixan

GETSEMANI´KO BARATZAN J.Z. 1920-143-053

Zugatz adarrak-zear labanka yausten diran
illargiaren izpi argi, gozatsuaz,
ikusi kistar maite, Yosu zelan dagoan,
eta, negar egizu biotz saminduaz.

Itun, zurbil, ikaraz, dar-dar bildurrez dago
larritasunaz iltzer baratz-deun erdian,
ekaitz bildurgarri bat, Nekaldiko ekaitza!
yaiki dalako bere Biotz maitatian.

Gure oben gustiak bere gain artzen doa,
Aitari eskintzeko gustien ordaña,
Berak gugaitik yasan Nekaldi gogorrena,
ta, guri parkatzeko eskartxar-iraña.

Ziñez ikaragarri lepaltzen daun zamea!
Giza-oben gustiak! Oni dan aztuna!
Nok ba, neurtu alko dau, Yainkoaren Semeak
obendio gaxuoi dauskun maitasuna?

Une baten ainbeste oben ikaragarri
dakus ta ordaintzeko yasan beat dauna,
ta, gogaltzez bakarrik artzen daun oñazeaz,
lurrera eratsirik iltzer dago Yauna.

Begira, auspez dago ta samin uin artean
here biotza daula, otoi auxe diño:
«Ene Aita; aldendu, al bada, edontzi au,
ez baña nire nairik Zure naya baño».

Eta oben zigorrak beragantzen ditula,
biotzan sortzen yakon samiñen indarrez
soña estaltzen yako, geldu zadiz kistarra!
lurreraño eltzen dan izerdi odolez!

Oron Yauna Bakarrik! Gotzonen poza zurbil!
Aloroduna dar-dar...! Zelan izan leike?
Ziñeskai ondogea! Argiz baña betea!
Oben-aztuntasuna or ikusi geinke!

GETSEMANI'KO BARATZAN

Zugatz adarak zear labanka jausten diran
ilargiaren izpi argi gozatsuaz,
ikusi, kistar maite, Josu zelan dagoan
eta negar egizu biotz saminduaz.

Itun, zurbil, ikaraz dardar bildurez dago,
iltzer lariṫasunaz, baratz deun erdian,
ekatx bilduṙgari bat; Nekaldiko ekatxa,
jaiki dalako bere Biotz maitatian.

Gure oben gustiak Bere gain artzen doya
Aita'ri eskintzeko gustien ordaña,
Bera'k gugaitik jasan Nekaldi gogorena
ta, guri parkatzeko eskartxar iraña.

Ziñez ikaragari lepaltzen daun zamea!
¡giza-oben gustiak!! ¡ori dan astuna!
¿Nok ba neurtu alko dau, Jainkoaren Semeak
obendio gaxuoi dauskun maitasuna?

Une baten ainbeste oben ikaragari
dakus, eta ordaintzeko jasan bear dauna
ta, gogaltzez bakarik artzen daun oñazeaz
lurera eratsirik iltzer dago Jauna.

Begira, auzpez dago, ta samin-uin artean,
bere biotza daula, otoi auxe diño:
«Ene Aita; aldendu al-ba'da edontzi au,
ez baña nire nairik, Zeu-naya ein baño:

Eta oben zigorak beragantzen ditula,
biotzan sortzen yakon samiñan indarez,
soña estaltzen yako, ¡geldu zadiz kistara!
lureraño eltzen dan izerdi-odolez!

¡Oron Jauna, bakarik!.. ¡Gotzonen poza zurbil!
¡Aloroduna dar-dar!.. ¿Zelan izan leike?
Zineskai ondogea!.. argiz baña, betea!
Oben astuntasuna or ikusi geinke!

GABIREL.

dogu: nekauste oŕen eŕudun Josu ez dan ezkero, eŕuduna didorokegunian, nekaldu ta zuzitu-biaŕ dogu. ¿Josu'ren nekauste -eŕudun zein da baña?. Geu, gure obenez. Jaunak beti mate-ixan gauz, matasun auk, gixon-egin, eta bere buruba, dakusgun gogoŕez, nekalduta imiñiazo eutsan, gustija baña gure obena zala-ta, ba, obenik ixan ezpa-litz. oben-zoŕ ordaintzerik be ez zan biaŕko, beraz Josu nekaldu-biaŕik be ez zan ixango. *Ipse autem vulneratus est propter iniquitates nostras.* (Isai. L. III, V.) Geure burubetzaz ba negaŕ -egin biaŕ dogu, ta garbai-negaŕa ugari egin biaŕ dogu, Josu'ren nekauste-igalijak geugandu ta oben-zoŕa ordaindubaz, garbijak ixan gadixantzat. Aulan, gure goguan, gentzea ixango da, bertan, irurak gogo-garbi-zaliak diran ezkero, Atea, Semia ta Goteuna bixiko dira, ta, Goiko Jauna guria ta gu Goiko Jauna' renak ixango gara. ¿Poz obarik bai? Ona emen ba, Hierosolym'go alabai, Golgota'ra bidian, arnasozka joyan Josu'k beratzaz baño euretzaz obeto negaŕ-egiteko onu ta esondez poztuten irakatsita.

Onu au betetan ez daunaren eŕukaŕi ta gixaxua baŕiz. Ba, Josu'k bere erausija amaitzen daun itzok ez aiztu: *Ba, zugatz ezuan au ba'dagije, ¿igaŕan zeŕ dagikie?* Josu, biaŕ dan aldijan, biaŕ dan igalija emoten daun zugatza da. Iñoren eŕubakaz estalduta, eŕudun ixan ez da, eŕudun dirudi; ta dirudijalako baño ez, emakumiok, eŕukiturik, gaŕatz negaŕez imindeko bestian, ankeŕki aŕtzen dabe. Emakumiok bakaŕik ez, edonoŕ, ikatzaŕizkua baño bijotz gogoŕagua ezpa-dau beintzat, bere neke-miñak goznartuta beste baga, erdibituko yako bijotza.

Gixona, obendun dala, biaŕ dan igalija emon biaŕ daun zugatz ezua ixan biaŕian, zugatz igaŕa da. ¿Beratzaz zer egingo ete-dabe? Ankeŕez ankeŕki aŕtu-biaŕko dabe, ta, gixaxua, ebagi ta surtarako baño ez da ixango.

Zoritxaŕ, ezpiaŕ au jazo ez yakuntzat ba, zugatz ezuak, igalidunak ixan gadixan. Autarako, Josu'ren onua jaŕatu daigun; obendijak, beraz, Josu'ren nekauste -eŕudun garan ezkero, geutzaz, Josu'tzaz baño samiñago negaŕ-dagigun; garbai-negaŕez, Jaunak gure obenak azketsiko dauz; gure buruak garbituko doguz, ta zugatz ezuak ixango gara; biaŕ danian, biaŕ-lako igalijak damokeguz; Josu, gure gose danian, eŕduko yaku, guk, igalijakaz asetuko dogu, ta gure gentzea ta poza amaigiak ixango dira.

Belausiegi'taŕ Pantzeska.

Jauparija.

Jaungoikozko Ikaskaya

«Jesus autem dicebat: Pater dimitte illis, non enim sciunt quid faciunt». «Josu'k baña ziñoan: Aita azketsi oŕei, zer dagien eztakie-ta» (Luk, XXIII-34).

Eskaŕtxarik baltzena, gaiztakeririk itsuena, ta goŕotorik ankeŕena Golgotha mendian alkaŕtu dira ¿Zetarako..? Ontasuna eskaŕtxaŕeko untzez, Argia itsukerizko untzez eta Maitasuna goŕotozko untzez gurutza baten josteko. Iru etsai bilduŕgaŕi oneik esituta dageŕ Josu gure Bizitza, zauriz eunduta, zigoŕez uŕatuta, Gurutza baten zinzilik. ¡Ikuskizun tamalgaŕia! Eŕugetasuna, lapuŕ biren erdian gurutzalduta dakusgu!

Bere inguruan dagoz jaupari nagosi, parixetaŕ, eraile, gudari, ta ikusguraz bertaratu dan gizostea. ¿Norbait ez ete da eŕukituko? Bayetz uste dogu. Baña an di-

ra parixetaŕ, jaupari nagosi judaŕak, aŕokeriz, goŕotoz ta bekaitzez itsuturik; ta pizti basatiak euraen eŕpe aŕtean jausten dan bildots otzanaren odolaz asetzen eztiran lez, biotz baŕuan daben aspeŕkunde egaŕia ezta ondiño ase. Bilduŕ edo dira biotz eŕukioŕen bat Josu'ren aldez jaikiko ete dan, eta zeŕbait itzalita zirudien biotz baŕengo goŕotoa, baŕiro irakiten asi da, eta eŕuki bide gustiak galerasteko, ezetsiz eta ixekaz buruai eragiñaz bere ondotik igaroten ziranak esaten eutsoen: «Ia ba txadona ondatu ta iru egun buru beŕegiten dozun oŕek, zeure burua gaizkatu egizu. (Matth, XXXVII-39) «Besteak gaizkatu ditu ta, bere burua ezin gaizkatu dau! Ixarel'go Bakaldun dan Kisto ori, ointxe gurutzatik jatzi daitela ta beragan zinetsikogu..! (Luk. XXIII-36) Eta birao ikaragaŕi oneik aborik-abo gizaŕtean zabaldu dira eta biotz batzuetan soŕtzen asi dan eŕukia ito dabe. Giza-girnak onakoxeak dira. Biotz baŕuan eskutauta dagozan aŕtean, sugegoŕi antzera toki damotzen biotza bakaŕik edenduten dabe, baña bein azaleratu ezkero, biotzik edeŕenak euraen eden (veneno) galgaŕiagaz kutsututeko gai dira.

* * *

Eta Josu, on egiteko baño igitu etziran eskuak untze gogoŕez gurutzari josita eukazala, ainbeste iŕi ta ixeka ikusi, ainbeste birao, irain eta laido entzun, eta bere etsai gustiak nai izanaz bakaŕik betiko ondatzeko almena eukan aŕen... ¡ixil - ixilik dago! ¿asperkunde auŕetiko ixiltasuna ete da? Ez. Josu'k ondo dazau etsayen gaiztakeri ta biotz txaŕa, baña baita be batzuk ez jakiñez, ala atsipetuta, ta beste batzuk giŕnaz itsututa euren obenaren ikagaŕitasuna ezebela ondo ezautzen, eta gaiztakeria ontasun ugaritasunaz itoteko, bere aldez Nekaldi gustian zabaldu ez daben aboa, bera gurutzan josi ebenen aldez, ta beraz obendio gustion aldez otoi egiteko zabaldu dau, gustiontzat pozkaŕipozkaŕi diran itz edeŕok esanaz: «Aita: paŕkatu egiezu oŕei, zeŕ dagien eztakieta». Iraiñez esituta itz zoragaŕiok esan dituana, ¡ziñez! Jaungoiko da!.

* * *

Eta guk Bere jaraile esten gareanok, Josu gurutzaldua geure Irakasle bakaŕtzat daukagunok, geideak beaŕ ba'da alako asmo barik esan dauskun itz gaŕastxo bat parkatu nai ez..!

¿Benetako kistaŕak ete gaŕa?

Manterola'taŕ Gabirel

MAITEAREN NEKEA

Maiteak maite-bila
nekea igarota,
bide goyan arki du
Amaren magala,
Josu'ren atsedena
Miren'en altzua,
¡maitasun-neke-sari
txit berarizkoa!

Seme nekalduaren
Ama tamaltsua,
maiterik maitenaren
maitale mindua;
min gogoŕen nekeak
Maitea erail du,
ta neke oŕen miñak
¡ai! Zu il bear zaitu!

Maitiaren Maitale
maitariena Zu,
oŕengatik zuregan
atsedena nai du;
¡Maite ori maitatzen
irakatsi neri
nere eŕukien poza
emateko zeuri!

TENE.

Gazteiz'ko Gotzaiñ Gurgarria'ren Idazki-Orokarra

LUR-LANGILLEN ALDEKO KISTAR EGIPENATZAZ

Ixanik asko ta asko Goterki (Obispadu) maite oni, bestiai lez, yagokozan zeregiñ astunak, zarritan zirikatuten gaitu daukun ardureak, eta beti aurkitzen dogu Josu-Kisto geure Eroslia-gan, eurak ebatsiteko bidea.

Josu-Kisto da ondasun guztien itur-burua, ta Beragan izan ezik ez dogu zorion biderik.

Kisto kurutzatuak darakusku omengarri diran iru gauza, inguratuten gaituen gatxak osatu nai badoguz iñoiz aiztu biar ez geunkezanak. Gauza orrek dira; lenengo, jatorrizko zorigatxagaz batera etorri yakuzan neke ta samin-garratzak; gero, Bere odol ederragaz, geure biotzak asetzeko, irabazi euskun betiko zoriona; eta azkenez, alkarri zor dautsogun maitetasuna. «Gure kistartasuna kaltegarriyetatik azkatuaz, zendatuten dabenak; bizkortu ta zendatuko dau gixarte guztiya be. Geure zorion-osasunak ba, eskatzen dausku jo daigula iñoiz galdu biar ez gendun Bide, Bizitza ta Egi-utza danagana.»

Baña gixon gaxuai neke-atsekabeetan biar daben igaropenan, azken bagako zorion-itxaropenan, eta alkarrentzako maitetasunian iraun eraiteko, gauza egokiena da, Josu-Kisto'n antzera, danai ondo egitia, eta biotzak, atsegiñ yakeezan aukera onez gozaturik, Jauna'gana eruatia. Gure gixakeriari (kondiziñoari) beko gauzaetatik zeru goitikoetara aolan igon eraiten yako.

Augaitik Pio X' ak., bere aurretikuak lez, esan eban «Benetako belduba (apostolua, eleiz-gixona) ixan biar da guztiz guztientzakoa, guztiyak zorunduteko (zeruratzeko); Seme-Jainkoa lez, errukitu biar da biotzez, ikusirik gixon-aldrak galzorian, banaturik artzain bagako artaldia lez... eta arduratu biar da zintzotasun eta maitasunez, erri gaxuari urretik ukututen dautsen gauzetan, bere egoera - zoria obetuaz, gertau eraiñik batez be ondasunakaz batera, kistartasuna ostuta zapaltzeko amorruagaz, ganera yatorkun Sozialismo gorriyaren kaltez.»

Auxe bera otuten yaku, ikusten dogulako Eleiziaren ikasgayai jaramon barik, bere alde biar zintzo egiñ biarrian, Kistok eta aberriak eskatzen dautsen lez, yarten yakuzala beste bizkor eta zurragoak asiriko lan onen kaltez.

Kistar lurlangillen alkartasuna da egun larri ta iztueton itxaropen gozo - gozoa. Gixarteko ekaitz gogor aonetan, gixon argitsuak begiratzen dautzue lurlangilloi, dakiyelako zuekan daguala gixadi gaxua bizkortzeko bizmena. Augaitik onurakaz eta al dogun giñoan askortu, biztu ta lagundu biar dautzugu, ondo baño obeto dakigulako, inguratuten gaitun sindikalismo gorriya bastertu, ta bere ekiñagaz geure etxe, auzo ta basterretan dongekeriya, siñismenbagetasunaz zabaltzera darabillen asmo txarren indarrak auzteko, bide egokiena dala lurlangillen Kistar-alkartasuna.

Eskarrak Goikuari, geure deya ez da utza ixan, ikusten dogulako benetako zaletasundun eta berarizko maitetasuna zor dautsegun eleizgixonakaitik, aleginduten dirala asko, lurlangillen alkartasunak eraldutera (organizetera, formatera.)

Bai baña badira beste batzuk lan orren aurka (kontra) jarki, eta egikixun orrek betarte illunagaz begiratu, irribarrez artu, eta erlejiño ta aberriaren alde diñardubenen lan au, mormox gogorrakaz baltzituten dabenak, esanik euren burua erakutsi ta euren onagaitik baño ez dabiltzezela.

Bitzuei zuzentzen gayakez: lenenguai, geure goraldi eta oneskunakaz (bendeziñoakaz) iraun dagien, atzeratu barik, asirko lanian; bestiai, barriz, euren eretxi okerrak bastertu, eta itsutasunez bide onaren kaltez dabiltzezenak andik aldendu, eta bat-batera ekiñ dagiyoen Kistar on guztioi yagokun biarkun aonetan.

Kistar benetakotzak euren burua daukenak bekie gauza on-on bat egiñ leikiela, alkar arteko ikusi-eziñak, asarrakuntzak, ez - bayak, bekaitzak (inbidiak) eta ostasun gustiak bastertuaz, laguntzen badabe bai otoitzakaz, adin - argitasunaz, dauken ixen onaz, diruaz, jakituriyaz, adiskidetasunaz, euren zurtasunaz, osasunaz, bakotxak al dabenaz, gixarteko mataza eta zeregiñ gatx-gatx au Kistoren lagiaren arauz (erara) arilduten.

Eta zuek eleizgixonok, arduratu biar zaree, astuta lez daguan gixon-aldra orregaz (lurlangi-

llagaz), euren ekanduakaz batera euroen ogasunak (ondasunak) be obetu ta ugarituaz; aonetarako dei egin eutzuen Jaun-goikuak, auxe da zeuen aurretikoen ikasbidia, auxe eskatzen dautzue lurlangillakaz dozuen ezaupidiak, eta aonexetara jardun biar zaree, zeuen Eleiz-lana onurakorragoa ixan daiten

Lurlangillen artian bizi ixan zanen ordekoak zaree, eta sarritan lur, solo ta inguruak, artzain eta lurlangillak berbaldiyaren adibiderako, aitatuten ebazanen jarraitzalliak.

Lenengo gixaldietan, gixarteko triskantza gogor ostean Eleiz-gixonak ziran «Cruce et aratro» Gurutzea ta goldea, euren ikurritzat artu eta an or emen eraldutako (organizau) alkartasun on onen bidez, larditzak garbitu ta goldatu, bidiak zuzendu, oziñak agortu ta aolan lurrak ondu ta ugaritu ebezanak.

Eurakazko aidetasun edo ostantxeko ziyuen (motibuen) batzukaitik, lagundu biar dautsazue, al dozuen giñoan, aundi ta ugariyak ixango litzakezelako Eleiziari, orrexen bidez, ekarriko zeunkioezan onurak.

Baña emen-beko gauzetan, orretara arduratu arren, ez egixuez astu Eleizia eta bertako egikixun istuak: goitik itxaron biar dozue argiya, eta itzu-itzuan ibilli ez zaitezen, eskatu lenengo Kistori, aldara-oñian, gauza gatx orrek atonduteko zurtasuna, eta eragozpenetan atzeratu etzaitezen sendotasuna.

«Cruce et aratro» Gurutzea ta goldea; auxe ixan biar da, antziñetikuana lez, oraingo lurlangillen ikurritza (banderia, lemea) eta ixango da ori benetan, lur-basoak ondo erabilten, batak bestiari laguntzen badautsazue, guztiok alkarren leyan ostasun baga aleginduten bazaree, lan izerdiyen ostian ikusi daixuen ugari zeuen ondasunak; baña ori guztiori, gurutz deunatik agindu gura dauskun Jainko - Eroslia bastertu baga, bere gurutz deunatik erakusten deuskulako gixon arteko matazak arilduteko bide zuzen eta bakarra, au da, geure buru - ukapena (sakrifizioa), zuzentasunian ibiltia eta azkenez alkarrentzako maitetasun anaikorra eukitia.

Leopoldo Gazteiz'ko Gotzañak.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 18'gn.; 25'gn. Deun - Marka, goizpaŕkīlia; aŕentzeak.

JAI OSUAK: 28'gn. Araba'n, Deun-Purdendentzi, gotzaña, Armentia'taŕa, Araba - Zaintzalia.

Amabostaruon, gure Goteŕkijan, beste jai osorik ez da. Igande ta jai osuetan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 17'gn. Miren Artzain deuna.

21'gn. Deun-Joseba, Miren Deunaren Ezkon eta Doibatz-Zaintzaliaren Jaiburuba. Deun-Joseba'tzaz ixendau dogun jaya gauŕ Doibatzak ospatzen daun aŕen, kistaŕoztiarentzat, jai au egin gura ixan ezkero, txadon bakotxan, bat ixan ezik, jaupa gustijak, Deun-Joseba-Jaiburukuak egiteko axuba emoten dau. Gauŕko eguna be baña, al dogunok, Joseba-Deuna goretsi ta geuretzako bere bidez, eskaŕ ugarijak ekaŕteko eraz ospatu - biaŕ dogu; gustijok zerbait dagikegu. Erijotzaldirako, Zaintzale nagusitzat Deun au Doibatzak ixendau daula, ta, aldi atan, gure onduan gustijok ikusi gurako dogula ez aiztu.

29'gn. Gazteiz'ko Goteŕki-txadona doneskiñi-LVIII'gaŕen urteuŕena.

* * *

Joraīa 18'gn.

ANDER HIBERNON ZORUNDUNA

Ander Hibernon Zorunduna anei bosteun laramaŕ ta laugaŕen (1544) urtian Murcia'n jayo zan. Kartagena'ko andikijak ziran aŕen, bere gurasuak txiro-txiruak ziran. Jakindiz bere adimena argitu-guraz, Valencia'n eban osabeagana bidaldu eben; osabak baña unai (abere-zain) imiñi eben, eta beŕamaŕ (20) urtedun ixan zan-aŕte bi-

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
144'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Joŕala 16'gn

Josukisto'n Alatzak

(MIRARIAK)

Esku igartuduna osatzen dau,

(Matth, XII, 9414, Mark. III, 1-6 Luk, VI, 6-11)



GTA andik igarota, jazo zan beste larunbata batez baŕiro sinagogan saŕtuta irakasten iñaŕduala. Eta beŕtan zan gizon bat, eskua igaŕtuta eukana. Parixetaŕ eta idazkariak, begira eukazan ia larunbatez osatuko ete eban, bera zetzaz salatu eukiteko. Eta itanduten eutsoen esanaz: Larunbatez osatzea zilegi ete da? Josu'k baña euraen oldozkunak ezautzen ebazan, eta esku igaŕtua eukan gizonari esan eutson: Jagi ta eŕdian jaŕi zaitez. Jagi ta erdiratu zan. Orduan Josu'k itandu eutsen: Larunbatez on ala gaizki egitea zilegi ete da? Eurak baña ixilik egozan. Berak orduan eurai esan eutsen: Zuen artean noŕ da ardi bat daukan gizona, larunbatez zulora jausiko ba'litzakio aŕtu ta atarako eleukena.? Gizona ardia baño azkoz obea da ba! Alan ba larunbatez osatzea zilegi da. Eta aseŕez eurai begiratuta, euraen biotz itsukeriatzaz itundurik gizonari esan eutson: Zeure eskua luzatu eikezu. Eta edatu eban, eta beste eskua lez osatu yakon. Eta, beriala urten ziran, eta Erodestaŕakaz Josu zelan galdu itunduteko joan ziran.»

* * *

Josu'k Bethesda'ko gexoa osatu ondoren, bere Jainkotasuna parixetaŕai aŕgiro azaldu eutsen, eta baŕiro Galilea'ra biuŕtu zan. Parixetaŕak egi argia ikusi beaŕean, larunbata ezebala zaintzen eta salatu gura eben. Jayegun batez ikasleak, euken gosea zerbait asetzeko, galburu batzuk aŕtu ebezela-ta, an ziran asaŕez Josu'ri esaten. Josu'k egokiro larunbata zer zan azaldu aŕen, eurak eurenetik ezeben urtetzen. Beste larunbata baten Josu'k judaŕ-batzaŕtoki baten irakasten ziaŕduan. Eta an ziran parixetaŕak Josu'ren irakatsi edeŕai jaramon barik, baŕiro be salatzeko asmoz bilduta. Legea, jayeguneko lanatzaz etzan eurak uste eben añan gogoŕa. Legeak beaŕ-beaŕekoa etzan otsein lana debekatzen eban, baña geidearen onerako, ala Jainkoaren guŕtzarako egiten zan lana ezeban debekatzen. Alan be, parixetaŕ zi-

talak eurak gura eben lez legea biuŕtuta, Josu'k egiīen ebanen auŕez-auŕe ipiñi gura izaten eben. Gai onetzaz eurak be talde bīan bananduta egozan. Batzuk umeai irakastea, gexoak zaintzea, ta bidezkoai laguntzea be pekatutzat esten eben. Azaleko zauriak osatzea (azuŕ eratsi bat esaterako) uragaz iguztea be, debekautzat euken; ostera abereai ura emotea zīlegi, ta iruntsi beaŕ ziran osakayak aŕtzea be bai. Josu'k oneik eta beste oneilako baŕegaŕikeri gustiak bein eta betiko kentzeko asmoa eukan naiz ta parixetaŕen asaŕepean jausi. Gaurko alatz onek baŕiro be bidea idigi eutson. Sinagogan irakasten ziaŕduala, parixetaŕak bialduta edo, an zan beso bata igaŕtuta eukan gizon bat. Parixetaŕak euren asmo gaiztoak beteteaŕen īandu eutsoen: Larunbatez osatzea zīlegi ete da? Eurak ziñoena: Bayetz erantzuten ba'dau, legearen kaltez dabīela esango dogu: eta ezetz erantzungo ba'leu berak irakasten daben eŕukia guzuŕezkoa dala. Josu'k baña euraen maltzuŕkeria ezaguturik, esku igaŕtudunari eŕdira urtetzeko agindu ondoren esan eutsen: Larunbatez on ala gaizki egitea zīlegi ete da? Ta noŕbaiti osasuna emon ala kentzea? Parixetaŕak ixīlik egozan mutik be ezeben egin. Bai ba, euraen asmoen baŕi ekianari, zeŕ erantzun? Eta Berak baŕiro itandu eutsen: Zuen artean noŕ da aŕdi bat euki ta larunbatez zulora jausiko ba'litzakio atarako eleukena? Gizona ardia baño askozaz obea ba da! Alan ba, larunbatez osatzea zīlegi da (Matth, VIVIII-11) Eta euraen zitalkeriaŕen asaŕezko begirakuna eginda, gexoari esan eutson: Zeure beso ori luzatu eikezu. Eta luzatu eban eta bestea lez osatu yakon.

Ara Josu'ren beste alatz garbi bat. Uŕteetan eskua aŕgintzan edo igeltzerotzan egindako zauriaz igaŕtuta eukan besoa, itz bategaz osatu. Nok al dau Josu'k izan ezik? Besoa igaŕtuta eukala gustiak ikusi eben, itz bategaz osatu eutsola be bai, parixetaŕak auŕenen zirala, ta benetako miraria etzala esaten etziran asaŕtu. Egi bīla ebīlenentzat, Josu Jaungoikotzat aŕtzea zan bide-bidezkoa ¿ezta? Baña parixetaŕai orain euren jaŕaitzalīeai lez, egiak min emoten eutsen eta zeŕ egin ebela uste dozu? Bertatik urten eta euren etsai ziran erodestaŕakaz īundu Josu eraīltzeko bideak artzeko...

* * *

Kistaŕ maite: Parixetaŕak ankeŕak, zekenak ta biotz gogordunak ziran. Josu'ren Biotza ostera, otzana, samuŕa ta erukioŕa. Etsayen adimena aŕgitzeko egi aŕgia begien auŕean ipinīten dautse. Ara ardiaren irudiaz abereakaz gizonakaz baño eŕukitsuago zirala zelan azaltzen dautsen. Eta bardin euraen biotz gogoŕak biguntzeko, bere asaŕe aldietan be, eŕukiagaz ez da aztuten. Josu'k beti erantzun, beti irakatsi, beti on egin, ta parixetaŕak ostera beti itsu, beti ankeŕ, ta euren burua laŕegi maitatzen. Gu, Josu ala parixetaŕen antzekoak ete gara?

GABIREL.

Gazteiz'ko Gotzaiñ Gurgarria'ren Idazki-Orokarra

LUR-LANGILLEN ALDEKO KISTAR EGIPENATZAZ

Ixanik asko ta asko Goterki (Obispadu) maite oni, bestiai lez, yagokozan zeregiñ astunak, zarritan zirikatuten gaitu daukun ardureak, eta beti aurkitzen dogu Josu-Kisto geure Eroslia -gan, eurak ebatsiteko bidea.

Josu-Kisto da ondasun guztien itur-burua, ta Beragan izan ezik ez dogu zorion biderik.

Kisto kurutzatuak darakusku omengarri diran iru gauza, inguratuten gaituen gatxak osatu nai badoguz iñoiz aiztu biar ez geunkezanak. Gauza orrek dira; lenengo, jatorrizko zorigatxagaz batera etorri yakuzan neke ta samin-garratzak; gero, Bere odol ederragaz, geure biotzak asetzeko, irabazi euskun betiko zoriona; eta azkenez, alkarri zor dautsogun maitetasuna. «Gure kistartasuna kaltegarriyetatik azkatuaz, zendatuten dabenak, bizkortu ta zendatuko dau gixarte guztiya be. Geure zorion-osasunak ba, eskatzen dausku jo daigula iñoiz galdu biar ez gendun Bide, Bizitza ta Egi-utza danagana.»

Baña gixon gaxuai neke-atsekabeetan biar daben igaropenan, azken bagako zorion-itxaropenan, eta alkarrentzako maitetasunian iraun eraiteko, gauza egokiena da, Josu-Kisto'n antzera, danai ondo egitia, eta biotzak, atsegiñ yakeezan aukera onez gozaturik, Jauna'gana eruatia. Gure gixakeriari (kondiziñoari) beko gauzaetatik zeru goitikoetara aolan igon eraiten yako.

Augaitik Pio X' ak., bere aurretikuak lez, esan eban «Benetako belduba (apostolua, eleiz-gixona) ixan biar da guztiz guztientzakoa, guztiyak zorunduteko (zeruratzeko); Seme-Jainkoa lez, errukitu biar da biotzez, ikusirik gixon-aldrak galzorian, banaturik artzain bagako artaldia lez... eta arduratu biar da zintzotasun eta maitasunez, erri gaxuari urretik ukututen dautsen gauzetan, bere egoera - zoria obetuaz, gertau eraiñik batez be ondasunakaz batera, kistartasuna ostuta zapaltzeko amorruagaz, ganera yatorkun Sozialismo gorriyaren kaltez.»

Auxe bera otuten yaku, ikusten dogulako Eleizaren ikasgayai jaramon barik, bere alde biar zintzo egiñ biarrian, Kistok eta aberriak eskatzen dautsen lez, yarten yakuzala beste bizkor eta zurragoak asiriko lan onen kaltez.

Kistar lurlangillen alkartasuna da egun larri ta iztueton itxaropen gozo - gozoa. Gixarteko ekaitz gogor aonetan, gixon argitsuak begiratzen dautzue lurlangilloi, dakiyelako zuekan daguala gixadi gaxua bizkortzeko bizmena. Augaitik onurakaz eta al dogun giñoan askortu, biztu ta lagundu biar dautzugu, ondo baño obeto dakigulako, inguratuten gaitun sindikalismo gorriya bastertu, ta bere ekiñagaz geure etxe, auzo ta basterretan dongekeriya, siñismenbagetasunaz zabaltzera darabillen asmo txarren indarrak auzteko, bide egokiena dala lurlangillen Kistar-alkartasuna.

Eskarrak Goikuari, geure deya ez da utza ixan, ikusten dogulako benetako zaletasundun eta berarizko maitetasuna zor dautsegun eleizgixonakaitik, aleginduten dirala asko, lurlangillen alkartasunak eraldutera (organizetera, formatera.)

Bai baña badira beste batzuk lan orren aurka (kontra) jarki, eta egikixun orrek betarte illunagaz begiratu, irribarrez artu, eta erlejiño ta aberriaren alde diñardubenen lan au, mormox gogorrakaz baltzituten dabenak, esanik euren burua erakutsi ta euren onagaitik baño ez dabiltzezela.

Bitzuei zuzentzen gayakez: lenenguai, geure goraldi eta oneskunakaz (bendeziñoakaz) iraun dagien, atzeratu barik, asiriko lanian; bestiai, barriz, euren eretxi okerrak bastertu, eta itsutasunez bide onaren kaltez dabiltzezenak andik aldendu, eta bat-batera ekiñ dagiyoen Kistar on guztioi yagokun biarkun aonetan.

Kistar benetakotzak euren burua daukenak bekie gauza on-on bat egiñ leikiela, alkar arteko ikusi-eziñak, asarrakuntzak, ez - bayak, bekaitzak (inbidiak) eta ostasun gustiak bastertuaz, laguntzen badabe bai otoitzakaz, adin - argitasunaz, dauken ixen onaz, diruaz, jakituriyaz, adiskidetasunaz, euren zurtasunaz, osasunaz, bakotxak al dabenaz, gixarteko mataza eta zeregiñ gatx-gatx au Kistoren lagiaren arauz (erara) arilduten.

Eta zuek eleizgixonok, arduratu biar zaree, astuta lez daguan gixon-aldra orregaz (lurlangi-

JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI · EUZKERAZ

1920'ko
Orrilla'ren 1'gn.

IX 'Urtia
145'gn. Zenbakija

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
145'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Oŕila 1'gn



Josukisto'n Alatzak

(MIRARIAK)

Eunburuaren otseiña osatzen dau.

(Matth, VIII-1-5; Luk, VII, 1-10)

BERE itz gustiak eŕiari azaldu ondoren, eta menditik jatsi zanean, gizoste andiak jaŕaitu eutson ta Kapharnaum'en saŕtu zan. Eta eunburu baten otseiña gexorik il-agiñean egoan. Eta asko maite eban. Eta Josu'tzaz itz-egiten entzunik judaŕ zaŕenak bialdu eutsozan, etoŕita, bere moŕoya osatzeko eskatzen. (1) Eta arek Josu'gana eldurik aŕduraz eskatzen eutsoen esanaz: Eskatzen dautzuna, eskaŕ oŕen irabaztun bai da; geure abeŕia maite dau ta sinagogea be berak egin euskun eta. Eta Josu'k esan eutsen: Neu joango naz ta osatuko dot. Eta Josu eurekaz joyan. Eta etxetik uŕin etzala, eunburuak lagunak bialdu eutsozan esateko: Jaunoi: ez zadiz nekatu, Zu nire etxean saŕtzeko duin enaz-ta. Augaitik neu Zeugana etoŕteko be duin enaz etsi; baña itz bat esan egizu ta nire otseña osatuko da. Neu be, ba, aldun gizona naz ta gudariak neure menpean dodaz; eta oneri esan «zoaz» eta bai doya; ta besteari «zatoz» ta bai dator ta neure moŕoyari «au egizu» ta bai dagi. Josu au entzunik geldu zan, eta bere jaŕai etoŕan gizosteari esan eutson: Ziñez diñotzuet, Ixaŕel'en be ainbeste ziñeste eztot idoro. Eta Soŕkalde ta Saŕkaldetik asko etoŕiko dirala diñotzuet, eta Abaŕan, Ixaka ta Jakoba'gaz donoki bakaldeŕian atsedenduko dirala. Eta bakaldeŕi semeak ateko ilunpetara jauŕtiak izango dira; ta an negaŕa ta agin-kaŕaskotsa izango da. Ta eunburuari esan (esateko agindu) eutson: Zoaz, ta ziñetsi dozun lez gertatu dakizula. Eta otseña ordu atan osatu zan. Eta bialduak etxeratu ziranean gexorik egon zan moŕoya osaturik auŕkitu eben.

* * *

(1) Dirudienez, eunburuak, bialdu ebazan zaŕai Matthai deunak (VIII-6) diñoskun auxe bakaŕik esateko agindu eutsen: «Jaunoi; nire moŕoya etxean elbaŕi datza, eta neke andiak daukaz» ez baña, etoŕteko. Josu'ren auŕera joaten asaŕtzen etzana duin etzala-ta, etxera etoŕteko esaten gitxiago asaŕtuko zan. Baña bialduak eunburuaren gogoko ixango zala usteta edo, etoŕteko esan eutsoen.

Josu Kisto, esku igaŕtuduna osatu ondoren, arerioak Bera galtzeko asmoz bildu zirala jakiñik Genezareth aintzirara (lago) aldendu zan, eta gizosteak auŕkeztu eutsozan gexo ta gaizkindun asko osatu ebazan. Eta oi eban lez otoi egiteko mendiratu zan egun baten, bertara bere jaŕaitzaleak deiturik amabi ikasle aukeratu ebazan, eta bidean egoan eta aŕezkero «Zoriontasun - muñoa» deitzen yakon tokian ludi gustia eraldatu daben itzaldi edeŕ, zoragaŕia egin ondoren, Kapharnaum'era biuŕtu zan. Eunburu bat zan uri onetan, dirudienez eŕomataŕa ta zingea (jentila), maite-maite eban otsein bat il agiñean eukona. Elbaŕitua zan: ubileritik (reuma) ala beroeri aldaŕtetsutik ala beste gatxen batetik soŕtutako elbaŕia ete-eukan? Orixe eztakigu, aburu bat eta besten aldez jakitunak bai-dira ta. «Neke andiak eukazala (Matth, VIII) ta il-agiñean egoala baña Luka deunak diñosku. Biotz oneko eunburu au, ziñesgea edo izan aŕen ugazaba-eredu zan. Beronek otsein zintzoa maite eban; ta bere seme izan balitz lez alegin gustiak egin ebazan eriotzaren eŕpe gogoŕetatik atarateko, onetan Ecclesiasticus deritxon idaztian Goteunak irakasten dabena betetan ebala: Moŕoi zintzoa zeure gogoa lez maite eikezu, bere azkatasuna ezeyozu ostu, eta txiro aldian ezeizu laga» (VII-23)

Baña bere alegiñak zoritxaŕez alpeŕekoak zirala ikusirik, Josu Osagila eŕukitsuagana biuŕtzea otu yakon, eta judaŕ zaŕenak bialdu eutsozan moŕoyaren osatzea eskatzeko. Oneik osasuna eskatu ez eze, Josu'ri adirazo eutsoen, euraen abeŕia maite ebalako ta sinagogea be egin eutsoelako, eunburu zintzoa eskatzen eban eskaŕ-duin zala. Josu'k esan eutsen: Neu joango naz ta osatuko dot. Eta eunburuaren etxerantz abiatu zan. Eunburua bialdutakoen zain edo egoan eta Josu eurakaz etoŕela ikusirik lagunak bialdu eutsozan apaltasunik andienaz esateko: «Jaunoi, etzadiz neketu, Zu nire etxean saŕtzeko duin enaz-ta, itz bat baña esakezu ta nire otseña osatuko da» Josu au entzunik aŕitu zan ta bere jaŕai joyazanai esan eutsen: Ziñez diñotzuet Ixaŕel'en be ainbeste ziñeste eztot idoro. Eta zingein (jentiien) biuŕtzea ta judaŕen zigoŕa iragaŕi ondoren, agindu eban eunburuari esateko, «Zeuk diñozun lez gertatu dakizula», eta etxeratu ziranean osatuta auŕkitu eben.

* * *

Kistaŕ maite: Ziñesge aŕteko gudari onen ziñeste ta apaltasuna aŕigaŕiak izan ziran; Kistaŕ aŕo ta uste gitxikuok lotsatzeko añakoa. «Jaunoi enaz ni duin... Zeure itz bat naiko da nire moŕoya osatzeko» Otoi ziñez apal sutsu ta egikoŕa, Josu'k oron auŕean goraldu ebana, ta Elexa Ama'k Jaunaŕtza auŕetik Kistaŕoi egiteko agintzen dauskuna! Ziñesge onek damoskun ikaskai edeŕ au ondo gogaldu ta ausnaŕtu ezkero uste gitxigaz, ala parixetaŕen antzera aŕokeriz otoi egiten asaŕtuko ete giñake? Eztot uste.

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 2'gn.; 9'gn.

JAI OSUAK: 13'gn. Jauna-Igokundia.

Amabostaruon, gure Goteŕkijaŕ, beste jai osorik ez da. Igande ta jai osuetan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 1'gn. Deun Pilipa ta Jagoba Txikaŕa, beldubak, jai erditzat zaintzen doguna.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
146'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Oŕila 16'gn

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

NAIN'GO ALAŔGUNAREN SEMEA

(Luk, VII - 11 - 17)

GTA gero Josu Naim deritxon urira joatea jazo zan, eta Beragaz ikasle asko eta gizoste andia joyazala. Uriko atera uŕbildu zanean, ara non ekaŕen ildako bat bere amaren seme bakaŕa; ta au alaŕguna zan, eta beragaz uritaŕ gizoste andia. Jauna'k ikusi ebaneko beratzaz eŕukitu zan eta esan eutson: Ez negaŕik egin. Eta uŕeratuta il-kutxari ikutu eutson (eta eroyenak gelditu ziran). Eta esan eban: Gazteoi euri diñoskat; jagi adi. Eta ilda zegoana yaŕi ta itz--egiten asi zan. Eta bere amari emon eutson. Eta gustiak bilduŕtu ziran eta Jaungoikoa goraltzen eben esanaz: Iragaŕle andia gure aŕtean ageŕtu da ta Jaungoikoak bere eŕia ikeŕtu dau. Eta alatz aonen ospea Juda ta inguruko eŕi gustietara zabaldu zan.»

* * *

Josu Eunburuaren moŕoya osatu ondoren, Taboŕ eta Heŕmon mendi bitaŕteko zelayan dagon Naim uri politera eldu zan. Gaur uri onetan elexatxo bat eta etxadi txiro batzuk baño ez ei dagoz, baña inguruetan diran ilobi ugariak uri au aldi atan gaŕantzitsua izan zala adirazten dabe.

Josu'ren itzaldi edeŕak entzun eta egite gelgaŕiak ikusteko egaŕiz, Bere ondoren gizoste ugaria joyan. Gentzatsu izketan joyazala, eguzkiak bere azken-izpi gozoak bialtzen ebazan bitaŕtean, Naim-uriko atera eldu ziran. Aldi au judaŕak euren obiraltzeak egiteko aukeratzen ebena zan. Onetan danak ixildu ziran, lenen samin oyua ta geroz gizostearen suŕumuŕua entzun ebelako. Noŕbait obiraltzera eroyen. Aldi atan, beti be bai baña, Palestina aldeko obiraltzeak oso itunak izaten ziran. Ildakoen senideak goŕpua gantzutu, esku -oñak lotu, il-oyal baten bildu ta aŕpegia agirian eta begiak itxita ebazala anda batzuetan ilobira eroan oi eben. Auŕenen gizon batzuk ixilik eta burua eŕdi estalita, saŕitan oŕtozik eta soñekoak uŕatuta joan oi ziran; onein ondoren emakume iletariak eta gitxienez ereslari bi txilibista ta juare-

txo, (flauta ta címbalo) eresi it̄unak joten. Eta ondoren ama negaŕez, il̄dakoa agirian, ta gizostea. Ikuskizun samingaŕi ta eŕukaŕia ziñez! Obiraltzera daroyen gaztea, ama alaŕgunaren seme bakaŕa ta bere poz ta itxaropena zan. Eta ama onen negaŕak Josu'ren Biotz eŕukaŕiari zauskada andia eragin eutson. Eta Josu'k eŕukiturik diñotso: Ez egikezu negaŕik. Eta iñok ezeŕ eskatzeke ta iñori ezeŕ esan barik goŕpua eroyenak geldit̄u zit̄uan. Gustiak ixil̄ik ta aŕeta andiz Berari begira jaŕi ziran. Oŕduan Josu'k il̄dakoari diñotso: Gazteoi euri diñoskat; jagi adi. Eta bapatean jagi ta itz-egiten asi zan. Eta Josu'k aŕtuta bere amari emon eutson, ama atsekabetua biŕloratuta pozez beterik izten ebala. Gizostea baŕiz ixututa, aŕituta, Jaungoikoa goraltzen asi zan Iragaŕle ain andia bere eŕira bialdu ebalako.

* * *

Kistaŕ maite: Josu-Kisto gure Bizitza ta Beŕbiztea, eriotza itunaren auŕez-auŕe dago. Bitaŕtean ama samindua negaŕez auŕkitzen da. Ta negaŕaren indaŕa norañokoa dan ementxe ikusi zeinke. Negaŕ malkoa gogo zauritutik uŕteten daben odola da-ta, Josu, goŕputzeko zauriakaz eŕukitzen zana gogo-zauriakaz geyago eŕukitzen da, eta negaŕ malkoak ikusi ta beste barik, naigabepean bizi ziranak atseginduteko ludiratu zan Biotz bigunak eriotzea garaitu ta amaren malkoak leoŕtzen ditu alatz andi aonen bidez il̄da zegoan gaztea beŕbiztuta. Naigabepean gagozanean ba uste osoaz Josu'gana ez ete gara elduko?

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 16'gn.; 23'gn.; Goteuna-Etoŕkundia; 30'gn.; Irukoitz deunaren Jayeguna.

Amabostaruon, gure Goteŕkijan, jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 22'gn. Barau ta *aratuzte*-eguna.

24'gn. Goteuna-Etoŕkunde-bigaŕen eguna, jai osotzat zaintzen doguna.

25'gn. Goteuna-Etoŕkunde-irugaŕen eguna, jai erditzat zaintzen doguna.

26'gn. Laurenaldija.

28'gn. Laurenaldija, *aratuzte*-eguna, barau-eguna ez baña.

29'gn. Laurenaldija.

Goteuna'ganako oneraspen eta zaletasuna, norberaren buruba deunduteko biaŕ-biaŕa da, ta obarik eziña. At̄ea, Semia ta Goteuna Jaungoiko bat baño ez dira; irurak ixakidiak; ixatez jaokena ba irurak bardin dabe, baña geure eraz, At̄ea'ri jaoko Irazletasuna, Semia'ri Beŕerosletasuna, Goteuna'ri deundasuna, beraz gure buruba deundu ta deunagotu gura ba'dogu, Goteuna'ganako oneraspen eta zaletasuna ixan biaŕ dogu. ¿Goteuna mat̄e ete-dozu?—Beratzaz gomutetan ete-zara?—Berari otoi-egit̄en dautsazu?—Auŕerantzian, orain-aŕtian baño beraganako oneraspentsubago ixan zadi.

Oŕil̄a 19'gn.

DEUN-IBON, JAUPARIJA TA TXIRO-ALDEZTAL̄IA

Bretaña txikiko Deun-Martin ixendun basurit̄aŕa ixan zan Ibon-Deuna. Paris eta Orlans'en adiraltzal̄e zala, gastia zan aŕen, bere gogoko deundasuna mat̄e eban, eta berau obeto zaindu ta geyagotutiaŕen, atsedendoki ta kirolokietatik iges-egit̄en eban, bere girñak ezi ta ilduteko ardaurik be ez eban edaten, eta aulan, auŕeratzen

JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI·EUZKERAZ

1920'ko
Bagilla'ren 1'gn.

IX 'Urtia
147'gn. Zenbakija

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
147'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Bagīla 1'gn

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

EKATXA BARĘTUTEN DAU

(Matth. VIII 18-27, Mark. IV-35; Luk, VIII - 22)

ETA egun atan berandututa, Josu'k gizoste andiz inguratuta egoala ikusirik, bere ikasleakaz bateltxu batera igo zan eta esan eutsen: Itxasoen beste eŕtzera igaro gaitezan. Eta gizosteari aguŕ-eginda, igo ziran eta batelean egoan lez (nekatuta, jateke) aŕtu eben. Beste batel batzuk bai-ziran. Eta itxastatzen ziaŕduen artean loak aŕtu eban. Eta onetan axe-ekatx bat soŕtuta, itxaso gain jausi zan, eta uin (olatu) aldi aundia jaso eban, uiñak bateltxoa estaltzeko añakoa, eta galtzorian ziran. Bitaŕtean Josu, batel atze-aldean auŕdiko baten gañean lo zegoan. Eta bere ikasleak uŕeraturik esnatu eben esanaz: Irakasleoi; gu galdu aŕen ez ete dautzu ardura? Jaun oŕek gaizkatu gaizuz galduak gara-ta! Eta Josu'k esan eutsen: Ziñeste gitxidun gizonok: Zek bildurtzen zaitue? Eta beriala jagīta axe ta ekatxari agiraka egin eutsen, eta itxasoari esan eutson: Ez zaratarik; ixil. Eta axea geldītu zan eta baretasun andia etoŕi zan. Eta eurai esan eutsen: ¿Zuen siñestea non da? Ondiño be, zinesge ete zare? Eta gizonak aŕitu ziran eta bilduŕ andiz bilduŕtu, eta batak besteari iñotson: Axe ta itxasoari agindu ta men egīten dautsoen au, noŕ ete dala uste dozu?»

* * *

Jesu'k Naim'go alaŕgunaren semea osatu ondoren, Jon Ugutzalearen ikasleak, au Erodes'en aginduz Makerunte'ko espetxean egoala, alatz aonen baŕi emoten joan ziran.

Jon'en ikasleak berau lez apalak etziralako, Josu'ren jaŕaitzaleak ugaritzea begi onez ezeben ikusten, eta itxaroten eben Gaizkatzalea Josu zala ezpai barik jakin eragiteko, eurotariko bi bialdu ebazan Josu'ri ītaun auxe egiteko: ¿Etoŕteko dana zu zara ala beste bati itxaron beaŕ ete dautsogu? eta Josu'k alatz andiak euraen auŕean eginda, itxaroten eben Gaizkatzalea Bera zala adirazten emon eutsen eta gero bere biztoki, Kapharnaum'era, biuŕtu

zan. Bidean Simon parixetaŕen etxean Miren Magdala'taŕari bere obenak paŕkatu eutsozan. Andik lasteŕ Galilea'ko uri -baseŕietan goiko irakatsi edeŕak zabaldu ebazan, eta bere etxera biuŕtu zanean itsu ta goŕ zan gaizkindu bat osatu eban, eta txeŕenaren bidez alatzak egiten ebazala salatzen eben parixetaŕ zitalai egokiro erantzunda, auŕerantzean Genezareth inguruan irudi ta ipuin bidez irakasten azi zan. Eta itxaso onetan gauŕko alatz au egin eban. Genezareth itxasoa ogetairu *kilometro* luze ta amalau inguru zabalerakoa da. Itxas-eŕtza baño naiko berago dago, ego aldetik izan ezik mendileŕo erpiñez inguratuta. Bere eŕtzetan gauŕko egunean, Decapolis edo Amaŕurieta'ren ondakiñak baño eztira auŕkitzen. Genezareth itxaso txiki au aldakoŕ eta bilduŕgaŕia da. Bertan bero aundia egiten dau. Eta goi aldean dagon Heŕmon eduŕez jantzitako mendi galuŕetatik jasten dan axe indaŕtsua beŕtako laspel (atmosfera) beroagaz auŕkitzen danean, geyenez bare-bare dagon itxaso au, ikaragaŕiki aŕtegatu ta naspiltzen dau; sortzen diran ekatx bilduŕgaŕiak beŕtan dabiltzazanak galtzori andian ipinten dituala. Alatz andi au egiteko eretia auxe izan zan. Ilun abaŕean Josu gizoste andiz inguratuta egoala, gizoste artean luzaroan bere ikasleak luzaroan egotea beaŕ ba-da egoki etzalako, beste eŕtzera igaroteko asmua aŕtu eban. Dirudienaz Josu oso nekatuta zegoan, eta gabaz itxasoa igaro ta atsedendu ondoren beste ertzean irakasten jaŕaitzeko asmua zeukan.

Eta iru bat orduko bidea egin ebenean Jesu batelaren atze-aldean lo zegoala, batbatean ekatx andi bat soŕtu zan, itxasoa ikaragaŕiro naspildu ta asaŕetu zan; uiñak bateltxoa estaltzen eben, eta ikasleak galdu beaŕ zirala-ta estutzen azi ziran. Batela zuzen eroateko alegin gustiak egin ebezan; baña alpeŕik. Jauna'gan itxaropen gustia ipiñi eben, eta esnatu eben esanaz. Gu galduaŕen ez ete dautzu ardura? Ikasle gixajoak! Josu'k esnatzeke, ekatxa baretuteko almenik ezeukala edo, uste eben! Josu jagi zan eta ikasleai euraen ziñeste argalaŕen agiraka egin ondoren axe ta ekatxari akaŕ-egin ta itxasoari esan eutson: Ez oŕuarik; ixil. Eta bapatean itxasoa baretu zan, gustiak aŕituta, bilduŕtuta ipinten ebazala. Alatz gaŕbi ta andi au ikusirik euraen aŕtean ziñoen: Axe ta itxasoari agindu ta men-egiten dautsen au noŕ ete da?

* * *

Kistaŕ maite: Bizitza onetako itxasoan be, gure biotz-baŕenean usterik gitxien dogunean ekatx bilduŕgaŕiak saŕitan sortzen dira, ta beaŕ ba-da galtzoritik uŕtetzeko itxaropena galtzen dogu. ¿Zegaitik baña? Ekatx gustiak itz bategaz baretuteko almena daukonagan uste gitxi dogulako, Bera'gana apalik joanda «Jaun oŕek gaizkatu gaizuz, galduak gara-ta» esaten joan beaŕean, geure indaŕez zeŕbait egin geinkela aŕokeriz uste dogulako. Josu gure itxaropentzat aŕtu daigun eta ezek ezkaitu bildurtuko.

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 6'gn.; 13'gn. Padua'ko Andoni -Deuna, autoŕlia, odolez bizkataŕa.

JAI OSUAK: Kisto'ren Gorputza - Gomutaldija.

Amabostaruon, gure Goteŕkijan, beste jai osorik ez da. Igande ta jai osuetan kistaŕ orok

ONETXOAI BEGIRA

Mitxeleta legez
atsedendu barik
jolaska zabiltzan
ume otzanoi,
aŕpegi alayaz
ule kizkuŕtuaz
zorun-seme antza
dezun gotzonoi.

Zeure begi oŕeik
eŕugetasunan
antzikuŕ edeŕ bi
dirala, ¡zinez!
begirakun gozo
argi zoragaŕiz,
betetzen daustazu
biotza pozez.

Zu añan zoruntsu
ezta iñoŕ ludian;
oben ta samiñik
ezdazauzu ba,
gentzatsu dan osin,
Jauna'n antzikuŕa,
gotzon-poza, zeure
biotza da ta.

Ludi gaiztakeri
aŕtean bizi ta,
zeure biotz ori
gaŕbi-gaŕbi da,
Noiz arte orbange
iraungo ete dau?
Erantzun leikenik
iñor ete dau?...

Mitxeleta legez
jolaska ikusirik,
neu biotzak artzen
daben zoruna!...
Baña oben kutsuz
galtzeko zorian
ikusteaz dodan
samin ituna!...

GABIREL.

Gotzon=*aingeru*. Gentzatzu =*tranquilo*. Untzikuŕa=*espejo*.

Jainko-Gurtza Egiztuta (Balmes)

SASPIGAŔEN ATZALBURUA

GIZA - GOGO TA IRAZAKUNATZAZ ZINESTE TA ADIMEN IRAKASKINTZAREN ALKAŔTASUNA

Gure gogoa gaigea edo atalbakoa dala ikusi dogu-ta, argiro dager goŕputza amaren eŕayetan eraldua izan aŕen, gogoatzaz ezin leitekela baŕdin jazo. Gogoa gorputzgea dalarik, aragi ta odolagaz egiña ezta, ta beraz Jainkoak irazana izan beaŕ, ta bera da gorputzari batzen dautsona, au amaren sabelan eraldu ta osotuaz doyan aŕtean. Au ondo uleŕtuta aŕgi dager adimen aŕgiaz oso-osoan alkaŕtzen dala, gizonaren irazakunatzaz idazti Deunak diñoskuna.

Eta ziñez; ikusi dogu, gizon batzuk beste batzuekandik jayoaŕen, eta oneik beste batzuekandik eta abaŕ, azkenean bestegandik jayo ez diran, ta Jainkoak egiñak izan beaŕ izan daben gizon eta emakume bategana eŕdu beaŕ gareala. Adimenak jazo beaŕekotzat irakasten dauskun au, idazti Deunak ekaŕ eta garbiro azaltzen dausku esanaz: Jainkoak oŕtzeluŕak irazan ondoren, luŕeko autsagaz Adam'en goŕputza eraldu ebala, ta goŕputz aoneri batzeko bereala gogo gaigea irazan ebala. Idazti Deunak batz gelgaŕi au azaltzeko esakera gustiz edeŕa darabil. Giza-soña eralduta, ondiño bizmena emongo eutson gogorik ezeukala, igikun barik luŕean etzanda egongo zan: ez motz ta itxusi, orain gorputz ilak diran lez, aŕgizerizko gizairudi ebeŕ bat lez baño. Jainkoak gogoa irazan eban gorputzagaz batu eban eta une atantxe irudiaren begiak zabaldu ziran, bere itxura gustia bizkoŕtu ta biztu zan. Aldakuntza gelgaŕi au idazti deunak azaltzen dausku, Jainkoak Adam'i putz bizikoŕa aŕpegian egin eutsola esanaz, ez benetan putz egin eutsolako, Jainkoa gogo utsa dalarik au gaza eziña data, giza-gogoa ta goŕputza gauza gustiz baŕdingetzat euki beaŕ dituguzala adirazteko, baño: ez dagiguneuki gaikeagaz eraldutzat, irazakunaren bidez Jainkotasunetik zuzen soŕtutzat baño.

ZOŔTZIGAŔEN ATZALBURUA

JAŔAIPENA

Gizonaren irazakundea era aonetan azalduta, ageŕtzen da baita, Idazti Deunak lenengo emakumearen irazakundeatzaz diñoskuna uleŕtzeko eragozpenik eztagola; bere gorputza Adan'en sayetz bategaz eraldua izan zan, bere lagun izan zala beaŕ ikuŕturik, gero gizonak lez bere gogoa aŕtu ebala. Aŕgiro ba uleŕtzen da, Jainkoak ezkontza bidez batuta, ta batz au, Gaudi'ko Irazale'aren onekunakaz narotuta, gizadia zelan eraldu ta luŕbira gustitik zabaldu zan. Idazti Deuna'ren aginpetik aldenduteko asmoz, egi au beste bide batetik azaltzen jakintzari aŕo batzuk alpeŕik nekatu dira; gizadiaren seaska estaltzen daben estalkia Jainkogurtza bakaŕik jasoten dau, ta bere irakaskintza gurenetik at, ames eta erokeriak baño eztira auŕkitzen. Egiaren auŕka alpeŕeko lanik ezdagigun, buru gogoŕkeriz bere aŕgi gaŕbiari begiak eztayoguzan itxi: eta bai eskaŕak egin Jainko ontasunari, bere irakaskintza bidez, geure adimen argalaren buruauste ta galbidetatik aldendu gaitualako, geure soŕkunaren gurentasuna aŕgi irakatsita.

M.'taŕ G. Euzk.

Irazakundea=*creación;* Idazti Deuna=*S. Escritura;* igikun=*movimiento;* gizairidi=*estatua;* baŕdinge=*diferente* ikurtu=*significar;* narotu=*hacer fecundo;* jakintzari=*filósofo;* gurentasuna =*nobleza.*

JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI·EUZKERAZ



1920'ko
Bagilla'ren 16'gn.

IX 'Urtia
148'gn. Zenbakij

Egurrola'ren **Jostetxea, Lekeitio**'n

PLAZA DE LOS FUEROS

ABADE, GIXON ETA EMAKUMIEN SOÑEKO LIRAÑAK

BILBAO'n ESTRELLA ostatuan ilero.

GERNIKA'n NUÑEZ' arenian.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
148'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Bagila 16'gn

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

GERASA'KO GAIZKINDUAK

(Matth. VIII-28, Mark. V-1; Luk. VIII-26-39)

GTA Galilea aitzin dagon Gerasa luŕaldera itxasoz joan ziran. Eta luŕera uŕten zanean, aldi luzean gokaiztoa eukan gizon bat auŕkeztu yakon; jantzirik ezerabīlen, etxean be etzan bizi, īlobi zuloetan baño. Aonek Josu ikusi ebanean, bere auŕean auzpeztu zan eta abots andiz esan eutson: Josu Jaungoiko Guren-gurenaren Seme ori; Zuk nigaz zeŕ ikusirik ete daukazu? Aŕen ez nagizula oñazetu eskatzen dautzut. Gogo loyari ba, gizon aren baŕutik uŕteteko egintzen eutson ba. Aldi asko zan aŕapatuta eukala; eta giltzapean eta estuntza ta buŕdiñazko lokaŕiakaz lotuta euki oi eben aŕen, lokaŕiak apuŕtuta gokaiztoak zirikatuta lekaroetara iges egiten eban. Josu'k ba itandu eutson esanaz: Izena zelan dozu? TALDEA; gokaizto asko bere baŕuan saŕtu ziran eta. Eta leizera joateko ez agintzeko aŕen eskatzen eutsoen. Bai zan an mendian aletuten ebīlen txaŕi talde bat eta arein baŕu saŕtzen laketuteko aŕen eskatzen eutsoen. Eta laketu eutsen. Gokaiztook ba, gizon baŕutik uŕten ziran, eta txaŕietan saŕtu ziran: eta txaŕi taldea abiadan amildegitik bera osineratu zan, eta ito zan. Txaŕi zañak au ikusirik, iges egin eben, ta baŕi au uri ta boŕdetan zabaldu eben. Eta jazo zana ikusteko urten ziran, eta Josugana eldurik, gokaiztoak uŕten ziran gizona jesaŕita, jantzirik eta bere senean, bere oñetan egoala auŕkitu eben eta bilduŕtu ziran. Eurai ikusi ebenak esan eutsien txeŕen taldetik zelan azke gelditu zan. Orduan Gerasa'taŕ gustiak euren luŕalde aŕtatik alde egiteko eskatu eutsoen, bilduŕ ikareak aŕtuta egozalako. Josu ba bateltxora igo ta biuŕtu zan.

* * *

Josu'k itxasoa baretu ebanean, Gerasa'taŕen luŕalderantz jaŕaitu eben. Bateltxotik uŕten eta, zinge edo jentileŕira, Gerasa ala Gergesa dirudienez uri ospetsura, zuzendu ziran. Siria aldean oitura zan, uri ondoko atxetan īlobiak egitea. Sendi

aberatz eta ugari xamaŕak, geyenez euraen iĺobia euki oi eben. Aldi atan gaizkinduak ugariak ziran eta, iges egin eta iĺobi oneik euraen biztokitzat aŕtzen ebezan. Gerasa ondoko iĺobi baten gaizkindu bi, eta batez be bata oso sumindua (furioso) zalako iñoŕ be bertatik igaroten etzan asaŕtzen. Josu ba, bide aŕtatik igaro zanean, Matthai deunak diñoskunez, gaizkindu bi auŕkeztu yakozan. Bata batez be, sumin aldietan gau ta egun, iĺobirik iĺobi, ta mendiak zeaŕ oŕuaka ibilĺen zana. Beste alatz-azalben baten esan gendun, gokaiztoak gizon goŕputz baŕu saŕtuta, gizonari gogo-azkatasuna kendu ez aŕen, goŕputzaz nai ebana eragiten eutsola. Gaizkindu eŕukaŕi aoni be auxe geŕtatzen yakon. Saŕitan buŕdiñazko estuntza gogoŕez lotuten eben aŕen, lokaŕiak apuŕtu ta iges egiĺen eban. Satanas'en agintza biŕinduteko ludiratu zan Josu - Kisto Gaizkatzaĺea, bere etsayaren azpian egoan eŕira lenengoz alatzau egin ebanean saŕtu zan. Ta Josu, jentiĺeŕian, auŕkeztu zaneko etsaya bilduŕtu zan. Aŕgiak minduta iĺunak iges egin gura daben lez, gokaiztoak Josu ikusi ebaneko, bere Jaungoikotasuna autoŕtu, ta oñazez beterik iges egin gura eban. Josu'k aginpide osoz gizon aretatik uŕteteko agindu eutson. Eta gokaiztuok talde andia ziranaŕen Josu'ren auŕean adorekatuta gelditu ziran, eta mendi aŕtan aletuten egoan txaŕi talde baten saŕtzeko lakemena eskatu eutsoen. Eta Josu-Kisto'n lakemenaz txaŕi areitan saŕtu zaneko, ixututa txaŕi talde gustia amildegitik bera osineratu ta ito ziran. Josu'k oron Jaun zanez eskubidea eukan oŕetarako, eta beaŕ ba'da zaintzaĺeen zikoizkeria zigoŕtzeko lakemen au emon eutsen. Satanas'en agintza bere bakaĺdeŕian itz bategaz biŕintzen ebana, ¡ziñez! Jaungoiko zan! Ainbesteko almena daben gizon au, noŕ ete da? euraen aŕtean esanaz, zaintzaĺeak iges egin eta uri ta baseŕietan jazokun aonen baŕi zabaldu eben. Beriala uri gustia Josu'ren inguru bilḏu zan, eta gaizkindua bere senean, jantzirik eta gentzatsu Josu'ren oñetan jaŕirik ikusteaz bilḏurtu ziran. Eta bere egotaldia kaltegaŕi izango ete yakela uste izanik Gerasa aldetik uŕteteko eskatu eutsoen. Bitaŕtean gaizkinduta egon zan gizonak, Berari jaŕaitzeko baipena eskatu eutson. Baña Josu'k ikasletzat ezeban aŕtu ta etxera joan eta Jaungoikoa'k bere aldez egin ebazan gauza aŕigaŕiak zabaltzeko agindu eutson. Eta auxe egin eban.

* * *

Kistaŕ maite: Gaizkinduaren bizitza eŕukaŕia zan ziñez, baña Josu'k aŕdi galdua lez otsoen agin aŕtetik aŕtalderatu ebanean begira, pozik, azke, gentzatsu bere senean Gaizkatzalearen oñetan jesaŕita, berari jaŕaitu gurarik...

Ez aztu, ba zeu be iñoz, gaizkindua osatu ebanen Biotzetik uŕtendako itz pozkaŕi oneikaz: «Neke ta naigabepean auŕkitzen zaren gustiok, Neugana zatokeze: Neuk atseginduko zaituedaz ba, Nire bustaŕia leuna da, Nire zamea ariña» (Matth. XI-28-30).

GABIREL.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
149'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Garila 1'gn

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

Hemoŕoisa'ren osatzea

(Matth. XI-18; Mark. V-21; Luk. VIII-40)

ETA ara, amabi uŕtetan odol-jarioa jasan eban emakume bat, osagile askoren eskuetan neke asko igaro, ta onetan ogasun gustia ezeŕtako onura barik eralgi, ta batek be osatu ezinda geroago ta gaizkiago joyana, Josu'tzaz itz-egiten entzunik, gizaŕtean saŕtu zan eta atzerik ara Josu'ren soñeko eŕtzari ikutu eutson. Bere aŕtean ziñoan ba: Bere soñekoari ikututa beste barik osatuko naz. Eta bapatean odol jarioa gelditu yakon, eta bere goŕputzan gexotik azke egoala igaŕi eban. Beriala Josu'k, Beragan ikusirik Beregandik indaŕa uŕten zala, gizosteari begira esan eban: Niri ikutu daustana, noŕ ete da? Gustiak ezetz ziñoela, Kepa ta bere ingurukoak esan eben: Irakasleoi; gizosteak estutu ta eŕdian aŕtzen zaitu ta ¿nok ikutu daust?-diñozu? Eta Josu'k esan eban: Noŕbaitek ikutu daust, Neugandik indaŕa uŕten daula igaŕi dot-eta. Eta biuŕtuta, ingurura begiratzen eban ikutu eutsona ikusteko. Eta emakumeak agirian zegoala ikusirik ikaraz etoŕi ta bere auŕean auspeztu zan, eta gustien auŕean zegaitik ikutu eutson, eta bapatean osatu zala ageŕtu eban. Eta Josu'k esan eutson: Alaba, zeure ziñesteak gaizkatu zaitu: zoaz bakez»

* * *

Gerasa'ko gaizkindua osatu ondoren, Josu, itxasoz Kapharnaum'era biuŕtu zan. Gizoste ugaria bere zain uŕduri egoala ikusirik, dirudienez bertatik irakasten asi zan. Onetan, gizaŕtetik uŕeratu yakon Jairo, Kapharnaum-sinagogako nagusietariko bat. Atsekabez beterik etoŕen amabi uŕtedun alabatxo bat il-agiñean eukalako. Eta Josu'ren auŕera auŕkeztu zaneko, auspeztu zan, eta aŕen bere alaba osatzen etorteko eskatzen eutson. Josu eŕukiturik jagi ta ba'joyan, gizostea ondoren ebala. Euron aŕtian bai'zan emakume eŕukaŕi amabi uŕtean odol-jarioz gexo zana. Osagilerik-osagile, bere ogasun gustiak eralgi; samin-neke asko igaro ta geroago

ta gaizkiago, osatzeko itxaroa galduta auŕkitzen zan. Eriotzea edo-izango zan, bere gexotik gaizkatzeko eukan itxaropen bakaŕa. Baña Josu'tzaz itz-egiten entzun, bere itzaldia aditu ta ikusi ebanean, itxaropen aŕgi gozatsuak bere biotza pozez bete eutson. Baña gizostez inguratuta zala, Josu'ri bakaŕik itz-egitea sala zan; danen auŕean baŕiz bere gexoa ageŕtzea lotsagaŕi ta gogoŕ egiten yakon. ¿Zer egin ba? Uste biziaz bere artean ziñoan: «Bere soñekoari ikutu al ba'dautsot osatuko naz» Eta uste bizi aonek damotson ausaŕtasunagaz, Josu'ren inguru egoan gizaŕtetik iñok oaŕtzeke uŕeratu yakon, eta atzerik ara, Josu'k judaŕen oituraz soin-estalkian eroyazan, *gedilim* deitzen eutsoen, purpuseta urdin edo borlari ikutu eutsen. Eta alatz gelgaŕia! Bapatean, odol jarioa gelditu eta gexotik azke zala soñean igaŕi eban. Gustia ondo ekian Josu'k, bere baŕutik osatzeko indaŕa uŕten zala ikusirik, itandu eban: ¿Nok ikutu daust? Gustiak Josu'gandik zeŕbait aldenduta, Nik ez...! nik bez...! esaten ziarduen. Baña Kepa ta lagunak esan eben: Gizosteak estutu ta ito beaŕ ta, nok ikutu dautzun diñozu? Noŕbaitek ikutu daust, - (zinestez, asmo bereziz)-esan eban Josu'k -Nigandik indaŕak uŕten daula igaŕi dot-eta» Eta batera ta bestera begiratzen asi zan, ikutu eutsona biĺatzeko asmoz. Emakume gaxoak eskutatzea alpeŕik zala ikusirik, bilduŕ - ikaraz Josu-Kisto'n auŕean auspeztu, ta zeŕ eta zergaitik egin eban danen auŕean azaldu eban. Eta Josu'k esan eutson: Ene alaba; ez estutu, zeure ziñesteak gaizkatu zaituta. «Eta une atatik osatuta gelditu zan» (Matth. IX-22.)

Amabi uŕte gexorik, alpeŕik ainbeste osaki aŕtu, itxaropena galduta, osagiĺerik ankeŕenari, eriotzeari, begira egoana, Josu-kisto'n soñeko eŕtzari ikututa beste barik osatzea... alatz edeŕ eta pozkaŕia zinez!

Irakuŕleen bateri, emakume gaxo au nor izan ete zan jakingurea sortu edo izango yako. Ara, ziuŕ ezeŕ eztakigu. Batzuk Amboŕtsi deunagaz diñoe, Maŕte deuna izan zala, beste batzuk Veronika, baña.... Abitz-edestiz (tradición histórica) dakigu Panaes uritaŕa zala, ta eskaŕ aonen gomutakitzat bere etxe auŕean, Josu'ren burdin orizko irudi bat, emakume bat bere oñetan aŕenka eukola, iragi ebala.

* * *

Kistaŕ maite: Emakume au, obenpean luzaroan dagoanen irudi da. Obena be, ludi aonetako osakiz ezin leike osatu, ta gizonen alegiñak Jauna'ren laguntza barik alpeŕekoak dira. Baña ziñeste biziz, uste osoaz, apaltasunez, Beragana eldu ezkero, Osagiĺe eŕukioŕ aonek osatuko ez dauen gexorik ezta; geure Bizitza Bera -da-ta.

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 4'gn.; *Beŕiotxoa'taŕ Balendin Zorunduna,* gotzaña, ziñopea, Eloŕio'ko semia ta Zaindarija: 11'gn.

Gure Goteŕkijan, amabostaruan jai osorik ez da. Igande ta jai osuetan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 1'gn. Josu'ren Odol deuna; Deun-Simon, lugiña, Kabredo, Ixaŕa-onduan jayua.

2'gn. Ama Neskutza-Ikeŕkundia; Iĺako lenengo ostirala.

Iĺako lenengo bederatzi ostiral jaŕaĺubetan jaunaŕkuna, biaŕ dan eraz, ba'dagixu.—Josu' Kisto'k esan eban—*donokija zeuria dozu.*

6'gn. Karmelo-Ama Neskutzari bederatziuŕeuna asteko eguna.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
150'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Gariĺa 15'gn

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

Jairo'n alabearen beŕbiztea.

(Matth. IX-14; Mark. V-21; Luk. VIII-40)

GAUZA oneik azaltzen eutzezan aŕtean, gizon bat eŕdu yakon, Jairo izenduna, sinagogako nagosi zana, eta ikusirik, bere oñetan auzpestuta guŕtuten eban. Eta bere etxera etoŕteko aŕen eskatzen eutson, amabi urte inguruko alaba bakaŕ bat euki-ta bera il-agiñean eukolako. Eta aŕen egiten eutson esanaz: Nire alabea azkenetan dago, baña zatoz, zeure eskua ipiñi bere gain osatu ta bizi dedin. Eta Josu jagita beragaz joan zan, ta baita bere ikasleak be, eta gizoste andiak jaŕaitu ta estututen eban..... Ondiño itz - egiten ziarduan eta sinagogako nagosiari bat etoŕi yakon eta esan eutson: Zure alabea il da. Zegaitik ba, Irakasleari gogait - aragiten diaŕduzu? Josu'k baña iñoena entzunik, sinagogako nagosi, neskatoaren aitari esan eutson: Ez bildurtu, zinestu eikezu ta osatuko da. Eta ezeutson iñori lagun-egiten itxi, Kepa, Jakoba, eta Jakobaen anai Jon'i izan ezik. Josu sinagogako nagosiaren etxera eŕdurik, ta ikusi txistulariak, zalaparta egiten eban gizostea ta negaŕ eta iĺetariak, saŕtu ta esan eban: Zegaitik naspiĺ eta negar egiten dozue? Aldendu zaitekeze, neskatoa ilda eztago-ta, lo baño. Eta ixeka egiten eutsoen, ilda egoana ekielako. Baña Josu'k danak atarata, aita ta ama ta beragaz joyazanak aŕtu ta, neskatoa etzaun tokira saŕtu zan. Eta eskutik aŕtu ta oyu egin eban esanaz- TALITHÁ KUMI; esan gura dau: neskatiĺa (zeuri diñotzut) jagi zaite. Eta gogoa beragana biuŕtu zan eta beriala jagi ta ibilten asi zan. Eta jaten emoteko agindu eban. Eta neskatoaren gurasoak aŕiĩtuta geldiĩtu ziran. Josu'k egin ebana iñori ez esateko agindu eutsen. Ospeak au luŕalde gusti aŕtan zabaldu eban.

* * *

Josu Gerasa'tik itxasoz Kapharnaum'-era biurtu zanean, itxas-eŕtzean bere zain uŕduri zegoan gizosteari itz - egiten asi zan. Onetan gizaŕtetik estu ta laŕi, gizon bat auŕkeztu yakon. Jairo, bertoko sinagogako nagosi zana. Biotza atsekabez

erdibiturik zekaŕen; amabi uŕtedun alaba bakaŕa il-agiñean egoala-ta Josu'ri bere osasuna eskatzeko. Bere oñetan auzpezturik ikusiaz Josu eŕukitu zan, eta beriala jagi ta beragaz joyan ondoren ikasleak eta gizostea ebazala. Bidean Hemoŕoisa emakume ziñestetsua osatu eban. Jairo aŕtega-edo zegoan ainbeste itxarotegaz, ta ondiño emakumeeri itz-egiten ziarduala sinagogako nagosiari gizon bat uŕeratu yakan eta esan eutson: Zure alabea il da ta ezeyozu Irakasleari alpeŕik gogait eragin. Josu'k au entzun ebanean, aitari osatuko zala-ta uste osoa eukiteko, esan eutson, eta beste gustiei ez jaŕaitzeko aginduta, bere iru ikaslegaz bakaŕik, Jairo'n etxerantz abiatu zan. Etxera erdu zan eta ango zalapaŕtak ezeukan neuŕirik. Ulu, negar ta gaŕasia baño etzan entzuten. Bai ba, Jairo eŕiko andiki aŕteko ta ospetsua zalako, orduan be, aberatzak aizkide geyago eukiten ebezan eta, etxe gustia gizostez beterik euren tamala agertzeko etoŕita; txilibistariak be oitura zanez euren eresi itunak joten; oŕdaindutako emakume iletariak, ta sendikoak negar eta gaŕasika. Josu'k au ikusi ebanean esan eutsen: Zergaitik ainbeste artegatasun eta negaŕ? Urten eikezue neskatoa eztago il da lo baño-ta. Josu'k ezeban gura esan onegaz etzegoala ilda, baŕiro biztuteko asmoa eukan lez aren eriotzea lo bat lez zala adirazi gura eban, Lazaro beŕbiztu baño len esan eban lez: Gure aizkide Lazaro lo dago. Josu'k lo zegoala esan ebanean danak baŕeka asi yakozan, neskatoa ilda zagoala ondo ekielako. Oŕduan Josu'k bere ikasle Kepa, Jon eta Jakoba, ta neskatoaren aita ta ama-ta lagun aŕtuta, luŕean oi eben lez ilezki baten etxunda zegoan tokira saŕtu zan. Eta eskutik aŕtuta esan eutson: *Talitha Kumi,* au da; neskatiloi jagi zaite. Eta beŕbiztu, jagi ta ibilten asi zan. Eta Josu'k jaten emoteko agindu eban, bere gurasoak aŕiturik izten ebazala. Ara emen Josu'ren Jaungoikotasuna agertzen dauskun alatz gaŕbi bat. Neskatoa ilda zegoana iñok ezin legi ukatu. Aberatzak ziran eta bere eriotzea egiztuteko osagile barik etziran izango, obiraltzea geŕtauta iletari ta txilibistariak negaŕ eta eresi itunak joten, eta Josu'k lo zegola esan ebanean, gizosteak iŕi ta ixeka egiten eutson ilda zegoala ondo zekielako. Ilda; ondo ilda zegoan ba, ta unetxo bat geroago, Josu'ren itz-bategaz beŕbiztuta, jagi, ibili ta jaten dau. Eskier dakigun lez, obiraltzeko gertu egoana ilda egon ezpa'litz be, itz-bategaz jagi, ibili ta beriala edozer jateko gertu ipintea, etzan alatz txikia izango. Baña benetako berbiztea izan zala kistaŕok ez eze, adimena galduta eztaukon edozeiñek ikusi leikena da.

* * *

Kistaŕ maite: Obenaz zeure gogoa zerurako ilda, zoritxaŕez iñoz auŕkituko ba'litz, zuzendu. «Beŕbizte ta Bizitza» dan osagile eŕukioŕ aonegana, ez galdu itxarorik, Berak jagi ta jateko aginduko dautzu, jagi autoŕkuntza on baten bidez, ta jan ez ludi onetako janari gauza eztana, Bere Goŕputz ta Odol deun gure Bizitza baño. «Ogi au jaten dabena betiko biziko da-ta» (Jon, VI-59)

GABIREL.

EGI-AŔGIA

Baĭ'dakuzu euzkia
gustiz disdiratzen,
aŕgia dabela
nora nai bialtzen?

Baŕdin ba egia
izpi bizidunak
aŕgituko dautzuz
adimen-ilunak.

Baña baĭ'dakuzu
saŕitan lañoak
estaltzen dauzala
euzki eŕañuak?

Giŕnak be ba'dautzuz
lausotzen begiak,
etzengiz ikusi
egien izpiak.

GABIREL.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
151'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Dagonila 1'g.

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

KAPHAŔNAUM'GO ITSUAK

(Matth. IX, 27-31.)

ETA Josu toki aŕtatik igaroten zala, itsu bik jaŕaitu eutsoen gaŕasika ta esaten: Dabid'en Seme ori gutzaz eŕukitu zaite. Eta etxera eŕdu zaneko itsuok auŕkeztu yakozan, eta Josu'k esan eutsen: Eskatzen daustazuen ori egin neikela ziñesten dozue? Esan eutsoen: Bai, Jauna. Oŕduan euraen begiei ikutu eutsen esanaz: Zeuen ziñeste eduz egin bedi. Eta euraen begiak idigi ziran; eta Josu'k zematu ebazan esanaz: Begira, iñok eztayela jakin. Eurak baña uŕtenda luŕalde gusti aŕtatik zabaldu eben.»

* * *

Eŕukiaren aizkiderik uŕenak neke ta atsekabeak izan oi dira-ta, Josu Eŕuki Beŕbera dalako, gitxitan ageŕtzen yaku, gexo, naigabe ala zoritxaŕak jotekoren bat bere inguruan eztabela.

Jairo, sinagogako nagosiaren alabea beŕbiztuta beriala, itsu bik jaŕaitu ta gaŕasika esaten eutsoen: «Dabid'en Seme ori gutzaz eruki zaite.» «Dabid'en Seme» izenaz, ibeŕtaŕak, gizona gaizkatzen etoŕteko zanari deitzen eutsoen, eta Isaias'ek iragaŕita eukon lez, (XXXV-5), aonek egingo ebazan alatzen aŕtean itsuei begiak zabaltzea egoalako, itsuok Gaizkatzaletzat eukenagana ustetsu uŕeratzen ziran. Josu'k baña euraen ziñestea obeto azteŕtzeko edo, gelditu barik auŕera jaŕaitu eban, bere etxera eldu aŕte. Jeronimo deunak diñonez, Josu Kaphaŕnaum'go urian egon zan aŕtean, Kepa deunaren amagiñaŕebarenean egon oi zan, eta etxe aonetara eŕdu zaneko gizon itsu biak auŕkeztu yakozan. Josu'k eurekana biuŕturik esan eutsen: Eskatzen dauztasuen ori emon neikezuela uste dozue?—«Bai Jauna» erantzun eutsoen, eta oŕduan Josu'k begietan ikutuaz esan eutsen: Ziñesten dozuen lez egin bedi. Eta bapatean begiak idigi yakezan, eta pozez ta eskaŕ onez «Dabid' en Semea» lenengo aldiz ikusi eben.

Auxe da Goizpaŕkiak zeŕtzeladaz azaltzen dauskun lenengo itsu-osatzea.

Gizon bi itsu, ta begiak idigi be eziñik, ez kirioetatik soŕtutako itsukeriaz, benetako itsukeriaz baño. Beraz begiak galduta eukezan, toki aŕtako bero laŕegitik soŕtutako gexoz ala beste batez, baña benetan

galduta. Eta osatzeko auxe egin eben; Josu'ri jaŕaitu, ziñeste ta itxaro biziaz eurak osatzeko eukan almena autoŕtu; ta Josu-kisto'k ezeŕtako osakairik ipiñi barik, begietan eskuagaz leunkiro ikututa itz bategaz begietako aŕgia, ikusmena, biuŕtu eutsen.

Osatze au agiri-agiri alatzezkoa ez ete da? Kisto'ren etsayak beste bide batez osatze au azaltzeko erabili dituezan buruauste gustiak sustaŕ - bakoak ba, izan dira; Jauna'ren aŕgia ikusi gura eztabenak euraen gogoko itsukeria bakaŕik aŕgiro erakusten dabezan azalben-izunak. Josu'k zuŕtasunez, bere etsayak sumindu ezeitezan edo, alatz au iñori ez esateko agindu eutsen, baña pozez ta eskaŕ onez, ixilik ezin egonda basteŕ gustietan zabaldu eben.

* * *

Kistar maite: Josu-kisto'k itsuen eskaria entzun aŕen, jaramonik egin barik auŕera jaŕaitu eban, beaŕ bada euraen ziñeste bizi ta itxaro osoa ageŕtzeko eretia emoteaŕen; baña gizon zintzo areik etziran gogogetu, etxeraño jaŕaitu eutsoen, eta eurak gura eben eskaŕa loŕtu be bai. Guri be Jauna'k otoi dagigunean, ez entzun lez egiten ba'dausku, ezkaitezan gogogetu, oŕduan eta ziñeste biziagoz otoi dagiogun, eta gure Aita onak geure zintzotasuna ikusirik, geure irabaziak ugaritu, ziñestea sendotu ta uste biziagoa Beragan eukiteko eretia emonaz batera, eskatzen dautsoguna be eskieŕ emongo dausku.

GABIREL.

JOSU OTEUNDUBA'RI

Luŕezko nire begi aŕgalez etzaitut, Jauna ikusten:
Baña Sinismen-argi biziaz nik bai-det Zugan sinisten
nik bai-det Zugan sinisten.

Mai deunian ortxe zaude Zu, maitasunaren iturí,
Gure artera zure begijok samuŕ-samuŕki itzuliz
samuŕ - samuŕki itzuliz.

Ogi-mintz-pian Jainkotasuna dezu mirariz estali:
Josu bigunoi... Jainko andia... gixonentzako janari..!
gixonentzako janari..!

Zeure gorputzaz zeure odolez nazu maitero bazkatzen..!
Zer egiten det nik Zu oraindik baldin ez-pazaut maitatzen?
baldin ez-pazaut maitatzen?

Uŕikal nazu on-ona zeran Josu maitari - maitia!
Iriki niri oŕ gorde nadin zure bijotzen zauria!
zure bijotzen zauria!

Ta... iguzkiaren izpi bigunaz dezun lez urtzen ixotza
Zeure maitasun-gaŕ eztitsuan niri kiskaldu bijotza!
niri kiskaldu bijotza!

Ibaŕ - Mendi.

Euskaldunei Euskeraz

Batzar-egunian, Lemona'ko txadonan Manterola'tar Gabirel'ek egiñiko itzaldia.

«Ego sun lux mundi, qui sequitur me non ambulat in tenebris, sed habebit lumen vitæ.»
«Ni ludiko arĝia naz, niri jarraitzen daustana ilunetan eztabil, baita bizitzako arĝia eukiko dau» (Joan». VIII-12).

Bederatzigarren aldiz gaur biltzen gara Jaungoiko Zale-bazkideok, esku artean darabilgun, arazo Jaungoi aoneri begirakada bat egiteko. Bide aldapatsuan gorantza doyan bidaztiaren antzera, unetxu baten ibili garan bideari begiratu ta igaro bear bogun bide latz ta luzea ikusita gogogetu ez gaitezan, alkar poztu, alkar arĝitu ta adoretuteko. Batzar onetan, nagosiaren esana egitearen toki deun onetatik zeuei itzegin bearean aurkitzen naz. Ez dautzuet baña gauza baririk azalduko, bari zalea izatea toki onetan ezta egoki-ta. Ezta norbere abururik be, toki au oretarako gurenegia dalako. Begiok gorago jaso bear ditugu. Eskuak lanean ditugun artean ezkara aztu bear Bazkun aonen asmoak, goitar utsak eta garantzitsuenak dirala. Kistar Ikastia, Jauna'ren Arĝia giza biotzetan zabaltzea da gure ardurea; gauza gurenagorik ete da? Eta Kistar-Ikastia «Euskaldunei euskeraz» irakastea gure ikuritza; bide zuzenagorik bai? Auxe da albait laburen, Jauna'ren laguntzagaz, eta oretarako Eleiz onetako zaindari dan gure Ama Andra Maria bitarteko ipiñita azalduko dautzuedana.

«*Jaungoikoa* bere izatez *Arĝia da*». *Deus lux est et tenebræ in eo non sunt ullæ* (1) eta Arĝiak bere izatearen indarez, Izatez Argia dan Semea sortu eban, Argitiko Arĝia, *Lumen de Lumine* (2) aldi gustien aurretik, Aita Jaungoiko egiazkotik sortutako egiazko Jaungoiko, Doibatzak abestuten daben lez. Aita eta Semearen alkarenganako maitasunetik, izatez Maitasuna dan Goteuna urten zan, Argia, Aita eta Semea lez, Egiazko Jaungoiko Aita eta Semea lez, eta izatez Maitasuna Jaungoikoa maitasuna dalako, *quonian Deus charitas est* (3). Gure ziñestea auxe da: Iru Notin edo lagun, eta Jaungoiko bakar bat, Arĝi bakar bat, Maitasun bakar bat. Eta Jaungoiko bakar aonek bere gurariz, «bere ontasun eta almenez, ez bere zoriontasuna lortu ala ugaltzeko, izakieri egin dautsezan emaitzen bidez, bere on-gurena agertzeko baño,» (4) gauza gustiak ezerezeti atara ebazanean, izaki gustietan bere Arĝi ta Maitasunaren lortzak irari ebazan. Auxe dala-ta, izakiak batez be biziak, argiaganako maitasun-egari bizia daukela dirudi.

Zugatz eta landarak argi alderantz makurtzen dira, eguzki izpi bat eurekanduteko metu, luzetu ta zabalduten dirala dakusgu. Abere ta egaztiak argiak poztu egiten ditu, arĝitan abestu ta jolas egiten dabe, ta ilunak lura estaltzen dabenean itun euraen abi ta zuloetan eskutatzen dira; ta pizti basatiak be, gaizkiñen aizkide dan iluntasuna laguntzat arturik janari bila euraen lezetatik urteten diranean, ilunaz izututa orua dagie. (5)

Baña ludi onetako izaki gustien artean gurenena gizona da ta berau arĝiak geyen poztu ta ilunak geyen ituntzen dabena be. Gizonak edozein gorputz atal galtzea gurago dau, bere gorputzeko argia, begiak baño; ta bere gogoko arĝia adimena galdu baño, eriotzea be nayago leuke. Gizonak ilunari dautson bildur au nondik sortzen ete da? Izatez Argi-Maitasuna dan Jaungoikoak bere antz eta irudira egin eban (6) eta adimena bera ezagutzeko ta biotz bat bera maitatzeko emon eutsozalako argi - maitasun barik ezin lei euki zorunik, auxe da ba bere bizia. Baña Jaungoiko maitagarriak ezeutson emon abereari lez gorputzeko arĝia bakarik, baita be adimen-argia emon eutson, egiaren izpi gozatsuaz bere gogoa asetzeko, eta onez gañera, bere maitasun utsez eta esku zabalez bere izatez zegokion baño goragoko malara jaso eban, Jaungoikoaren eskar-jantziaz bere gogoa apaindu, bere semetzat artu, ziñeste argia ta Jaun-maitasuna bere gogoan izuriten ebazala, bere ondo

rengo gustiakaz donokian betiko zorioneko izan zedin. ¡Zorun - zoruntsua ziñez Jauna'ren bide zuzenetik aldendu ezpalitz! Bai zan baña izaki bat gizonari iñartziz begiratzen eutsona, guzuraren aita, txerena, bere gaiztakeriz betiko zoruna galdu ebana. Eta aonek, Jaun-goikoa gizonaren zorun bakara ezpailitzan, bere aginduaren kaltez jaikiko baziran, ezaguturik gizonak argiari eutson maitasuna, jaungoiko lez izango zirala (7) esan eutsen; eta eskintza aonegaz atzipetuta gure lenengo gurasoak, euraen Jaun, Argi ta Maitasunaren kaltez jagi ziran eta une atan bertan euraen izatez etzegokiezan Jauna'ren emaitz gustiak galdu, ta Jauna'ren asarepean, gorputz ta gogoz zaurituta aurkitu ziran (8) Ara or gizona adimen ilun eta biotz zaurituaz, zoriontasun bidetik aldenduta, eriotzako gerizpe ta ilunpean, zauriturik, bide ertzean datzan bidekatutako bidaztiaren antzera. Auxe Adam'en ondorengo gustien jarauntzia, berarizko galaldiz Jesu-kisto'k bere Ama'tzat autu ebanena, gure Andra Maria'rena izan ezik.

Ara obenpean egoan gizadiaren egoera erukaria; argi-egariz itoten, eta ilunetan egon bear; Jaun-maitasunak bakarik ase leiken biotza ta maitatzeko indarik ez; zoriontasun-gara biotzean eta zorun bidetik aldenduta. Zer egin? Egoera lari aonetik urteteko bere alegin gustiak alperekoak izango ziran, berenez, eriotza ta betiko ilunpea zan bere zori bakara. Baña Erukiaren Aita, ta poz-atsegin gustien Jaungoiko (9) bere egite gustien gañetik gañezka erukia izuriten dabenak bere maitasun neurgea agertzen euskula, bere Seme Jaungoikoa gizon eginda ludia gaizkatzeko bialtzea erabagi eban. Izpar zoragari au gizonak oben egin eban egunatan eta geroz sariran Iragarle bidez argiro emon euskun. Gaizkatzale au, gizonaren Argi, Maitasun eta Bizitza izango zan. Eta Jakob'en abendako izara (10) Zuzentasun Eguzkia, (11) Jerusalem'go Argia, *Sorkalde* izendun gizona (12) aldien osotasuna erdu zanean Ama Neskutzagandik Bethleem'go estalpe baten gabaren erdian argitasunez inguraturik jayo zan. Ara or Argi gustien Aita danaren Semea, (13) ludiratzen dan gizon oro argitzen daben benetako Argia (14) gizonaren zorun Bidea, Egia ta Bizitza. (15) Bera da itz oneik esan ebazana: *Ego sum lux mundi, qui sequitur me non ambulat in tenebris* (16) *sed habebit lumen vitæ*. Ni naz ludiko argia, niri jaraitzen daustana ilunetan eztabil, baita bizitzako argia eukiko dau; eta Bera Argia dala adirazteko Tabor mendian irubidiau zanean, arpegia eguzkia lez aratz agertu eban (17). Eta guri gogoko bizitza emoteko gurutza baten bizia emon ebanean, eguzkia be ilundu zan, argi berbera zanaren eriotzea ez argitzearen. Eta argitasunez beterik berbiztu ondoren bere eginkizunari jarraituko eutson Doibatza Bere argia zabaltzeko eskubide ta biarkunaz irasi eban ta beste aldi baten, *Vos estis lux mundi,* (18) Zuek ludiko argi zare, *Qui vos audit, me audit*, (19) Zuei entzuten dautzuenak niri entzuten daust ikasleai esan eutsenak, guzur eta obena garaituta, egi gustia irakatsiko eutsen Goteuna (20), euraen indar eta Poz-asetzalea, Aitak bere izenean bialduko eutsela adirazi ondoren, Aita'ren eskumaldera igo baño len, auxe agindu au emon eutsen: *Euntes, ergo docete omnes gentes etc.* (21) Zoakeze eta irakatsi egiyokezue gizon oroi, eta Aita'ren eta Semearen eta Goteuna'ren izenean ugutzau egikezuez. Ara or gure arazoa, gure arloa, gure ardura ta gure biarkuna. Arazo bikaña, egikizun gurena, biarkun bilduragaria! Jaungoikoa'ren antzikur baten lez, bere argia ta maitasuna geure gogo ta biotz argal eta ilunetan artu, ta argi ta garbi Jauna'gandik artu dogun lez, ezertako ilun eta oben-kutsu barik, gizonen biotz ta adimenetan zabaltzea. Paul deunak diñon lez; *Dei enim adjutores sumus*, *Dei agricultura*, (22) Jaungoiko'aren laguntzale, Jaungoiko'aren lugintza gara. Ta Jaungoiko'aren Argia, Maitasuna ta Bizitza zabaltzeko, guzura ta obena giza -biotzetik basterztzeko, Jaungoiko berberaren laguntzale izatea baño egikizun gurenagorik, ete da? Egikizun Jaungoyagorik? Onuraz betetako, ardura andiagoz artu bear litzakenik? Ez.

II

Egikizun bikaña da ba, ziñeste-argia giza-biotzetan zabaltzeko daukagun egikizuna. Trento'ko Batzarak irakatsi euskun lez, (23) ziñestea, giza - gaizkakundearen eustazpia ta deuntasun gustien sustara dalako; ziñeste barik ezin geinkio Jaungoiko'ari atsegiñik emon. (24) Eta berau Jesu-kisto'k gura daben lez zabaltzeko biderik egokiena, ¿zein ete da? Onuratsuena, zein ete? Jesu-kisto gure Irakasle ta Ereduak itzaldi bidez irakatsi eban, berberau egin eben geyenez bere Ikasleak be, Paul deunak diñoskun lez ba, ziñestea entzunetik sortzen da, *Fides ex auditu* (25) Itzaldia da ba, ziñestea zabaldu ta naste barik iraun dayen biderik gorengo ta bear - bearekoena. Itzaldi bidez batez be, alegindu bear

gara, Argi ta Maitasuna dan Kisto'ren irakastia zabaltzen. Eta itzaldia alperekoa izango ezpada, onuratsua izango ba'da, txiliñen tintiña baño zerbait geyago izango ba'da, entzuleen elez egin bear dala esan bearik ete dago? Ez ete euskun Jesu-kisto berberak ikasbide au emon, bere irakaskintza Jaungoyak eutzuleen elez azalduta? Bere ikasleak be ez ete eben auxe egin? Eta ludi gustitik zabaldu aurretik, Goteuna euren adimenak argitu ta biotzak sututeko etori yakenean, alatz andi bidez zertarako emon ete eutsen ele-emaitza eri bakotxari bere izketan kistar ikastia azaltzeko izan ezik? Paul deunak Corinto'tarai diñotsen lez (26) ulertzeko izketan azaldu ezik: azaltzen dana zelan jakingo dabe? axeari itz-egiten dautsana lez izango zare. *Ita et vos per linquam nisi manifestius sermonen dederitis, quomodo scietur id quod dicitur? Eritis tam enim in aëra loquentes.* Trento'ko Batzarak ba, ez eban agindu baririk emon itzaldiak eritaren elez egiteko agindu ebanean (27). Auxe dala - ta gure Doipuru gurgari XV'gn. Bededito'k oraintsu belguntzatzaz emon eban Idazkian, (28) Belgundariak Jaungoiko'aganatu gura daben eriko izketa albait ondoen jakitea, bearekoa dala diño. Onez gañera, Kistar Ikastia, gure Aita Jaungoiko erukiorak bere seme gaxooi bialtzen dauskun bari ta gezna da. Eta Aita'ren itza biotzeraño erduko ba'da, bakotxari beretzat biozkorena dan, eta ondoen ulertuko daben elez ez ete yako azaldu bear? Eta Kistar Ikastia gogoko bizitza, gogoko argi ta maitasuna dalarik, ero sakon eta sendoagoak zelan botako ditu gizonaren biotzean, bere amaren altzoan laztan artean ikasi daben izketan azalduta baño? Beraz, euskaldunei, geure ele zar mamintsu, estitsu ta zoragarian, euskeraz, ez ete yako irakatsi bear? Beste gustiak euraen elez irakasteko biarkuna ta guk geure-geurean ¿zegaitik ez? Nor da gai onetan Jauna'ren guraria betetea bide zuzenez galerazo leikenik? Ara or Jaungoiko - Zale jaupari Bazkuna'ren sustara, auxe bere iñok zirkindu ezin leiken arkaitz sendozko eustazpia. Jaungoiko-Zale Bazkuna, «Euskaldunei Euskeraz» betiko zorioneko bidea irakasteko sortu zan. Eta onetarakoxe bakarik, naiz ta zuzentasun argiak minduten dituanak beste gauza bat uste. Aritzekoa da, euskaldun jaupariak «Euskaldunei Euzkeraz» Kistar Ikastia irakasteko Bazkun bat sortu bearean aurkitzea, aritzekoa ta baita lotsagaria be. Eusko-erian Kistar Ikastia zabaltzeko bazkuna bear litzake, baña *zelan* irakatsi aitatu bearik eleuke izan bear.

Neu beintzat bazkun onek pozez bete nindun, baita atsekabez bete be biotza, geure eri maite au onelako Bazkun baten bearizanean aurkitzen zala gogalduta. Bazkun au onetsi eban Gotzañak (29) «Onurakor-onurakora ta bear-bareko zala» esan eban; eta orain daukagun Gotzain maiteak be, geure asmoak goitarak zirala autortuta, esan euskun: «Gauza edera da au. Bazkun onek on asko legike. Goterkiko Abade gustiok asmo oregaz alkartuta ba'legoz, gauza andiak egingo geunkez. Biarekoa da bakotxari bere elez itz-egitea kistar bizitza irakatsi gura ba'dautsagu; berea eztan elez norbaiteri itz ba' dagiogu biotzera ez yakoz sartuko» (30) Ekin eta jarai ba, geure bidea zuzena da-ta.

Ekin eta jarai, len baño bearizan geyago, eta Argiaren etsayak len baño eragozpen geyago bidean ipiñiko dauskuz-ta. Len baño bear izan geyago, Euzko-eriko ziñeste landarea, girñaren ipar-axeak alde batetik, eta, guzur eta oitura zatarren ego-axeak bestetik, sustarkatu ala gorriñaz igartuteko gatxorian ipiñi dabelako. Eragozpen geyago, gogoaren etsayak, Jaun Argi ta Maitasunaren etsayak, geure Bazkun aonen onurak ikusirik, iñondik al ba'dau len baño kalte geyago egiten aleginduko dalako. Ene anai biotzekoak ez aztu ba eragozpenak, atsekabeak eta etsayak, bide zuzenetik doyanen inguru beti dabizela. Guk erantzun bat, onena, emon bear dautsegu. Bazkun aonen asmoak toki gustietan zabaldu, «Jaungoibo Zale» marduldu ta indartsutu, idazti, irakurgai, ingi ta idaztiñoak al dogun neuriz uri ta baserietan zabaldu ta jaurera! Gu bide zuzenetik gabiltz, Jaumaitasuna, Goiko Argia, ta Jauna'k maitatzeko agindu dauskuna, biotzean dogun artean; eta auxe egin ezik gure biarkuna ondo beteko dogunik eztot uste. Bazkun au etzan ba sortu jaupari euskaltzale batzuei alan otu yakelako, Jaungoiko zaletasunak bultz eginda baño. Bazkun au sortu zan, euskaldunei euskeraz kistar ikastia irakatsi ez egitetik gogoentzat etorzan kalteak ondo ezagututen ebezalako. Bai ekien jaupari aintzagariok, Vitz' ko Gotzain jakintsu ta ospetsu izan zanak esan eban lez: euskaldun «umiei Jaungoikoa erazagutu, au da Kistar Ikastia erderaz irakastea, oitura iguingari, kalte-kaltetsu ta ziñeste ondatzaiea zala» (31). Bai ekien Gotzain berberak diñon lez, Kistar Ikastia norberea eztan elez irakas-

teak, naiz ele au elerti ugariduna izan, Jaungoiko'aren Semeak ludi aonetara ekaŕi eban irakaskintza deun aoneri gure izateagaz euki beaŕ daben baŕenkoitasuna, beragaz batzeko bereztasuna, gure izateagazko batasuna, ta giza-gogoatzazko baŕdintasuna kentzen dautsola, ta beraz bere indaŕik geyena galtzen dabela. Eta auxegaitik Doibatz, Eleiz Katolikotaŕen gogo ta guraria, kistaŕ Ikastia bakotxari bere elez irakastea dala» (32).

Bide au, zuzena dalako, bide latza da, bide ayeŕtsua, bide lakaŕa da. Baña guk Jaungoiko' aren gurariari bakaŕik begiratu beaŕ dautsagu. Gure Bazkunaren asmoak aŕgi ta gaŕbi, iñoz aspertzeke, geure jaupari anayen aŕtean zabaltzen alegindu beaŕ gara, gustiok alkaŕtuta Jaun Argia'ren etsaya garaitu daigun. Kistaŕ gustien biotzetan Goiko Aŕgia zabaltzen alegindu bear gara, eta gogaitu baŕik, laŕegi ezta irakasten ba ondo iñoz ikasten eztana-ta, ta baita zabaldu gure asmoak kistaŕ lauen aŕtean be, eurak lagundu ta uŕgazi gayezan. Eta gure alegin gustiak, Jaungoiko'aren laguntza barik, alpeŕekoak dirala iñoz be aztu barik *Neque qui plantat est aliquid neque qui rigat, sed qui incrementum dat, Deus* (33) Zuŕ ibiĩi, ziñestean sendo, gizon lez jokatu, eta bulardetsuak izan; *Vigilate, state in fide, viriliteŕ agite et confortamini; Omnia vestra in caritate fiant;* (34) Paul deunak diñoskun lez.

Jaumaitasunak emongo dausku beaŕ dogun eroapen eta leuntasuna; *charitas patiens est, benigna est;* baita ludi onetako onurari begiratu barik, geure anayen onerako, igaro beaŕko dituguzan atsekabeak ostikopetuteko adorea; *charitas non... non est ambitiosa, non quaerit quae sua sunt..... omnia suffert.. omnia sustinet;* (35). Olantxe bakaŕik, egiten danari baño egin bear danari geyago begiratuta, *Non quod fit, sed quod fieri debet attendendum;* (36) Jaungoiko'agandik soŕtutako Argi ta Maitasuna dan Jesu-kisto geuk ezagutu ta besteai erazagututa, Betiko bizitzaren alde (participe) izango gara. *Haec est auten vita eterna: Ut cognoscant te, solum Deum verum, et quem misisti Jesum Christum.* (37) Olantxe.

---

(1) I Jon, 1-5. (2) Symbolo Nicoeno. (3) I Jon, IV-8. (4) C. Vat. S. III, c. I. (5) Ps. CIII.

(6) Gen, I-26. (7) Gen, III-5. (8) Conc. Trid, Sess. V; c. I.

(9) II Cor, I-3; (10) Num, XXIV-17; (11) Malak, IV-2; (12) Isai, LX-1; (13) Zak, VI-2; (14) Jak, I-17; (15) Jon; XIV, (16) Jon, VIII-12; (17) Matth, XVII-2;

(18) Matth, V-13; (16) Luk, X-16; (20) Jon, XIV - 26. (21) Matth, XXVIII-19; (22) I Cori, III-9;

(23) Conc. Trid. Sess, VI, c V; (24) Ad Hebr, XI-6; (25) Rom. X-17; (26) I Ad Cor, XIV 9. (27) Sess, XXII, c, 8; (28) Epistola Apostólica, «Maximun illud».

(29) Cadena eta Eleta. (30) Jaungoiko Zale, 84'n zen bak, Uŕiĩa 1917.

(31) Traditió Catalá C. V. 46'ing.

(32) Toŕás eta Bagés, Pastorales, tom. I. 348'n ing. (33) I ad Corinth. III-7; (34) I ad Corinth. XVI - 14; (35) I ad bor. XIII-4 seqq. (37) Benedicto XIII-Conc. Romano 1725 tit. XX c. 2. (37) Jon XVII-3.

NASKALDIJA

Doipuruak Gotzain gustijei idazki edeŕ bat bialdu dautse kistaŕ bizikerea eŕijetan bakiagaz batera zelan indartu biar daben adierazoteko. Diño gudaldijan alegin gustijak egin ebazala bake iraunkor ta zuzen bat egin zedin, eta al eban bestian urgazi ebazala gudiak ekazan zoritxaŕak. Eta gizadi gnstijari aŕen eskatzen dautso asaŕiak aztuta maitasun eta alkartasun estuan bizi daitezala.

* * *

Aŕtu dogu Barcelona'ko Subirana-Etxiak argitaldu daroan Anuario Eclesiastico 1920'koa.

Bere saneuŕia 7 lauerleko da; baña geure bazkidiek 5'ian erosi leikie geure idaztitegijan.

* * *

Aŕasate'n Zerura igon da Ugalde eta Zaitegi'taŕ Garbiñe geure bazkide Peli'ren lau iĩabeteko alabatxua.

Naibagian lagunduten deutsagu.

JAUNGOIKO-ZALE'ren irarkolea. — Zornotza.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
152'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Dagonila 16'gn.

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

LENENGO OGI-AŔAIN UGARITZEA

(Matth. XIII-23; Mark. VI-33; Luk, IX-11; Jon. VI-1).

ETA batelera igonda, Tiberiades deritxon Galilea'ko itxasoaren beste aldera, Betsaida luŕaldeko toki-basteŕ lekarora igaro ziran. Eta askok ikusi ta ezagutu ebezan; eta gexoakaz egiten zituan gelgaŕiak ikusten ebezan eta, eŕi gustietatik oñez eltzen ziran, eta auŕea aŕtu ta itxaron eutsien eta eurakaz gero batu ziran.

Judaŕen Igaratz (Pasko) jaya uŕbil zan. Eta Josu'k bere begiak jaso ta Beragana zetoŕen gizoste andia ikusi ebanean, Pilipa'ri esan eutson. Oneik jateko lain ogi, non erosiko ete dogu? Au ziñoan zirikatzeaŕen. Berak bai-ekian ba zeŕ egingo eban. Pilipa'k erantzun eutson: Beŕeun amaŕekon ogia naiko elitzakioe bakotxak apuŕ bat aŕtzeko. Eta uŕtenik gizoste andia ikusi ta beratzaz eŕukitu zan, aŕtzain bako aŕtaldea lez egozalako, eta danak abetaldu ta Jainko'aren bakaldeŕiatzaz itz-egiten ziaŕduan, eta gauza asko irakasten asi zan, eta beaŕizana eukana osatzen eban. Aŕatzerantza ikasleak eldu yakozan esanaz: Bakaŕtokia da ta belu da. Gizostea bialdu eikezu inguruko eŕi ta baseŕietara jatekoa erosten. Baña Josu'k erantzun eutsen: Joan beaŕik eztauke, zeuok jaten emoyokezue. Eurak esan eben: Goazen eta beŕeun amaŕekon ogia erosi daigun eta jaten emongo dautsegu Josu'k esan eutsen: Zenbat ogi daukazuez? Zoaze ikusten. Ikusi ta gero ikasle batek, Simon Kepa'ren anayak, esan eutson: Emen da mutiko bat, bost tremes eta aŕain bi daukozana; baña, au zer da ainbestentzako, joan eta gizoste gusti oŕentzat zeŕ jan erosten ez -padogu? Esan eutsen: Ekaŕi egidazuez. Eta agindu eutsen: Gizosteari bedaŕtzan taldeka etzan eragiyozue. Tokŕ atan bedaŕ asko zegoan. Aŕlantxe egin eben euneko ta beŕogetamaŕeko taldeetan jesaŕi eraginda. Oŕduan bost ogi ta aŕain biak aŕtuta, Josu'k goira begiratu eban, eta eskaŕak egiñaz onetsi ebazan, eta ogiak zatitu ta ikasleen aŕtean banandu ebazan, eta oneik gizosteari. Baŕdin aŕaiñak zatitu ta banandu eragin ebazan, bakotxari

gura aña emoteko eran. Eta gustiak jan eta asebete ziran. Eta jan ebenak bost anei (miĩa) gizon izan ziran, emakume ta umeak zenbatu barik. Eta ase ziranean, bere ikasleai esan eutsen: Gelditu diran otzuŕak bilḋu eikezuez, galdu eztaitezan. Bilḋu ebezan ba, bost ogien ondakiñak eta amabi otzara bete ebezan.»

* * *

Kapharnaum'go itsuak osatuta beriala, gaizkindu-itzge bat osatu eban, eta geroz bere ikasleak lagun zituala, bere abeŕi Nazareth'era joan zan.

An bere eŕitaŕ biotz gogoŕ eta adimen iĩunai itz-egin eutsen, eta Galilea ta inguruko eŕi ta baseŕiak irakasten arakatu ebazan. Gero ikasleak bakaŕik gexoak osatu ta Goiko Ala (eŕeñua) azaltzeko eskubideaz biñaka bialdu ebazan. Eta euraen arazoa bete ondoren alatz asko egin ebezalako pozez beterik, biuŕtu ziranean, gizosteak jateko astirik be, ezeutsen izten eta apuŕ bat atsedentzeko bakaŕ-toki batera eroan gura ebazan, alan bide batez Jon Ugutzaĩea egun aretan eraiĩda, bera be ikusi gurarik ebiĩen Erodes ankeŕ-gaiztoen ondotik iges egiĩen ebala.

Onetarako bateltxoan saŕtu ta Tiberiades zeaŕ, itxaso aonen ipaŕ alderantz egoan Betsaida Julias eritxon tokira zuzendu ziran. Baña eldu ziranean, eurak baño len iru oŕduko bidean itxas - eŕtza zeaŕ joandako gizoste izugaŕia auŕkitu eben. Asko zetozen Josu'ren alatzak bultzatuta. Beste asko judaŕen Paska jaya uŕeratuaz joyan eta oi eben lez Jerusalem' erantz joateko bildu zirala dirudi. Josu bateletik uŕten eta beste osteari jaramonik egin barik bere ikasleakaz muño batera igon eta apuŕ baten atsedentzen egon zan. Baña gero begiak jaso ta gizoste ain izugaŕia ikusirik, eŕukitu zan, aŕtzain bako aŕtalde bat zirudielako, ta irakasten eta gexoak osatzen asi zan. Onetan ikasleak aŕatzaldea auŕera joyala ta gizostea euraen etxeak uŕun ebazala, jateko barik ikusirik, Josu'ri adirazten emon eutsoen uŕeko uri ta baseŕietara jateko-erosten bialtzea egoki izango zala. Josu'k ainbat alatz egiteko almena egun batzuk lenago bere ikasleai emon eutsen eta orḋuan beste andi bat egiteko eretia emoteaŕen edo, auxe erantzun eutsen: Eztauke joan beaŕik, zeuok emoyezue jaten. Baña ikasleai alatz-bidez jatekoa zuzentzerik etxaken otu be, ta eurak bear zan ogia erosteko aña txindi ete euken oldozten asi ziran. Beŕeunen bat amaŕeko-edo baño geyago ezeukiezan, (oingo 200 laueŕleko bez) eta Josu'k Piĩipa'ri zirakatzeaŕen itandu eutsonean: Onek gustiok beaŕ daben aña ogi, erosiko ete dogu? erantzun eutson: Gura dozu joan eta beŕeun laueŕlekon ogia erosi ta jaten emon dayoegun? Ba, beŕeun amaŕekon ogia ezta bakotxak apuŕ bat aŕtzeko be. Oŕduan Josu'k zenbat ogi eukezan jakiteko agindurik, mutiko batek bost ogi ta aŕain bi eukazala esan eutsoen. Josu'k ogiok ekaŕi ta gizostea bedaŕtzan etzanteko agindu eban. Eta ikasleak beŕogetamaŕ eta euneko taldeetan banandu ebezan. Ikuskizun edeŕa izango zan ziñez, ainbat miĩa lagun, udabaŕiko aŕatzaldean oŕlegi ta pitxi - loraz betetako zelai eta mendi egaletan jaŕita, auŕean euraen osteko mendietatik soŕtzen ziran eŕekatxoak poz-pozik Genezareth'ko itxaso edeŕera joyazala, eta uŕiñera Galilea'ko mendi eŕtzetatik zeaŕ gizosteaganantz bere azkenengo uŕezko izpi zoragaŕiak bialtzen ikustea!

Baña askozaz gauza edeŕagoa zan Josu eskuetan ogi aŕaiñak aŕtu, zerura begiak jaso, eskeŕak egin, eta bere Biotz eŕukioŕak bultzatuta, Jainko zanez eukan almenaz, aŕigaŕiro ugaritzen ziran ogi-aŕañak,

ikasleen bidez gose zan gizosteari zabaltzen ikustea. Alatz andi onen bidez bost mila gizoneri, emakume ta umeak zenbatu barik jaten emon eutsen, bost tremes eta ařain bigaz bakařik, eta alan-da-be, ondakiñakaz amabi otzara bete ebezan. Auxe da *lau* Goizpařkietan ikusten dan alatz bakařa; ařgi ta gařbi Josu-Kisto'n Jainkotasuna egiztuten dabena. Gizostea ařitu zan, eta pozařen Josu bakalduntzat ařtzeko asmua ařtu ebenean, Josu'k bere ikasleak itxasorantz bialtzen ebazan bitařtean, mendira otoi egiteko iges egin eban.

* * *

Kistař maite: Gizona ogi barik ezin bizi leitekela egia da, baña baita be ogiaz bakařik eztala bizi. Gizonak goiko zoruna lořtuko ba'dau, Josu - Kisto'n irakatsiak aintzat ařtu beař diţu, eta gař andiagaz ikasten alegindu be bai. Ogia irabazteko ařduratu beař dau, baña bere gogoko ogiaz aztu barik. Gauř egunean bařiz kistař asko eta asko ikusten dituguz gogoko janariaz aztuta, gorputzeko janari-bila bakařik alegin-alegiñez arduratzen dirala. eta alan-da-be, iñoz gura aña eztabela auřkitzen. Jauna'ren itza entzuteko dauken epelkeriaren zigořa ez ete da? Jauna'ren itza entzuteko jařaitu eutsoen gizonok, janariaz aztu egin ziran, baña Jauna'k eřukituta oparo alatz andi bidez lagundu eutsen. Ezkara baña ařitu beař. Bereak dira itz oneik: «Auřenen Jainko'aren ala (eřeñua) ta bere zuzentasuna bilatu eikezuez ta beste gauza gustiak gañez emongo yatzuez.» (Matth. VI-36).

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 22'gn. ta 29'gn.

JAI OSUAK: 15'gn. Ama Neskutza - Jasokundia.

Amabostaruon, gure Goterkijan beste jai osorik ez da. *Igande ta jai osuetan kistař orok jaupa osua entzun-biař dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 16'gn. Deun - Eřoka, autorlia, ixuři - aurka Zaintzalia; Deun Jokin, Miren deunaren aitea.

28'gn. Deun - Augustin, gotzaña, irakaslia, iraslia, **jai erditzař zaintzen doguna**.

29'gn. Deun-Jon-Ugutza-Buruingundia.

Gaztelu-gatxen eleizki andijak.

Ama Miren'en Jasokundia

Jesu-Kisto donokira igo zan eta eguzkia estaltzen danian bere izpi biziak illargiaren bitartez bialtzen dauskuzan lez, Jesus zuzendasunezko eguzkiak be lerengo kistarren artian itxi eban bere Ama zoruntsua, illargiak lez bere izpi gozoak Doibatzaren (Elexa) erdian zabaltzeko. Erbeste onetan gelditu zan, Bidali (apostolna) irakasteko, ziñopak (martiriak) sendatzeko, aitorliak poztuteko, ta neskutz (birjiñari) garbitasun-zaletasuna bere irakatsi ederrakaz geyagotzeko.

Jesus ilda amabost urtian bizi zan, Ama Miren, bere Seme Jesus'en irakatsi ta onuak oso-osoan bete: Jesus bere Seme maitiak bere odolaz busti ebazan tokiak ikertu: Jesus'en ordelariari menbetasuna agertu, ta Jon irakasle maitiaren eskuetatik egunero Jaunartzen ebala. Dunixi deunak ikusi eban itz-egin eban beragaz ta diño: «Beragan Jaungoikotasunak disdis egiten ebala, ta bere Semia lez Jaungoiko'tzat etsiko ebela, zinisteak galare-

zo ezpa'leutse» Jauna'k jatoriko obenetik legeazkatu eban arren ezeban gorputzeko eriotzatik gaizkatu: bere Seme Jesus'en antzekoa izateko: bere irabaziak ugariagoak izan zeitezan: guk ainbeste bildur dautsagun eriotza jasanda geugaz errukitu daiten, ta ordu estu ta larri artan geure zaindaria izan daiten.

Abitzez (tradiziñoz) dakigu bere eriotzan Belduez gañera Hieroto, Areopago' tar Dunixi ta beste kistar on batzuk lagun ebazala, eta azken arnasa emon ebanian ez nekez ta gexoz, bere Seme maitia ikusi ta besartetuko eukan maitasun - garrez baño, obiratu ebela bere gorputz garbia dotoltasunez (andikiro) Getsemani'ko baratzian, loraz ta usain gozodun igurzkiz inguratuta. Baña bere gorpua usteltzea etzan egoki, agaitik zinistea da, irugarren egunian Ama bere Semean antzera berpiztu zala, ta ezilkortasun, argitasun eta edertasunagaz aingeru artian zerura jaso ebela, Jaungoikua'ren bakaulki edo tronuraño. An zerutar gustiak pozez eta atsegiñez betetan zirala. Aita'k Almen (eskubide) Semiak Jakituri ta goteunak Jaunmaitasunezko burestuna ipiñi eutsoela. Orduan goraldu eben gotzonen bakalduntzat, bidali, ziñopa, aitorle, neskutz ta deun gustien bakalduntzat, ta azkenez gauza gustien nagosi ta erregiñatzat. Poztu gaitezan ba, kistarrok geure Ama donokian ain goraldua dakusgulako, eta artu daigun deunen antzera geure bakalduntzat, geure biarrizanetan lagundu, ta egunen baten beragandu gaizan.

GAMA.

Kistar - ikasti - atzalbena

Gogoatzazko eŕuki-egiñenak

VI-Geidiaren akats, utseite ta etsaikeriya ixilik eruan.

Gizartian bizi garan gustiyok daukoguz geure akatz ta utseitiak. Batsuk geure izakeratik berez sortzen diranak; beste batzuk, geure burua ezitzen ikasi ez dogulako, edo biaŕ danez azi ez gabezelako ezaŕten yakuzanak. Biaŕ-biaŕa da batsuk bestien akatzak ixilik eruaten ikastia, gustiyok alkaŕekin gentzaz bizitzeko. *Alkaŕ eruan eta azketsi alkaŕi batzuk bestien iraňak.* (Kolos. III. 13.)

Eŕuki egiñen au geuretzako onurakoŕenetarikoa yaku. Aŕiya gauza latzaz igortzi ta igoŕtzi landu oi dan lez, gure goguak be onelako akatz-igoŕtziyakaz landu oi dira.

Eredua. Jesukisto G. J. beste edozetan lez onetan be bikain-bikaña. ¡Amaika eruan biaŕ izan eban iru uŕte buruan bere ikasliekaz! Iru uŕte irakasten iñaŕdun, eta ondiño zeruetara igokeran be, galdetzen eutsoen: *Jaunoi, aldi onetan eregiko etedozu ba, Isŕael eŕiya.* (Act. I-6.)

VII-Bizi ta ilen aldez otoi egin.

Ainbat bideŕ irakuŕten dogu Idazti Deunean (Liburu Santuetan) Jaungoikoa'ri gogoko yakola alkaŕen aldezko otoya.

Paul deunak bereziki agintzen dausku *otoyak, eskariyak, aŕentzak eta eskeŕak egiteko gizon gustiyekaitik, alduntzan eta goyan dagozenakaitik, gentzatsu ta Jaungoiko - zalez bizi gaitekezantzat.* (I. Timot. II-1.)

Otoi egin biaŕ dogu baita iltzeŕ, eriyotz aldiyan dagozenakaitik be. Giza - bizitzako aldirik gaŕantzitsuena da. Une atan yokatzen dogu zoriyon betikoŕa edo betiko zoritxaŕa.

JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI·EUZKERAZ

1920'ko
Iralla'ren 1'gn.

IX 'Urtia
153'gn. Zenbakija

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
153'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Iraila 1'gn.

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

JOSU - KISTO UR - GANEAN DABIL

(Mtth. XIV-22; Mark. VI-47; Jon. VI-16.)

GTA gizostea bialduta otoi egiteko mendiratu zan. Ilunabaŕean antxe bakaŕik zegoan; bere ikasleak itxasorantza jatsi ziran. Eta bateleratuta Kapharnaum'erantza joan ziran.

Gautu zan eta Josu eurakaz etzan bildu. Itxasoa axe indaŕtsuak daŕdaŕtu ta ixuŕtzen zan. Onegaz bateltxoa uiñak itxaso erdian igitzen eben, auŕeik-arako axea euken ba. Bera luŕean bakaŕik egoan zelan aŕaunatzen eben begira. Ogetabost edo ogetamaŕ anei uŕatz (estadio (1) aŕaunatu ebenean, laugaŕen gaubela inguru izango zan, ur ganetik auŕera jaŕaitzeko asmuaz lez eurekana joan zanean. Baña Josu ur-ganean ebilela ikusi ebenean, eta ia batelera uŕeratzen zala, izututa esan eben: Irudi bat da. Eta bilduŕez beterik gaŕasi egiten eben. Gustiak ba ikusi eben. Josu'k orduan itz-egin eutsen esanaz: Adoretsu izan, neu naz, etzaiteze bilduŕtu. Beriala batelean aŕtu gura eben.

Baña Kepa'k erantzun eutson: Jaunoi, zeu ba'zara, ur-ganetik zeuganatzeko agindu egidazu. Ta berak esan eutson: Zatoz. Kepa bateletik urtenda ur ganetik Josu'ganantza joyan, baña axea indaŕtsu zebilela-ta bildurtu zan, eta ayenatzen asi zala deadaŕ egin eban esanaz: Jaunoi; gaizkatu nagizu. Bertatik Josu'k eskua edatuaz aŕtu ta esan eutson: Ziñeste gitxidun gizon ori, ¿zegaitik ustegetu zara? Eta eurak egozan batelera igon ebaneko axea geldidu zan. Eta batelean egozanak auŕkeztu yakozan eta guŕtu eben esanaz: Ziñez Jaungoiko'aren Seme zara. Eta beriala luŕera zuzentzen ziran tokira bertara eldu ziran geroago ta izutuago. Ondiño ba, ogiera (ugaritzea) ezeben uleŕtu, euraen biotza itsututa eukien-eta.»

* * *

Josu'k ogi-aŕaiñen ugaritzea zala-ta, bakaldun egin gura ebela ikusirik ikasleak itxasorantza bialdu ta otoi egiteko mendira iges-egin eban.

(1) 184'84 metro:

Itxasoratzeko emon eutsen agintza, ikasleai etxaken begiko izango. Ilunabaŕa, axe indaŕtsua, itxasoa asaŕe, ta Josu barik itxasoratu beaŕ, etzan ez gauza pozgaŕia! Batelean saŕtu ziran eta egiñ - alak egiñ aŕen, auŕera biderik ezin izan eben uŕatu. Gustiz nekatuta, goizaldeko laurak eldu ziran eta ondiño orduterdi inguruko bidea baño ezeben egin. Ertzera eltzeko ordu erdi bat beaŕ ebela, biotzgetuta itun itxaso asaŕetuaren erdian egozan, euraen Irakasle maitea barik auŕkitzen ziralako.

Josu baña euretzaz etzan aztu. Muño baten otoi egiten egoala, bere ikasleak uin eta axeaz buŕukan ebizela ikusirik eŕukitu zan, eta eurak poztu ta eurai laguntzeko goizaldeko laurak inguruan ur -gañetik oñez uŕeratu yaken. Ikasleak lenengotan irudi bat zalakoan gaŕasika asi ziran, baña Josu'ren itz pozkaŕi au entzun eben: Adoretsu izan, neu naz, etzaiteze bilduŕtu. Batelean aŕtzeko gertu ziran, baña Kepa'k oi eban lez besteai auŕea aŕtuta esan eutson: Zeu ba-zara, ur-ganetik zeugana joateko agindu egidazu.

Josu'k, «zatoz» esan eutsonean, Kepa uretara jatsita oñez Josu'ganantza joyan. Baña axe indaŕtsua ebilelako bilduŕtu zan, eta bere ustegetasunaŕen ondatzen asi zanean estu ta laŕi Jauna'ri deitu eutson esanaz: Jaunoi, gaizkatu nagizu. Orduan Josu'k eskua luzetu ta besotik aŕtu eban maitekiro esaten eutsola: Zineste gitxidun gizon ori, ¿zegaitik ustegetu zara? Eta bateleratu ziran eta berialaxe ekatxa baretu ta ertzera be eldu ziran.

Ikasleak ondiño ogi - aŕaiñen ugaritze gelgaŕia uleŕtu ezinik itsututa egozala, Josu'k bere Jaungoikotasunagazko zinestea sendatzeaŕen, iru alatz edeŕ egiten dituz: ur ganean ibili, ekatxa baretu, eta itxas-ertzeraño euken bitartea une baten igaro. Zuzen egozan ba, batelekoak aŕiturik esan eutsenean «Ziñez Jaungoiko' aren Semea zara.»

* * *

Kistaŕ maite: Alatz aonetan Josu'ren biotz-eŕukitasuna ta beragaz euki beaŕ dogun uste bizia agertzen dausku.

Geurenez ezer ezkarala autortuta, nogan itxaropena ipiñi ezpa - geunko, zoŕitxaŕekoak izango giñake. Baña Jaungoiko berbera geuri laguntzeko beti gurari biziaz dagola jakiteak pozez bete beaŕ gaitu; iñoz be Beragan euki beaŕ dan uste bizia galdu barik. Beaŕ dogun gustia zalantza (duda) barik, eskatu beaŕ dogu, ta beti geure gurariak beteko dira; uste barik eskatzen dabena ba, batera ta bestera axeak darabilen uiñaren antzekoa da, ta Jakoba deunak diñoskunez onakoak «Jauna'gandik ezer jaritxiko dabenik eztau uste izan beaŕ.» (Jakob. I-7).

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 5'gn. ta 12'gn.

Igande gustijetan kistaŕ-orok jaupa osua entzun biaŕ dogu ta otsein lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 1'gn. Gotzontza Ama Neskutza.

3'gn. Ileko lenengo barikuba.

Ileko lenengo bederatzi bariku jaŕaŕubetan, biaŕ dan eraz, Jaunaŕtza ba'dagixu.—Josu kisto'k esan eban-donokija zeuria dozu.

4'gn. Gotastun Ama Neskutza.

6'gn. Guadalupe'ko Ama Neskutza. **XV Benedifa Doipuruba burestuntzeco seigaŕen urteuŕena.** Kistaŕok Doipuru aldez otoi saŕi-saŕi egin biar dogu: gaur lako egunetan bedegaŕez.

8'gn. Ama Neskutza'ren jayotza, jai osotzat zaintzen doguna.

9'gn. Arantzatzu'ko Ama Neskutzaren Agerkundia, Gipuzkua'ko Zaintzale Nagusija.

12'gn. Miren-ixen edeŕa. Zumaŕaga'taŕ Go-

re samin, neke ta jasandasunak bere soñan ibili, ta ludi-atsekabe ta galbide gustijen bařija oařikaspenez ondo dakijanezkero. Labuř-labuř ta itz gitxitan esateko, Josu-Kisto gure Jauna, gixona zanetz «Gustijan zan geu langua obenan-ezik.»

Orain jatsi bediz donoki edeřetik uřezko ego ta ereskiñez apainduriko gotzonak, onenbeste edeřtasun, anditasun eta aintzatasunen-aitziñan abestu ta goraldutera Irasliaren egikunařigaři-indařtsubak, gixon ilgoř ustelkořak ezin daun-ezkero egin besterik, luřaz buruba josi ta ixil-ixilik alatz andi oneik egiteko ala beran daukona guřtu ta goraldu baño al-dan onduen.

Lontzi-Aba. K. O.

IZKUNTZA GEYEN JAKIN DAUZAN GIZONA

Mezzofanti'tař Joseba italia'tař zurgin txiro baten semea izan zan.

Bere aitak, ikastola-saria ezin eutson ořdaindu-ta, bere poz gustia ikastolako leyope baten jařita, irakaslearen azalbenak entzutea izaten zan.

Eta bere lagunak ikastolatik uřteten ziranean, ikaskaya zeñek obeto esan eupegiten eutsen. Arek irabaziko eutsoelakoan egozan, irakaslearen azalben edeřak entzun ebezalako, baña Joseba garailari uřteten zan.

Ořdutik auřera ikastolako umeak leyo ondotik igaroten ziran gustiei begiratzen eutsien, euren auřkalari txikia an ete zan ikusteko asmoaz.

Irakaslaria ainbeste ikusguraz ařtegatu zan, eta ikusgura aonen ziyoa jakin gura eban. Eta egun baten bapatean uřteten da bere ikasleak zegaitik adigetzen ete ziran ikusteko, eta ara non auřkitzen daben mutiko gaxoa ořmeari dautsola, zeřbait ařetaz entzuten dagoanen antzera. Irakasleak eskua lepoan ezaři ta astindu eban esanaz: Zu zantzail (pillastre) txiki ori ikasleak naspiltzen dozuzana ete-zara? Jaunoi—erantzun eutson apalik—naspiltzalea ni ba'nazařkeske naukazu. Ni ona zertxobait ikasteařen etoři naz, ta iñori kalterik egiten dautsodanik eztot uste. Ořek min-emoten ba'dautzu geyago enaz etořiko.

Irakasleak eřukituta esan eutson: ¿nik azaldutako zeřbaitetzaz gogoratzen ete zara? Eta mutikoak itzez-itz, ařigařiro auřeko eguneko azalbenak beřesan eutsozan.

Irakasleak mutiko azkařa bere ikastolan dubarik ařtu eban, bere jařaibideaz bere ikaskideak akzořtu ta egunen baten aintzatsua izango zalakoan.

Eta alantxe geřtatu zan. Mezzofanti'tař Joseba, jakintsu guren eta katolikotařen aintza izan zan. Izkuntzak ikasteko ařigařizko eřeztasuna eukalarik, beřogetamabi elez itz-egin eta idazteraño eldu zan, eta onez ganera izkelgi asko ikasi ebazan bakotxaren oguzkera bereziagaz.

Eta esaten dabe bera ondiño jaupari zala, atsotxu baten izkelgia ikasten ařduratu zala, berau autořtu al-izateko. Maitasun-egintzau ziñetsi legi zeřbait ziyo-edo izan zala Jainkoak izkuntzak ikasteko emon eutson eřeztasunerako. Gero Jazkořdun (cardenal) egin eta Doipuruak Vatikano'ko idaztitegiko ařduradun izentau eban. Roma'ra joaten ziran atzeřitař ospetsu gustiak bera ikeřtuten eben. Eta euren izketan, eta euraen izkelgian itzegiten ebala ikusirik, ařituta gelditzen ziran. Auxe zala - ta «Pentekostes Bizia» deituten eutsoen.

1774'an jayo ta 1849'an il zan. Bere idaztitegian, eun ta beřogetamabi elizti (gramatika) ta beste ainbeste iztegi auřkitu ebezan.

GAMA.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
154'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Iraila 15'gn.

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

EMAKUME KANATAŕEN ALABEA OSATZEN DAU

(Matth. XV-21; Mark. VII-24.)

ETA bertatik jagita, Tiro ta Sidon-mugaetara joan zan. Eta iñok ez jakitea gura izan eban, baña ezin izan zan eskutau. Ara ba, emakume zinge (jentil) bat abeŕiz siro-feniziataŕak, bere alabea gogo-loyak artuta eukala, beratzaz entzunda, ertz areitatik urten eta gaŕasi egin eban esaten eutsola: Jaunoi, Dabid'en Semeoi nitzaz eŕuki zaite, nire alabea gokaiztoak gaizkiro nekatuten dau-ta. Baña Berak itzik ezeutson erantzun. Eta eldurik ikasleak otoi egitsoen esaten: Bialdu egizu, geure ostean gaŕasi dagi-ta. Baña Berak erantzuten esan eban: Ni Ixaŕel-Etxeko galdu diran ardientzat baño enaz izan bialdua. Eta etxe baten saŕtu zan. Baña emakumea beriala sarturik bere oñetan auspeztu zan, guŕtu eban, eta aŕen bere alabeagandik txeŕena jauŕtiteko eskatzen eutson esanaz: Jaun oŕek uŕgazi nagizu. Eta erantzuten esan eutson: Itxi lenen semeak asetzen, ezta ba odo, semeen ogia aŕtu ta txakuŕei jaurtitea. Baña Berak erantzun eta esan eutson: Bai Jauna baña, txakuŕkumak be, semeen maipean, ugazaben maitik jausten diran ogi-bildeŕetatik jaten dabe. Orduan Josu'k erantzuten esan eutson: Emakumeoi, zure ziñestea andia da; zeuk gura dozun lez egin bedi. Itz oŕen indaŕez zoaz, txeŕenak zure alabeagandik urten dau. Eta etxera joanik bere alabea oyan etzunda auŕkitu eban, eta txaŕenak urten ebala. Eta alabea ordu atatik azke geldiţu zan.»

* * *

Josu ta ikasleak itxasotik urten ziraneko ezagutu ebezan, eta baster gustiak arakatu ta gexo danak, Josu'gana eroaten alegintzen ziran bere soñeko ertzari ikututa beste barik osatzeko. Gero Kapharnaum'era joan zan, eta bera bakaldun egin gura izan eban gizataldeak, non egoan jakin ebanean Beragana eldu zan. Bertako sinagogan Josu'k bere Gorputza janari ta bere Odola edari emongo eutsela abindu eutsen, eta Jerosolym'etik etoŕitatako parixetaŕ zirikatzaleai egokiro eran-

tzunda, erail gura eben judaŕakandik geyago aldenduteaŕen, bakaŕtasun biĺa bere ikasleakaz Galilea ta Fenicia bitarteko mendiak azkaŕ igaro ta Tiro ta Sidon mugaetara eldu zan.

Zinge artean auŕkitzen zan ba, ta bertan zerbait arduratu ezkero iñok ezagutu barik alditxu bat igaro zeikian. Abitzak diñon lez, Elias'ek donetutako Karmel mendi ospetsura eldu ete zan? ¿Tiro ta Sidon uri ospetsuak ikeŕtu ete ebazan? Orixe eztakigu. Batzuk diñoe ibiĺaldi aonetan Josu'k sei iĺabete igaro zituan, eta Goizparkiak azaltzen dauskun jazokun bakaŕa auxe da: Eŕi batera eldu zan, dirudienez Sarepta'ra; ta Josuk bere etoŕera iñok jakiterik gura ezeban aŕen, emakume zinge batek nondik-andik ezagutu eban, eta bere oñetan auzpeztu zan bere alaba gaizkindu baten osasuna eskatzeko. Josu'k agertzerik ezeban gura-ta, lenengo ezeutson erantzun be ta ez - entzun egin eutson. Ikasleak gogaituta esan eutsoen: Bialdu egizu gure ondoren gaŕasika jaŕaitu eztayen. Baña Josu'k erantzun eutsen: Orain Ixaŕeldaŕ ardi galduentzat bakaŕik arduratu beaŕ naz. Erantzun au edozeñeri atzera eragitekoa zan.

Baña amaren maitasuna azaŕtua izan oi da-ta, berari etxeraño jaŕaituta, baŕiro, guŕtu ta eŕukitzeko eskatu eutson. Eta Josu'k ezetsiz lez erantzun eutson: Semeen ogia aŕtu ta txakuŕai jaurtitea ezta ondo. Biguntasun utsa danaren aotik itz oneik entzun zituanean, euraen azal gaŕatzari begiratu barik, emakume ziñestetsu aonek, Josu'ri begiko egin yakon erantzuna emon eutson: Egiz Jaunoi, semeen ogia txakuŕei emotea ezta ondo, baña txakuŕkumak be ugazabaren maitik jausten diran ogi-bildeŕak jan daroez. Orduan Josu'k bere gogoŕtasuna azalekoa baño etzala izan agerturik esan eutson: Emakumeoi zure ziñestea andia da. Zeuk gura dozuna gertatu bedi. Eta ordu atan bere alabea osatu zan.

Alatz au, Josu'k uŕiñetik egindako iru alatzetatik bat da. Gexoa iñoz ikusi barik, bere gurariz, uŕeratu barik osatu ta antxe iragaŕi eban. Bere al eta jakituri Jainkozkoa beste aldi askotan lez emen be agertu eban.

* * *

Kistaŕ maite: Emakume ziñesge aonek otoi egiteko ikasbide edeŕa damosku. Ziñeste bizia, itxaropen osoa, apaltasun andia, ta iraupen sendoa irakasten dauskuz. Judaŕak ziñesgeai deitzen eutsen ezetsizko «txakuŕ» izenaz bere apaltasuna azteŕtzeaŕen deitu eutsonean be, etzan mindu, apalik etzala duin autoŕtu eban, eta ziñeste apal aonek Josu'ren Biotz eŕukioŕa beragandu eban. Josu-Kisto'ren jaŕaitzaĺe zintzo esten gareanok, emakume *ziñesge* aonen otoi sutsuan bai daukagu bai zer ikasi.

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 19'gn.: Orozko'tar Albontsa zorunduna, autoŕlia, bizkaĺaŕa odolez; 26'gn.

Gure goteŕkijan, amabostaruon jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 15'gn. Ama Neskutzaren Neke Aintzatsuak. Jai au, gauŕ asteguna dalako, eŕijarentzat datoŕken igandian andiro ospatu dagike, ta jaupak, bat ixan ezik, Ama Neskutzaren Neke Aintzatsuko jaikuak egin; laurenaldija.

17'gn. Asis'taŕ Pantzeska Deunaren Zaurijak -Irazkundia: *aratuzte* aragija izteko eguna barau-eguna ez baña.

18'gn. Laurenaldija.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
155'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Uŕila 1'gn.

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

Goŕ-mingearen osatzea.

(Mark, VII-31.)

JOSU'k baŕiro Tiro'ko mugak laga-ta, Sidon'dik Decapolis edo Amaŕurieta-zeaŕ Galilea'ko itxasorantza joan zan. Eta goŕa ta itzgea zana ekaŕi eutsoen, eta eskatu, aŕen bere gain eskua ipinteko. Eta gizaŕtetik aldendu ebalarik, atzamaŕak bere belaŕietan saŕtu eutsozan, eta txu-egiñaz bere miñari ikutu eutson. Eta goirantz begiraturik, zotin-egin eta esan eutson: *Ephphetha,* auxe da: «Idigi zaiteze.» Eta une atan belaŕiak idigi yakozan, miñeko lokaŕia azkatu yakon, eta garbiro itz-egiten eban. Eta iñori ez esateko agindu eutson. Baña agindduago ta alegin geyagoz zabaltzen eben. Eta euren aŕitasuna ainbàt geyagotuten zan, eta ziñoen: Gustia ondo egin dau: goŕai entzun eragin, eta mingeai itz-eragin.»

* * *

Decapolis edo Amaŕurieta, Jordan ibayaren sorkaldean egoan luŕaldeari deitzen eutsen. Lenengotan etsayen kaltez alkaŕtutako amar uri izan ziran, gero alkaŕtasun aonetan amasaspi uri saŕtzen ziran. Geyenak ziñge edo gentilak ziran. eta aldi atan ŕomataŕen menpean egozan. Toki onetan Josu bidez bakaŕik egoan aŕen Mataŕtu eban. Gizostetik aldenduta bakaŕik aŕtu eban, atzak belaŕietan saŕtu eutsozan, eta txistuagaz miñean ikutu eutson, eta goirantz begiak jaso, Jaungoiko-almena osatzeko beaŕa zala adirazteko, zotin egin eta esan eban: *Ephphetha,* «Idigi zaiteze,» eta Jauna'ren itza egikoŕa dalako, bapaten osatuta entzun eta itz-egiten asi zan. Alatz au ugutz deun edo batiatzearen irudi dalako, gizaŕtetik aldenduta

thai deunak diñoskunez alatz asko egin ebazan, eta bat ementxe daminguna.

Josu'ren alatzgile-ospea, zabal zebilela argi dager, eta ikutuaz beste barik gexoak osatzen zituala ziñesten eben. Au egia zan baña Josu'k alatz gustiak ziñestea soŕtu ala sendoagotuteko egiten zitualako, auŕeztik ziñeste eta itxaropen -naikunen bat biztuten alegintzen zan. Gexo au baña goŕa zanez, beste bide bat

Jauna'ren etxera ugatzatzen ekarten dabenari belaŕietan *Ephpheta* esanda ikutu, ta jaupariak miñean tuagaz gurutza egiten dautso, eskatzen daben ziñestearen egiak beragantzeko, sentzunak zabaltzen dautsozala.

Josu'k toki aŕtan gizostea bere inguru biltzerik ezeban gura-ta, iñori be ez esateko agindu eutson, baña alpeŕik, oro aotan aŕtu ta goraltzen ebizelako. Bai ba, euraen baŕuko poza ta aŕitasuna zelan euki baŕuan? Isaias'ek iragaŕi ebana begien auŕean euken ba: «Koldaŕai esayozue: adoretu ta ez bilduŕtu; begira datoŕen zeuon Jaungoiko'ari eta Berak gaizkatuko zaituze, orduan itsuen begiak argituko dira, eta goŕen belaŕiak idigi; orduan eŕenak oreñak lez zapart-egingo dau, eta itz-geen miña azkatuko da.» (Isai, XXXV, 4-6.)

Josu lenengoz Jordan ibayaren beste aldeko ziñesge eŕira joan zanean, Gerasa'ko gaizkinduaren osatzeaz, ta ainbeste abere itxasoŕatzeaz bilduŕtu ziran; orain baŕiz gustia da poza ta gozotasuna, biotzak beragantzen ditu ta ziñeste argiak ilunetan eta eriotzearen kerizpetan jaŕita dagozanen artean argi dagi!

* * *

Kistaŕ maite: Goŕ eta itzge au, geure irudi da. Saŕi askotan euki oi doguz geure belaŕiak itxita, Jauna'ren aginduak, onbiderako deyak, entzuteko, eta geure girñaren oŕuak, bizitz onetako gora - berak dirala-ta geure gogo txaŕez entzun eta goŕ be egiten ba'dakigu... Benetako mingeak saŕi askotan geu gara. *Mingeak* (mutuak) gizonen auŕean Jaungoikoa goraltzeko, *mingeak* kistaŕ ikastia norbere ardurapekoei irakasteko, *mingeak* atsekabetuak poztuteko, *mingeak* gure anai eŕugeen aldez itz - egiteko... Doibatzagaz eskatu dayogun ba: «Jaunoi, nire espanak idigi egizuz.»

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 3'gn.; *Domekataŕen Nekazkurena:* Nekazkuren au atzo eguberdiko amabijetatik gauŕ gaberdiko amabijakaŕte, biaŕ diran baldintzat bete ezkero, irabazi dagikegu. Nekazkurena, nekazkak irabazteko Doibatzak emoten dauskun eŕaztasun eta eskubide bedegaŕa dala saŕi esan dogu. Gauŕko Nekazkurenez, ikeŕkun bakotxeko nekazka osua irabazi dagikegu.

10'gn.

Gure goteŕkijan, amabostaruon jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 1'gn. Ilako lenengo ostirala.

Ilako lenengo bederatzi ostiral jaŕaŕtubetan, jaunaŕkuna, biaŕ dan eraz, ba'dagixu.—Josu-Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.

2'gn. Abeŕijaren Gotzon zaindarijak.

4'gn. Asistaŕ Pantzeska-Deuna, autoŕlia, iraslia.

7'gn. Aguŕtzadun Ama Neskutza.

8'gn. Begoña'ko Ama Neskutza, Bizkaya'ren zaindarija. Jai au, gauŕ asteguna dalako, andiro datoŕken igandian ospatu dagikegu, ta, bat ixan ezik, jaupa gustijak jaikuak egin igandekuen ordez.

12'gn. Pilaŕ'ko Ama Neskutza.

15'gn. Josu'ren Terese-Deuna, neskutza, iraslia.

* * *

Uriła 11'gn.

Deun-Nikasi ta lagunak, ziñopeak

Nikasi-ixenak gurendari dikuŕ, ta gure Deuna benez gurendari ixan zan, ba, bere burua, ziñisgiak eta basatijak gurendapetu euzan. Pantze'ko Lyon'en Josu-Kisto'ren ziñismena iragaŕi eben Polikarpa - Deunaren ikasle gerkataŕ batzuk, eta kistaŕak ugari egin ebezan. Goizpaŕa iragaŕi ta Pantze'ko basteŕ askotan Kisto'ren argija edatu eben gixon deun eta entzutetsu as-

Amabosteroko
— inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
156'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Uŕila 15'gn.

GANDASEGI'TAR ERREMIGI YAUNA, GALDAKAO'KO SEME ARGIA

VALLADOLID'KO GONGOTZAIN OINTSU IZENTAUA

JAUNGOIKO-ZALE'K AGUR-DAGITSO GONGOTZAIN EUSKOTARRARI.

GANDASEGI'TAŔ ĆREMIGI

YALLADOLID'KO GONGOTZAÑA

Laudemus viros gloriosos et parentes nostros in generatione sua. (Eccli -XLIV-1).

Aintzatu giza-gurenak eta geure asabak euron gizaldiyan.

Juan dan yoŕaĺa 22'n, Doipuruak (Aita Santua'k) Valladolid'eko Gongotzain egin eban, oñaŕtian Segovia'ko Gotzain izan dan euzko-seme aŕgi au.

Gandasegi yauna yatoŕiz «Landatsuegi» (1) taŕa da. Galdakano'n yayo zan 1871'ko uŕtaŕiĺa 5'n. Beraz 49 uŕte daukaz.

Gaste-gastetxotatik izan eban yaupaltzarako lera. Lenengo ikastaldiya Galdakano'n beŕtan egin eban, Zurinaga'taŕ Koldobika later irakasle ospetsua zuzentzaĺe ebala.

Gero Gazteiz'ko Yaupari-Ikastetxe Nagosira yuan zan. Ikastaro gustiyetan txapeldun izan oi zan, eta ointxe be, aboz-abo, gomutau daroez Gazteiz'ko yaupari - ikasliak, Gandasegi'ren zuŕtasuna ta beronen garaitzak ikas-buŕuketan.

Adiñez ta irudiz mutikotxoa zala, ogei uŕtez, Ikastetxeko Irakasle yaŕi eben.

Aldi atan, astian biŕitan egin oi ziran Pilosopi ikasle aŕteko buŕukak. Buŕuka oneitan neuŕtzen zan, bai ikasle ta bai irakasle adimen zuŕtasuna. Buŕuka onein zuzentzaĺe ipiñi eben Gandasegi yauna.

Ogetalau uŕte ez ebazala ondiño, Doipuru bayetzaz, egin eban lenengo yaupa 1894'ko oŕiĺa 27'n.

1898'an ogetazortzi uŕtegaz, buŕuka gogoŕian, amaŕ auŕkalari ebazala, irabazi eban *Irakuŕgoa* deritzon kanonjia Zaragoza'n.

Lasteŕ izan eban bere yakituriya erakusteko eretiya, batez be Jaungoiko-iztiyan, eta Gizaŕtizti edo ugezaba ta langiĺe aŕteko auzi nazpiĺatu ta zaĺak ariltzeko arazoetan. Gai aunetzaz ludiyan idatzi diran idaztirik geyenak auŕkitzen dira bere Idaztitegiyan, eta berau izan zan Gizaŕtiztiya Zaragoza'ko Jaupal etxian lenengoz saŕtu ebana.

Ezin imiĺau-pian eskutau diz-diz ain biziro egiyan aŕgi-zuziya.

1905'gaŕenian, ogetamalau uŕte ebazala, Dora'ko Gotzain izendau eben, iraĺa 3'n. saŕtu zan bere Goteŕkiyan.

(1) Zeanuri'n.

Zuŕa ta aŕgiya ta eraña berialaxe lanari eskua ezaŕi eutson. Entzute andikuak eta basteŕ gutiyetan zabal dabiltzanak dira bere artaldiai egiñiko Gotzain-idazki sakon samuŕak.

Artalde biaŕ-izan gustiyak begiz yo ebazan, baña guri geyen dauskuna, Irakatsi kistaŕa gorengo maĺan ipiñi eban, eta Valladolid'ko sariketan lenengo sariya, uŕezko domiñia, emon eutsoen.

Ezin baña banan-banan bere lanak atzaldu, ez genduke iñoiz amaituko-ta. Izlari bikañenetarikoa da, ta ondiño gogoan daukoguz Eloŕiyon, Begoña'n, Compostela'n, Madrid'en Pantzeska deunaren txadon nagosiyan, eta batez be Bermio'taŕ zintsoei geure elez egin eutsen itzaldi sutsu biozkoŕa, 1912'ko ekaitz zitalak ainbeste aŕantzale bulaŕtsu iruntsi ebazanian.

1914'ko oŕiĺa 28'n. X'g. Pi'k Segovia'ko Gotzain izendau eban.

Sei uŕte egin dauz Goteŕki onetan. Segovia'taŕen biyotzak lenengo egunetik bereganatu ebazan. Makiña bat eskaŕ, ez bakaŕik gogoatzazkoak, baita osterantzekoak be aŕtu izan daroez Segovia'taŕak euron Gotzañaren eskubetatik. Fuencisla'ko Andera Miren'en bureskundia, Ikaśtola Nagosiya, bide zabalak, langiĺe-alkaŕtasuna.....

Iraĺa lauan, Mujika'taŕ Matai, Osma'ko Gotzain guŕgaŕi ta gure eŕkide eregiyak ipiñi eutson «Palio Arzobispal» deritxon Gongotzain zapiya. Ta iĺabete onen amaŕian egin eban lenengo saŕera nagosiya bere Gongoterkiyan.

Goikoa lagun, oñaŕteko bere aŕtaldiei beziñ begiko egingo yakela uste dogu Valladolid'ekuai be, ta laster irabaziko dauzala euron biyotzok, guk biziro opa dautsogunez. ¿Zelan ez? Ain ekaŕa, ta apala, ta biyotzez biguna dalarik, eta gustiyentzat, yakitun eta ez yakin, aundiki ta eŕitaŕ, ugezaba ta langiĺe, aberatz eta txiroentzat bere etxeko atiak zabal-zabal dauzalarik?

Gandasegi berberaren itzakaz damaiguz bere bizitzizpaŕ oneik: «*Laudemus viros gloriosos et parentes nostros in generatione sua*. Goratu daiguzan gizon argitsuak, goratu daiguzan geure auŕetikuak, geure gurasuen gurasuak, geure jatoŕiya. Oŕek berbok liburu santuetan datozen beŕbak dira. Gure auŕetikoak goratuten doguzanian, gure len-lengo gurasuetatik datoŕkigun euskera eta euskal oiturak maitetutian, Jaungoikoa'k agindu euskuna egiten dogu. Au da neure eŕitaŕ euskaldunei esan gura deutsedana».

(Euskal-Esnalearen Esku Egundiya 1910.)

AD MULTOS ANNOS.



JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

Bigaŕenez ogi-aŕañak ugaritzea.

(Matth. XV-29; Mark. VIII-1.)

NDIK Josu Galilea'ko itxas-ertzera joan zan, eta mendi batera igonda antxe gelditu zan. Gizoste aundia uŕeratu yakon, eta bertan itzge, itsu, eŕen, elbaŕi ta beste (gexo) asko ziran. Eta Josu'ren oñetan ipiñi ebezan, eta osatu zituan, gizostea aŕitzen zala, itzgeak itz-egiten, eŕenak ibilten, itsuak ikusten ikusirik, eta Ixaŕel'go Jaungoikoa goraltzen eben. Eta Josu'k gizostea aundia zala-ta, janaririk etzeukala baŕiro ikusirik, bere ikasleai deituta esan eutsen: —Gizosteatzaz eŕuki naz, ba iru egun nire laguntzan dirau ta zer janik eztauko. Eta baraurik euraen etxetara bialduko ba'neuz bidean aulduko dira, batzuk ba uŕiñetik etoŕi dira. Ikasleak erantzun eutsoen:—Ainbeste lagun asetzeko aña ogi lekaroan zelan zuzenduko ete doguz? Josu'k itandu eutsen:—Zenbat ogi daukazuez? —Saspi ogi ta aŕain batzuk, esan eutsoen. Orduan gizostea luŕean jaŕteko agindu eban. Eta saspi ogiak aŕtu, eta eskeŕak eginda, banandu ebazan eta ikasleai emon, eta ikasleak gizosteai banandu eutsiezan. Eta aŕañak be onetsi ebazan eta bananduteko agindu eban. Eta enparatu zanetik saspi otzara bete ebezan. Jan ebenak ia lau anei (mila) gizon inguru izan ziran, emakume ta umeak saŕtu barik. Eta gizosteari aguŕ-eginda bereala bere ikasleakaz batel baten saŕtu zan, eta Magedan luŕaldera igaro zan.»

* * *

Josu'k ogi-aŕañak biŕitan ugaritu zituan. Lenengoz, Betsaida Julias inguruko zelai baten, bost anei (mila) gizonezko, ume ta emakumeak zenbatu barik, bost tremes eta aŕain bigaz asetu zituanean. Bigaŕen aonetan saspi ogi ta aŕaintxu batzukaz, lau anei gizon, emakume ta umeak saŕtu barik, asetzen ditu. Lenengo ugaritzea lau Goizpaŕgileak azaltzen dauskue, au Mattai ta Marka deunak bakaŕik, ta Tiro ta Sidon aldetik biurtu zanean egin eban. Alatz bakaŕa ezta ba, bi baño.

Gure Jauna apuŕka-apuŕka, Genezareth itsasorantza uŕeratuaz joyan, Dekapolis luŕalde ertzera eldu arte. Ara eldu zanean eta bidez joyala gizoste aundia auŕkitu eban. Eurakaz gexo, gor, itsu, eŕen eta elbaŕi asko eroyezan, eta ala nekaturik egozalako, ala ainbat lasteŕen osatzeaŕen Josu'ren oñetan ipiñi ebezan. Eta Josu'k muño baten gelditua zegoala, danak osatu zituan. Eŕitaŕak aŕituta gelditu ziran eta ainbat gexo osatzen ikusi ebezelako eskaŕ ona ageŕtzen eutsoen Ixaŕelgo Jaungoikoa goretsiaz. Lekaroa Josu'ren jaŕaitzaleen batzaŕtoki lez biurtu zan, eta gizosteak gexoen osatzeak ikusi ta Josu'ren irakaskintzak entzuten egun osoak igaro zituan.

Eta biderako artu eben janaria amaituta, zer janik ezeben. Eta Josu-Kisto Biotz bigunak au jakiñik, bere ikasleai deituta esan eutsen:—«Gizosteatzaz eŕuki naz; iru egun oneitan neure jaŕai datoz, ta jatekorik eztauke, ta baraurik bialduko ba' neuz bidean aulduko dira; batzuk ba, uŕiñetik etoŕi dira.» Ikasleak lekaroan ainbestentzako ogia auŕkitzea eziña zala adirazi eutsenean, Josu'k itandu eutsen: —«¿Zenbat ogi daukozuez?»—Saspi ta aŕaintxu batzuk—erantzun eutsoen. Eta Josu'k, lenengo ogi-ugaritzean lez luŕean jaŕiteko aginduta, bere eskuetan ogi-aŕañak aŕtu, onetsi ta zatiĩurik, bere ikasleai gizaŕtean zabaltzeko emon eutsezan. Eta, gauza benetan gelgaŕia! Ogi-aŕañak Josu' ren Jaungoikozko almenez ugariĩu ziran, lau anei gizon, ume ta emakumeak saŕtu baŕik, asetzeko añan, ta ondakiñakaz saspi otzarakada bete ebezan.

Alatz edeŕ au eginda bereala gizosteari aguŕ egin, ta bere ikasleakaz, Dalmanutha'ko Magdala edo Magedan aldera igaro zan.

Kistaŕ maite: Bizitza aonetan arantzaŕtean, neke, lan, atsekabe artean bizi beaŕ gara. Geure oben (pekatuen) zoŕa bizitza aonetan ala bestean, ordaindu beaŕ dogu, ta Jaungoikoak geure onerako atsekabe -legea ipiñi dausku, eta lege aonen azpitik ezin iges-egin geinke. Gora nai bera biuŕtu, eskumatara ala eskeŕetara jo, beti -beti neke ta atsekabea auŕkiĩuko dogu. Baña gizosteak lez, Josu-kisto'ri beti jaŕaitu, bere oñatzen ondoren ba'goyaz, Berak atsekabean poztu ta geure nekeak arinduko ditu. Berak iñoz be ez gaitu lagako, ezta naigaberik gaŕatzenean be. «Gizosteatzaz eŕuki naz» esan ebanak, «zeutzaz eŕuki naz» esango dautzu, ta bere eŕukia egikoŕa dala bai'dakigu.

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 17'gn.; 24'gn.; *Eŕapel Gongotzon Deuna;* 31'gn.

Gure goteŕkijan, amabostaruon jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun--biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 16'gn. Ama Neskutza' ren Garbiĩasuna.

18'gn. Deun-Luka, goizpaŕkiĩia.

21'gn. Deun - Urtsule ta lagunak, neskutzak, ziñopeak.

28'gn. Deun-Simon eta Juda, beldubak, jai erditzat zaintzen doguna.

30'gn. Deun-Babil, gotzaña, ziñopea, Iruña'n jayua.

* * *

Uriĩa 17'gn.

Deun-Edubige, Polonia'ko dukesia

Amabigaŕen eundiko azkeneruntz jayo zan gauŕ Doibatzak ospatzen daun Edubige-Deuna, Bertolda bakaldun-gai, Karintia'ko duke, Morabia'ko *markes* eta Tirol' go *kondiaren* alabea. Ume-ume zala, Lutzin'en lekaime benediĩataŕak eben lekaimetxera, obeto ezteko, eruan eben gurasuak, eta, lekaimetxian, Edubige'ren poza Miren Deunaren irudi - auŕian, otoika, asti osua igaztia baño ez zan ixaten. Bere jatoŕizko andixurenak—ondriak—eta berari jaokezan andikixenak ez eutsoen iñoz gogua eruan, ez eben birloratu, ta berak gura ebana egiĩeko axuba emon ba'leutsoe, Josu-Kisto'rena osuago ixatiaŕen, biztaldirako neskutz geratuko zan. Ezkonduentzat be baña eredu ixan zediĩa gura eban Goiko Jaunak, eta, amabi urtedun baño ez zala Endika Silesia ta Polonia'ko dukiagaz ezkondu eben. Bere auŕenengo iñarkuna senaŕaren ayuŕija ta ixakerea

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
157'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Azila 1'gn.

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

Betsaida'n itsu bat osatzen dau.

(Mark. VIII, 22-26.)

GTA Betsaida'ra eldurik, itsu bat auŕkeztu eutsoen, aŕen ikutzeko eskatzen eutsoela. Eta eskutik aŕtuta basuritik atera eban, eta begietara txua jaurtita eskuak bere gain ipiñirik ezeŕ ikusten eban itandu eutson. Eta begiratuaz esan eban: Dabiltzen gizonak zugatzak lez dakustaz. Bigaŕenez eskuak begietan ipiñi eutsozan, eta ikusten asi zan eta gauza gustiak argiro ikusteko eran osatu zan. Eta bere etxera bialdu eban esanaz: Zoaz zeure etxera ta basurian saŕtzen ba'zara iñori be ezeyozu esan.»

* * *

Josu, Mageda itxas-ertzera eldu zanean, atzeŕitik egin eban ibiltaldiaz zerbait gentzatu ba'zan be, Galilea'n baŕiro oñak ipiñi zituaneko, neke, ezpai eta bere salatari parixetaŕ zitalen maltzuŕkeriak bere gain zeukazan.

Egin-egiñean be, luŕeratu ziraneko, Bera zirikatzeko asmoz eldu ziran, parixetaŕ eta saduzetaŕakaz aurkitu zan. Oneik, Josu'k itxasoz, luŕez ta axez egindako alatzetan bere Jaungoikotasun dis-disa, ikusi eikien aŕen; oŕtzeko (zeruko) alatz bat egiteko eskatzen asaŕtu ziran. Itsukeriz Josu-Kisto'k egin ebazan alatz-argiak ez ikusteaŕen begiak aldendu, ta alatz baŕiak eskatzen asaŕtu ziran. Zoritxaŕez amaika oneilako itsu ta... kirten gaur egunean be bai'dakusguz. Josu'k tamalez beterik agiraka egin eta Jonas'en alatza (dirudienez bere eriotza ta berpiztea) bakaŕik emongo eutsela adirazi eutsen. Eta bertan lagata batelean itxasoen beste aldera igaro zan. Bidean bere ikasleai parixetaŕ eta saduzetaŕen legami edo irakaskizun galgaŕietatik arduraz aldentzeko onuak emoten ziarduala Betsaida'ra eldu ziran. Betsaida uri au, Kepa deunaren jayoteŕia, ala Genezareth-ipaŕ-aldean, Jordan ibayaren alboan egoan Betsaida Julias uria ete zan? Eztakigu. Batzuk, Betsaida, bat bakaŕa izan zala diñoe; baña geyenen aburuz «Betsaida'k» «aŕauntza - etxe» dikuŕala, ta baleiteke-

la itxasertzean izen onetako uri bat baño geyago izatea.

Dana dąla, Josu-Kisto eldu zaneko itsu bat ekaŕi eutsoen eta aŕenka eskatu berari ikutzeko, bai ekien ba, ikutzeaz beste barik osatzen ebala. Josu'k orduan beintzat gizosteak inguratzerik ezeban gura - ta, itsua eskutik arturik eŕitik atera eban. ¡Ziñez ikuskizun samuŕ ta begikoa izango zan, Jaungoiko'aren Semea, itsu gaxoa eskutik ebala ikustea! ¡Zerzelada aonek poztu beaŕ gaitu, ta bizitzako gora - bera askotan gogoratu beaŕ geunkena da!

Gero txua bere begietan egin, eta eskuak bere gain ipinirik ezeŕ ikusten ete eban iłandu eutson. Itsua ikusten alegindu zan, eta guztiz osatuta ezegoalako, ala oitura ezagaitik, erantzun eutson: Gizonak zugatz antzera dabizela bai dakustaz. Itsuak itzokaz adirazten dabenez, gizonak zugatzakandik beresten ebazan, dirudienez bere itsukeria jayotzetikoa etzan ba. Zerbait ikusten asi zanean, bere ziñestea biztu zan, eta orduan Josu'k baŕiro bere eskuak begietan ipiñi eutsozan eta gauza gustiak argiro ikusten asi zan. Alatz argia da au, txua osakaitzat aŕtuta be, une batzuetan itsuak osatzeko indaŕik eztaukola edonok daki-ta. Gero Josu'k bere etxera bialdu eban esanaz: Zoaz etxera eta eŕitik igaroten ba'zara egin dodan alatz au iñori be ezeyozu esan.

* * *

Kistaŕ maite: Josu-Kisto, gizonok eriotzako ilunpetik aterateko etoŕi zan, eta «Ni ludiko argia naz» (Jon VIII-12) esan ebana, Aita Betikoaren eskumaldera igonda be, Gizagogoak argitzen dituan Eguzki bakaŕa Bera da. Baña saŕitan girñaren laño itzalak, geure eskaŕtxaŕez bere argi biziari geure gogoak argitzea galerazten dautse, eta orduan geure azkatasun bilduŕgaŕiau kendu barik, lañoak maitasunik andienaz uŕatzen alegintzen da. Batzuetan bapatean, Paul deunari Damasko'ra bidean uŕatu eutsozan lez; bestetzuetan, apuŕka-apuŕka, maitekiro bere eskuz, ludi onetako ekatx artetik aldenduta, itsu au eŕitik atera eban lez; baña beti neuŕtu ezin leiken Jaungoiko-maitasunaz, bigunkiro, samuŕtasunik andienagaz.....

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 7'gn.; 14'gn.; *Ama Neskutzaren Zaindasuna.*

JAI OSUAK: 1'gn. Deun Ororen Jaya.

Gure goteŕkijan, amabostaruon beste jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 2'gn. *Gokaxuen Gomułaldija.* Gokaxuak Jaunaren aizkide ilda, biaŕ dan beste garbi ez diralako, zoŕak kentzen gokaiztokijan diran goguak-arimak-dira. Gauŕ, euren aldez otoi-egiteko egun bedegaŕa da - ta, Doibatzak *Gokaxuen Nekazkurena* ixentau dau. Atzo eguberdijan asi ta gauŕ gabeko amabijakaŕte, Nekazkuren au, edozein txadon, jauretxe ta basoŕxonuetan irabazi dagikegu. ¿Gure Jauna aŕtuta, erosuen yakon jauretxeren baten ikeŕkun batzuk egingo ez dauzanen bat ixango eteda? Geure gokaxuak aulan zabaŕtzen da'doguz, eŕukioŕak garala ez daigun esan, bijotz gogoŕdun ankeŕak baño.

5'gn. Ilako lenengo ostirala.

Ilako lenengo bederatzi ostiral jaŕałubetan jaunaŕkuna, biaŕ dan eraz, ba'dagixu— Josu Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.

13'gn. Koska'taŕ Estanisla, autoŕlia.

Azila 1'gn.

Deun-Ander Abelin autorrlia

Deun-Ander Abelin, jauparijentzat eredu bikaña anei bosteun eta beŕamaŕ

GOKAXOEN ABESTIA (1)

¡Eŕuki, nitzaz eŕuki!
egin gogoz otoitzak,
azkatasuna lortzeko
uŕatu nire estuntzak!

I

Seme maite; zeu-aita naz
eŕuki eske natoŕ,
su-gaŕetan ikusita
ez izan biotz gogoŕ,
maitasuna ordaintzeko
ez zadiz izan doloŕ. } **biŕitan.**

II

Jauna'ren zuzentasunak
nauka samin-samiñez,
obenaren ordañez,
zeure zoŕa ordaintzeko
astiz ardura zaitez. } **biŕitan.**

GABIREL

(1) «Romped, romped mis cadenas» abestia.

EKIN

Gaurko ekiterako geya auzoan artu dogu, baña ba'liteke auzora geure etxetik eruana izatia. Dana dala gure asmuak zabal daukoguz, gura dabenak artu leikez eta auzoak, eurak euretara naiz geugaz batuta, geuk darabilgun lanian gogotsu diñarduela ikusten dogunian, asko bai asko poztuten gara.

Auxe jazo yaku amabostaruon Bilbao'n egin dan Euzko-gastedijen batzaŕagaz. Irakuŕi doguz batzaŕ oŕetan artu dabezan erabagijak eta lenengo saileko bigaŕen atzalgayari dagokijozanak, batez be 5'gn. eta 16'gn. erabagijak, geure-geuriak dirala esan leike. Erabagi oŕek geure Bazkun aonen arautegijan bete - betian saŕtzen dira, geure asmua be orixe da. *Kistar-irakaskintzea euskaldun sendijetan eta irakastegijetan euskeraz,* geure-geuria ta edeŕ-edeŕa dan elia ez daiela baztertu, indartu ta zabaldu baño.

Zortzi urte onetan oŕixeri ekin eta ekin diñardugu, ta al izan dogun gustija egin dogu. Geyago egin ezpadogu, ezin izan dogulako da. Euskotaŕ gustijak apurtxo bana lagunduko ba' leuskigue gure lana Uskurtz eta Euskera - aldez ugarijagua izango litzake. Eugabi-zaliak batzaŕ oŕetan erabagi dabe eurakaz alkaŕtuta dagozan Euzko-Gaztedi ta beste bazkunetan euskal-batzordiak ixentau daitezala, «euskerazko kistaŕ-irakaskuntzea eraldu edo beste batzuk eralduten dabenai laguntzeko, euskal-ikastolak irasi edo fundetako ta oŕetarako biar diran idaztijak egin eta zabaltzeko.»

Jaungoiko-Zale-Bazkuna'ren arazua ta egikizuna orixe berberori da ba. Ara zer diñoan gure bigaŕen arauak «aleginduko da (bazkuna) elexate gustijetan kistar-irakaskintza-bazkunak irasi daitezan eta ipini irakastolak, egunoro euretan irakaskintza oŕek euskeraz irakatsi daitezan... Argitaldu ta zabalduko dauz kistaŕ-ikastijak, otoi-idaztijak, bederatziuŕenak, inguŕi ta idazti Jaungoyak euskeraz.»

Asko poztuten gara ba Eugabi zaliak, gure asmo onek eurentzakotzat artutiaz; aolan gure almena eta indaŕak asko geituko dira ta artu dogun arazo edeŕ aoni auŕerakada andija eragingo dautsogu.

Ixan be laster eralduko (organizau) doguz Jaungoiko-Zale - taldiak bazkidiak daukaguzan eŕi gustijetan, eta eurak izango dira eŕi bakotxian geure asmuak egistuteko arduria artuko dabenak. Bazkidiak banan ezin leikiena, alkartu ezkero eŕaz egingo dabe, zuzentzale on baten jauŕipian. Ordurakoxe, batez be, gura geunke eugabizalien eta euskaltzale gustijen laguntasuna.

Azkenez 16'gn. erabagijan emakume abertzaliei eskatu dautse batzar oŕek, euskerazko aldizkingi Uzkurtzaliei, euren artian Jaungoiko-Zale'ri berariz lagundu dagijoela.

Eskaŕik asko zeuei gugaz oroitu zarielako.

Ekin.

II diranak:

Bilbao'n il onen 9'an il da Uriarte'taŕ Nekane 77 urte zituala. Uribe'taŕ Eŕapel geure bazkidiaren ama izan da.

Gazteiz'en ointsuan Fernandez de Erentxun' daŕ Jokin geure bazkide Kandida jaupariaren aita.

Atsekabian laguntzen deutsegu euron sendijei.

Otoi bat, irakuŕle, ildakoen alde.

G. B.

Oaŕa.- Lengo zenbakiko *Gokaxoen Abestia'n,* Il'gaŕen neuŕtizkian norbaitek leŕo bat iruntseban, eta jakiña, eŕen urten zan. Ara ba zuzenduta.

Jauna'ren zuzentasunak
nauka samin-samiñez
neke bilduŕgaŕietan
obenaren ordañez,

. . . . . .

G.

JAUNGOIKO-ZALE'ren irarkolean. — Zornotza'n.

ñikua etzan bidezkua; baña adierazoten dau Kristo'ren Erlejiñuagazko maitasun ta gogorik sendo ta errutsubena. Gauzia maitetu biar da beragaitik ezer egin biar ba'dogu.

Z. M.

NASKALDIJA

Onbideratu.

Igaro dan gudatean ingalandaŕ gudarostean bakaŕik, jauparien zenbatzak diñonez, 50.000 gudari baño geyago katoliko egin dira.

Lasseur Peli, osagīle ospetsu, ta ziñesge amoŕatua izan dana be, oraintsu onduta Domekataŕen Gopatzan (Dominikuetan) saŕtu da.

Baita pozez irakuŕi dogu, Japondaŕak Roma'n dauken geznarien (enbajador) idazkari nagosia kistaŕ egin dala. Cemeti Bonabendur Gongotzañak (Artzobispoak) ugutzau (batiau) eban. ¡Jainkoa'ri eskeŕak!

Genaŕ deunan alatza (millagrua)

Igaro dan Iraīa'ko 19'an urtero lez, deun ospetsu onen odolak irakin dau. Deun onen odola bere irudiak daukozan makaztxu batzuetan agirian ipiñi eben. Elexea bete-beterik egoan. Amaŕak bost gitxiagotan deunen aŕenak esaten asi ziran, eta odolak amaŕdeŕdietaŕte gogoŕtuta iraun eban. Oŕdu onetan irakiten asi zan eta une gitxi baŕu urtuta gelditu zan. Oste izugaŕiak pozaŕen «Te Deum» abesten eban bitaŕtean, oitura dan lez, Telma deunan gazteluan, ogetabat dunbada jauŕti ebezan eŕitaŕai miraria iragaŕteko, ta batean Napoles'ko kanpai gustiak otsegiten dabe. Auŕten iñoz baño oste izugaŕiagoa, batez be atzeŕitaŕetan bildu ei da alatza ikusteko. Beŕton beti lez jakītun asko ta baita ziñeste bako asko bildu ei dira uŕtero geŕtatzen dan jazokun au, alatz (milagro) barik azaldu gurarik. Baña alpeŕik, eta euraen omenez irakuŕi dogu, alatz au aŕgia dala autoŕtu dabela.

Gudal-nagosi (general) baten ziñestea.

Bere adoré ta zinesteaŕen ospetsua dan Gouraud gudal nagosia, gudea amaituta-laster, ointxe uŕte bete edo; bere menpeko gudari bulaŕdetsuenai guda kurutzak ipinten ebīen. Saŕkento bateri ipinten egoala, oŕatzak zeŕbaitegaz topo-egin eban.—Zeŕ daroazu oŕ? itandu eutson gudalnagosiak. Gure Jauna, ene gudalnagusi: iltzeŕ (agoliñan) dagon bateri emonda naŕoŕ. Au entzun ebanean, Gouraud giza-gurena, buruztu ta beleunbikotu zan. Onantxe alditxu baten otoi egin eban, gustien auŕean, esamesen bilduŕ barik, bere biotz eta adimena Jaun Oteunduari eskintzen eutsozala. Gure Jauna'n auŕean aŕokeriz txapela kentzen eztaben *kiŕtenak,* eta esamesen bilduŕez berorixe egiten daben gizon *oīoentzat,* ikasbide edeŕa!

GAMA.

Iīa onen 21'ian Elexa Ama Deuna'ren laguntzakaz atsedenduta Jaungoikoaren eskubetan utzi dau bere gogoa geure auzokide izan dan Etxebaŕia'taŕ Telespor yaunak.

Bere sendiari batez be bere seme Etxebaŕia'taŕ Ladisla yaupari ta geure bazkide zintzuari, biotza samintzen deutsen galtzai oŕetan laguntzen deutsegu.

* * *

Bolueta'n geure bazkide zintso Uzelai'taŕ Joseba Mirena'ren amama il da.

Bere sendijari, Joseba Mirena'ri batez be, atsekabian lagun gayakoz.

Otoi bana deskatsegu irakuŕliei ildakoen alde.

G. B.

Eusko-Ikaskuntza'k bialduta, Bazkun beronen 1918'tik 1929'rako Edestia aŕtu dogu.

Bazkun berberonek beste idaztiño bi be igoŕi deuskuz. Batak; Eugeniusz Frankwski yaunak Bilbao'n Etnologia ikaskeretzaz ugozitako itzaldiak dakaŕz. Bestiak «Nacimiento, patria y peregrinaciones de Juan Ramón de Iturriza» dau izentzat, eta Etxegarai'tar Karmel yaunaren itzauŕe bat asikeran dauko.

Mīa eskeŕ Eusko - Ikaskuntza Bazkun langinlangiñari.

JAUNGOIKO-ZALE'ren irarkolea. — Zornotza.

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
158'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Azila 15'gn.

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

Kisto'ren irudibiakundea.

(Matth. XVII-1; Mark. VI-1; Luk. IX-28.)

ETA itzaldi oneitatik sei egun baŕu, Josu'k Kepa, ta Jakoba ta Jon bere anaya aŕtuta bakaŕez mendi garai batera otoi egiteko eroaten ditu. Eta otoi egiten ziarduela euraen auŕean irudibiau zan. Eta bere arpegia eguzkia lez aratz, eta bere soñekoak eduŕa lez zuri -zuri biurtu ziran, luŕeko garbitzalek zuritu ezin leikezan añan zuri. Eta ara non Mois eta Eli andikiro agertzen yakezan, eta Josu' gaz bere ludi onetatik urteteatzaz, Jerosolym'an egiztu zanatzaz jardun eben. Baña Kepa ta lagunak logale ziran, eta iratzaŕtu ziranean, bere andientza ikusi eben, eta beragaz egozan gizonezko biak be bai.

Eta arek Beragandik aldenduten ziralarik, Kepa'k Josu'ri erantzunaz esan eutson: Irakasleoi: Gu emen gelditzea ona da; gura ba'dozu iru txabola bertan egin daiguzan; bata zeuretzat, Mois'entzat bestea eta Eli'rentzat beste bat, zer ziñoan ezekiala, bilduŕez izututa egozan ba. Eta bera ondiño itz-egiten egoala, ara laño argi bat estaltzen dituana, eta eurak lañoan saŕtu ziranean bildurtu ziran. Eta lañotik abots bat etoŕi zan ziñoana; «Auxe da neure Seme maitea, Beraugaz ni ase-asetzen naz. Beraoni entzun egiskiozue.» Eta abots au entzuten zan artean Josu bakaŕik zegoan. Eta ikasleak au entzunik bilduŕ - bilduŕtu ziran. Eta Josu'k eurekana eldurik ikututa esan eutsoen: Zutindu zaiteze ta ez bilduŕtu. Eta eurak begiak jaso ta ingurura begiraturik iñorbe ezeben ikusi Josu baño. Eta menditik jasten ziralarik, Josu'k agindu eutsen esanaz: «Ikuskizun au ez iñori esan Giza-Semea beŕbiztu arteraño.»

* * *

Josu Betsaida'n itsua osatuta Nerom aintzira-zeaŕ ipaŕalderantza, Paneas edo Pilipo'ren Cesarea luŕaldera joan zan. Antxe Bera nor zan garbiro azaltzeko garaya eldu zala-ta, egin eutsen itauneri erantzuten Kepa'k, Jaungoiko biziaren Seme za-

la garbiro autortu eban, eta Josu'k beriala saritu eban Doipurutza abinduaz.

Geroz eta dirudienez Galilea'ra biurtuta, ikasleai bere Nekaldi ta eriotzako zertzeladak azaldu eutsezan, ikasleak gustiz arituta isten ebazala. Eta aritzekoa zan izan be. Ikasleak, Josu Ixarel gaizkatzeko Bialdua zala bai'ekien, baña eurak judarak ziranez, bete-betean uste eben gaizkatzeau ludiko bakaldun altsuen antzera egingo ebala; eta onetan bapatean, neke ta eriotzarik lotsagarienaz gurutza baten ilgo zala iragari eutsenean, izututa ezeben olakorik entzun gura be. Bai ba, euraen andigure ta ames gustiak, axe-boladeak auts-piloa ezereztuten daben lez ezerezean geratzen ziran-eta, gogoko eztana gatx ziñesten. Gizona, beti gizon; beti berekoi.....

Josu'k baña gurutzetik aldendu gura ebalako Kepa'ri agiraka eginda, lenengo aldiz bildu zan gizosteari gurutze-bidea azaldu eutson esanaz: «Norbaitek niri jaraitu gura ba'daust, bere burua mendu begi; bere gurutza lepaldu ta jaraitu begist» (Matth. XVI-24). Gurutze-bidea Josu-Kisto'ren jaraitzaleen bide bakara zala entzun ebenean, lengoez gañera, gustiz nastuta, gogaituta, lur-jota geratu ziran. Orduan Josu'k, gurutzaren onurak zerbait agertuaz gurutz-zaletu, poztu ta adoretuteko, Getsemani'ko baratzan bere laritasunaren ziñaldari (testigu) izango ziran iru ikasle, Kepa, Jakoba ta Jon lagun artuta mendi batera igo zan. ¿Zein mendi izan ete zan? Goizparkiak mendi goratua zala, baña izenik eztiño. Batzuk Galilea'tik at zegoan mendi bat zala diñoe, baña idazkariak (eskirbak) inguruan ibiltzeak gertakizun au Galilea'n izan zala egiztuten dau. Eta onez gañera, abitzez eta geyenen eretxiz, Nazareth'tik ordu bi baru dagoan Esdrelon deritxon zelayan galentzen dan Tabor mendi zoragaria izan zala esan geinke. Cesarea'tik bertara ogei bat orduko bidea dago, baña sei egunean erez egin leikena da.

Igo ziran ba, ta toki bakar baten otoi egiten ziarduela, dirudienez gabaz, Josu irudibiau zan (irudiz aldatu), bere arpegiak eguzkiak lez dis-dis, ta soñekoak edura lez zuri jartzen zirala. ¿Zelan gertatu zan? Josu-Kisto Jaungoiko ta gizon batera zanez, bere gorputz ta gogoa Jaungoikotasun argiak asetzen ebazan, beraz zoruntsua zanez gorputz ta gogoko argitasuna yagokon. Baña gugaitik bizia emon gura izan ebalako, lurean bizi izan zan artean, bere gurariz etenbako alatza egiñik, argi ori ezeban agertu gura izan. Eta mendi onetan apurtxo baten argi ori erakutsi gura ebala; lañotxu zuria eguzkiak aurez artuta, aratz-aratz ipiñi oi daben lez, bere gorputza lurari ikutzeke, eguzkia lez dis-diska ta soñekoak be edura lez zuri agertu ebazan. Eskar-eskuman Lege zar eta Iragarle ordez, Mois eta Eli (ondiño bizi dana) agertu ziran, eta bere eriotzeatzaz izketan ziarduen. Logale ziran ikasleak iratzarturik, ikuskizun aonegaz zorabiauta lez geratu ziran ta Kepa'k zer esaten eban ezekiala, bertan iru txabola eginda egotea ondo zala esaten eban-artean, laño argi batek estaldu zituan, eta lañotik abots bat urten zan ziñoana: «Auxe da neure Seme maitea, Beraugaz Ni ase-asetzen naz. Beraoni entzun egiskiozue.» Ikasleak bilduréz auspeztu ziran eta Josu'k eldurik, ikututa esan eutsen: «Zutindu zaiteze ta ez bilduru.» Jagi ziran ta Josu bakarik ikusi eben.

Eta menditik jasten zirala, Giza-Semea ilen artetik berbiztu arteraño ikusi ebena iñori ez esateko agindu eutsen. Alatz argi ta ederak jazokun onetan agiri dira, ta ez ikasleen amesetak, ziñesgeen batzuk esan

daben lez. Doibatzak Josu'ren Irudibiatze au, Dagoniĩa'ko 6'an ospatzen dau, egun onetan gertatu zalako; toki batzuetan V' gaŕen gizalditik, eta orotan III'gaŕen Kalisto Doipuruak 1457'an Eliz-otoi berezia agindu ebanetik.

* * *

Kistaŕ maite: Aita betikoaren aotik dakigu, gure Irakasle bakaŕa Josu-Kisto dala; eta aonek Tabor'mendian agertu eban zorun-argia geuregantzeko Gurutze-Bidea erakusten dausku. Gurutze ta nekeari ba, ez betozkorik ipiñi, gogoz besartetu, ta astuntasunak nekatzen gaituenean, oŕ daukagu laguntza eskatzeko berak irakatsitako «Aita Gurea.» Gurutza da ba, gure bidea, ta betiko argitara garoyazana, ta *Kisto'ren Antz-bidea*'k diñon lez: Atsekabezko bidea baño gizona gaizkatzeko bide obarik ta onurakoŕagorik izan ba'litz Kisto'k itzez ta egitez irakatsiko euskun.» (Lib. II-XII.)

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 21'gn.; *Ama Neskutzaren Auŕkezkundia;* 28'gn.; Elgaroko lenengua.

Gure goteŕkijan, amabostaruon jai osorik ez da. Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 24'gn. Gurutzaren Jon, autoŕlia.

26'gn. Miren eta Joseba Deunen Eztegua. Bijaŕ amatuten da Zapikarua.

29'gn. Deun-Saturnin, gotzaña, ziñopea, Iruña'ren Zaindarija, Iruña'n jai osua; Miren Soŕkunde Eŕugiari bederatzuŕeuna asteko eguna.

30'gn. Deun-Ander, belduba, jai erditzat zaintzen doguna. Gabon egunerarteko eguneroko laramaŕ (40) Aguŕ Mirenak asteko eguna.

* * *

Azĩla 17'gn.

Deun-Gergori Alazkillia, gotzaña.

Ponto Euxino'ko Neozesarea'n jayo zan, goi-alatz asko ta andijak egin euzalako, Alazkiĩe ixenez ezagutzen dogun, eta gauŕ Doibatzak ospatzen daun Gergori Deuna.

Gurasuak, aberatzak euzan, baña ziñisgiak, bera be gastaruan ziñisgia zan, bere oturak baña beti ixan ziran onak, eta egi-zale be berez lez zan. Umetako ikastija ikasiĩa, geyago jakin egijan, gurasuak Alejandria'ra bidaldu eben, eta jakindijazbatian Jaunak, adimena ziñeste-argiz argijagotu eutsan, gure Uzkuŕtz Deuna baño beste Uzkuŕtz egizkorik ez dala ezagutu eban, Josu-Kisto Goiko-Jaun bakaŕa dala ziñistu eban, eta ikasti kistaŕa, biaŕ zan beste, ikasiĩa-gero ugutzan eben. Uzkurtziztija sakonago ikasteko, Origenesa' ri ikastija entzuten beet urte igazi euzan, eta gero bere abeŕira alde zan. II yakozan gurasuak, eukitsubak ziran lez, ogasun asko itxi eutsoen, berak baña, donokikuak maĩago, gurasuak itxi eutsoena txiruai emon eutsen eta lekarora juan zan. Bere jakindi ta deun-ospia lasteŕ zabaldu ta edatu zan, eta bere buruba ostendu gura -ixan eban aŕen, alegin andiz biĩatu ta Neozesarea'ko gotzain egin eben. Aldi atan Neozesarea'n amasaspi kistaŕ baño etziran, bestiak, uri andija ixan aŕen, ziñisgiak ziran, eta basteŕ gustijak jaungoixun tayuz-ta eurentzako jauretxez beteta ziran.

Gure Deunak baña, bere ekandonez, bere jakindiz ta Jaunak emon eutsan goi -alatzak egiĩeko eskubide bedegaŕez lasteŕ aldatu eban, egizko ziñesmenez adimenak argitzen euzala, ekandonez orok deundu ta jaungoixunen etxiak, Goiko-Ja-

JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI·EUZKERAZ

Gotzañaren baimenaz.

1920'ko
ołazilla'ren 1'gn.

IX 'Urtia
159'gn. Zenbakija

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
159'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1920 Zoŕnotza, Lotaziła 1'n.

GEURE ZAINDARIJA

Goiko-Jaunaren auŕian aldintsu-aldintsu zarala ondo ezagutzen dogu, Txabeŕ'taŕ Pantzeska Deuna. Beti lez gauŕ be, biaŕ-ba, bestetan baño geyago, zure biaŕ gara. Lana ta biaŕkuna geyagotuaz yuakuz, euroi biaŕ dan lez auŕpegi emon eta eutsiteko gure indaŕak eta kemena ez dira naikua.

Pantzeska Deuna, aŕen, zure zainpian jaŕi dogun **Jaungoiko - Zale Bazkun** au biaŕ dan bidez zuzentzeko argija ta azaŕtasuna emoskuzuz. **Euskaldunai Euskeraz** da gure Ikuŕitza: euskotaŕ euskelduna zara, euskeraz il auŕeko azken -otoyak egin zeuzan, ludijan eŕukioŕ zintzala, donokijan eŕukioŕago zara.

Zure Bazkun au ta Bazkun - aldez lan-egiten daben gustijak samuŕ begizkatu egixuz, onetsi egixuz.

Gauŕ Doibatzak zu gomutarazo ta zure jaiburuba ospatu eragiten dauskunian, zu lez, langilak, azkaŕak, jaumatasun eta geidematasunez gorijak egin gagixala gura-gura dau.

Eskaŕ au gurekin ixan dadintzat zugana ustakidatzu geltz. Eta zuk, biaŕ doguna loŕtu-barik itxiko ez gozuzala eskieŕ gara. Zu-aldez, guk be, al doguna egitia daskingu.

AMA SORTZEZ GARBIARI J.Z.- 1920-159-183

Zu zara Miren aranetako lili eder ta garbia,
gustiz ederra, edur antzera, zuri daukazun yantzia.
Eguzkiak lez dis-dis dagitzu arpegi zoragarriak;
zure kutunoi biotzetara bialtzen zorun-izpiak.

Yerosolymgo aintza zara Zu, Ixarreldarren zoruna,
kistar-erria zeure izenagaz gora-goraltzen dozuna.
Onetsia Zu Yaunak autuoi emakumeen artean,
Zure antzedun bat ez daurki ba, ludi zabal dan gustian.

Zu zara Sortzez Garbi-garbia, gure Amatxo laztana,
ta, arren! laguntza eske gatoz gaur apal-apalik Zugana:
Len-gurasoen oben galgarriz illun doguz adimenak,
Argian Ama zaran ezkero urratu oben illunak.

Geu-naimena be, lera on barik argal-indarge dogula,
ekandunari yarraituteko daukagu auldu-aulduta;
Zeuk indartzeke, zer ete geinke egin Amatxo laztana,
izanik bakar Yaun altsuaren Neskutz Ama deun zarana?

Salla danari gaiñ egiteko eztogu geugan indarrik,
girñak pozkiña maitatzeko be, ezta bear dan neurririk;
Nok ba zuzendu girña zitalak ta indartu biotz argala,
Zeuk izan ezik guretzat beti argi dagizun izarra?

Geure itxaroa zaran ezkero lagun zakiguz Yaunarren,
Zure onoimen lurrun ondoren yarraitu daigun pozarren;
Oben galgarriz kutsutuok ba ustatsu gatoz Zugana,
Arren! gustiok donokiratu gaizuzan Ama laztana.

ta su-emon eta berton kiskaltzeko agindu eban.

Suak baña, ez eutson kalterik-egin, eta gaŕartian Neskutz Deun au Goiko-Jaunari eskeŕak-egin eta bera goresten agiri zan. Alats auk gelduta gixostia didaŕka zan; epaikarija ixutu ta lotsatuta, ta azkenez, ezpataz samia ebagi eyuela egindu eban. Etzan lenengokuan il, kistaŕak alboko etxe batera eruan eben eta Luke Deunak ikasti edeŕak eta onuragiñak emon eutsezan; batzuk diñoenez, elexakuak be aŕtu euzan, eta neskutz ta ziñopa gurendari zala, Doibatzak lasteŕ ixango eban gurenda ta gentza iragaŕita, irureun eta laugaŕen uŕteko, lotaziła amairugaŕenan il zan Luke Deuna. Bere irudija aspiłan begijak-eta, margotu ta antzezkituten dabe. Bere edestijak begijak atara eutsoezenik ez diño; begimindunak laguntza-eske beragana eldu oi dira ta Luke Deunak entzun eta saŕi osatzen dauz.

JOKIN

AMA SORTZEZ GARBIARI

Zu zara Miren aranetako
lili edeŕ ta garbia,
gustiz edeŕa eduŕ antzera
zuri daukazu jantzia.
Eguzkiak lez dis-dis dagitzu
arpegi zoragaŕiak
zure kutunoi biotzetara
bialtzen zorun-izpiak.

Jerosolym'go aintza zara Zu
Ixaŕel'daŕen zoruna,
Kistaŕ eŕia Zeure izenagaz
gora-goraltzen dozuna.
Onetsia Zu Jauna'k autu oi
emakumien artean,
Zure antzedun bat ez daurki ba
ludi zabal dan gustian.

Zu zara Sortzez garbi-garbia
gure Ama'txo laztana
ta ¡aŕen! laguntza eske gatoz gaur
apal-apalik Zugana.
Len-gurasoen oben galgaŕiz
iłun doguz adimenak,
Argian Ama zaran ezkero
uŕatu oben iłunak!

Geu-naimena be, lera on barik
argal-indaŕge dogula,
ekandunari jaŕaituteko
daukagu auldu-aulduta.
¿Zeuk indartzeke, zer ete geinke
egin Ama'txo laztana,
izanik bakaŕ Jaun Altsuaren
Neskutz Ama Deun zarana?

Sała danari gain egiteko
geugan eztogu indaŕik,
girñak pozkiña maitatzeko be
ezta beaŕ dan neuŕirik.
¿Nok ba zuzendu girña zitalak
ta indaŕtu biotz argala,
Zeuk izan ezik, guretzat beti
argi dagizun izaŕa?

Geure itxaroa zaran ezkero
lagun zakiguz Jauna'ŕen
zure onoimen luŕun ondoren
jaŕaitu daigun pozaŕen.
Oben galgaŕiz kutsutuok ba,
ustatsu gatoz Zugana,
¡Aŕen! gustiok donokiratu
gaizuzan Ama laztana.

GABIREL.

UMIENTZAT

¿Zer darabiltzu baratzan, Miren?
Lora edeŕen bila nabil, Edurne.
¿Zetarako?
Miren deunari opalduteko.
¿Zer dauko ba loretxu oŕegaz Miren deunak?

JAUNGOIKO · ZALE

EUZKELDUNEI·EUZKERAZ

Gotzañaren baimenaz.



1920'ko
Lotazilla'ren 15'gn.

IX 'Urtia
160'gn. Zenbakija

Amabosteroko — inguŕtija —

Jaungoiko-Zale

IX Urtia
160'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1920

Zoŕnotza, Lotaziła 15'n.

JOSU-KISTO'N ALATZAK (Mirariak)

Gokaizto itzge bat jaurtiten dau.

(Matth. XVII-14; Mark. IX-13; Luk. IX-37.)

ŘENGO egunean menditik jasten ziralarik, jazo zan, (Josu) bere ikasleak aurkitzen ziran tokira eltzen zala, gizoste andiz inguraturik ta idazkariakaz eztabaidan ikusi zituala. Eta Josu ikusi eban gizoste gustia gelduta ikaraz bete zan, eta aguŕ egiten danak askaŕ beraganatu ziran. Eta berak itandu eutsen: «Zeuen arteko ezta baidori zetzaz izan da?» Eta une atan bertan gizosteko gizon bat, beragana uŕeratu ta belaunbiko jaŕirik esan eutson: Neure seme bakaŕatzaz eŕuki zaiteala aŕen dagitzut, Jaunoi; iłargi - joa (lunatico) da ba, gogo itzge bat dauko ta asko jasan (supridu) daroa. Gokaiztoak aŕtzen daben edozein tokitan lur-aintxin jaurtita gaŕasi eragiten dautso, eta gogorkiro dardartzen dau, aotik bitza jaurti, agiñei kaŕask-eragin eta igartuta geratzeraño, eta bere aragiak uŕatuta gero beragandik nekez aldenduten da. Eta zeure ikasleai aurkeztu ta (gokaiztoa) jaurtiteko eskatu dautset baña, ezin izan dabe osatu.

Josu'k orduan itza aŕtu eta esan eban: «¡Gizatza zinesge eta gaizto ori! Zuekaz noz arte egon beaŕko ete naz? Noz arteraño jasan beaŕko ete zaituet? Zeure seme ori ekaŕi egikezu.» Eta ekaŕi eutsoen. Eta uŕeratuta Josu ikusteaz gokaiztoak astindu ta luŕ-antxin jaurti eban, eta tirabirakatuten eban, eta bitsa eriola loŕinduten eban. Josu'k bere aitari iłandu eutson. Au gertatzen jakola, zenbat aldi da? Auŕtzarotik, erantzun eban, eta askotan su ta uretara jaurti dau berenak eragiteko; baña zerbait al-ba dozu urgazi gaizuz, gutzaz eŕukituta. Aani Josu'k erantzun eutson: Ziñestu al ba'dozu, ziñesten dabenentzat eziñik ezta. Eta orduan mutiłaren aitak negaŕ - malkoz beterik esan eban: Jaunoi; nik ziñesten dot, nire ziñesgekerian lagundu egidazu.

Josu'k gizoste - piłoa zetoŕela ikusirik gogo-loya zematu eban, eta itz oneikaz agiraka egin eutson: «Gogo goŕ eta itzge ori, neuk agintzen dauat; gaste oŕegan-

dik urten egik eta bere baŕu geyago ez adi sartu. Eta gaŕasi andi bat egin eban eta gastea ikaragaŕiro tirabiratzen ebala, bere baŕutik urten eban ilda lez laga ta: ikusten ebenak iñoela: Ilda dago. Bañа Josu'k eskutik aŕtu ta jagiten lagundu eutson eta jagi zan, eta ordutik osatuta geratu zan, eta bere aitari biurtu eutson, Jaungoikoa' ren altasunaz gustiak aŕituta geratzen zirala.»

* * *

Josu-Kisto ta lagunak menditik jasten ziran bitartean, mendi baŕenean, ikasle enparauak, gizostez inguraturik idazkariakaz eztabaidan aurkitzen ziran. Josu barik aurkitzen ziran, eta eurak lege - jakitunak ziran lez, estu aŕtu ebezan. Onetan Josu eldu zan, eta agertze au otozotokoa zalako, ta beaŕ ba'da ikasleen kaltez gogoŕtxo ziarduelako, gizostea bilduŕtu zan, eta beragana aguŕ egiten joan zan. Josu'k igaŕi eban eztabaiden bat erabīlela, eta īandu eutsen: «Zetzaz eztabaidan ibīli zare? «Onetan gizostetik urtenda, gizon bat eldu yakon, eta auzpezturik apaltasunez esan eutson: Jaunoi; neure seme bakaŕatzaz eŕukitu zaite, īlargi-jota daukat-eta.

Eta biziro bere gatxa agertu eutson: gokaiztoak aŕtu, luŕera jaurti, daŕdar, gaŕasi ta agiñ kaŕaska ta aotik bitsa jaurti eragiten eutsola. Eta ikasleai aurkeztu eutsen aŕen, euraen ziñeste argalaren ala beste ziyoen bategatik ezin osatu izan ebelako bertan egozan idazkariak poztu ta euraen kaltez jagīteko ereti au aukeratu eben. Gure Jauna, argitasunez betetako menditik jatsita, bere ikasleen ziñeste argala ta idazkari edo *eskribaen* iŕibaŕe maltzuŕa oaŕturik, ben eta zerbait itun jaŕi zan. Eta batzuen aŕokeri ta bestetzuen ziñeste argalaz asaŕeturik, euraen ziñesgekeria arpegira egotzi eutsen. Eta aitari semea ekarteko agindu eutsonean, bertan aldienak aŕturik aitak esandako gustia euraen auŕean egiztuta ikusi eben. Gexo astuna ebala ba, iñok ezin eikian ukatu. Orduan gustia aldaben Jauna'k zematu ta gokaiztoari esan eutson: «Gokaizto ori; neuk agintzen dauat, urten egik ortik, ta geyago ez adi saŕtu.» Eta bapatean gaŕasi andiz, gastea ilda lez isten ebala urten zan. Gizosteak iltzat eukan, bañа Josu-Kisto'k gustiak aŕituta isten ebazala, gasteari eskua emon, jaso ta gustiz osatuta bere aitari biurtu eutson.

Jazokun aonetan alatz bikotxa dakusgu. Gaste au biotz-minduna zan, eta Jauna'k itz bategaz osatu eban; eta onez ganera bere baŕutik gokaiztoa jaurti eban.

Biotz-minduna zala, argi dager. Biotz-minduna aldienagaz iñoz ikusi dabenak, eta bere aitak gexoatzaz damoskuzan zertzeladak, eta gizostearen auŕean gertatu zana irakuŕten dabenak onetzaz zalantzik ezin lei euki. Aldiena zerbaīt leuntzeko osakayak bai'dirala norbaitek esango ba'leu, onelako barik; itz-bategaz bapatean ta gustiz osatu ebala, erantzungo geunskio. Beraz alatzez osatu ebala. Gaste aoneri *īlargi-joa* be deitzen dautse, aldi atan, gexo aonek īlargiaren goraberakaz zer-ikusi eukela uste ebelako: uste ebenez ba gatx au, īlargiaren argiak garun urak naspiltzetik sortzen zan.

Gaizkindua zala baŕiz ezin lei ukatu, aldiendunaren agerkariez gañera, gaizkinduarenak be asko eukazalako, eta Matthai deunak (XVII-18) gastearen baŕutik txeŕenak urten ebala diñoskun lez Josu-Kisto'k gexoaren sustaŕa gokaiztoa zala adirazorik, itz oneikaz osatu eban: Gogo itzge ta goŕ ori neuk agintzen dauat: urten egik eta oŕen baŕu ez adi geyago saŕtu.» Eta beste barik eskutik aŕtuta osatu eban.

Kistaŕ maite: Gaizkindu eŕukaŕi aonek lez geure baŕu gokaiztoa euki ez aŕen, geure etsai amoŕatu aonegaz alkaŕtzeko bultz-egiten dauskuen girna txaŕak, geugaz darabilguz. Eurok ezi ta zuzentzea kistaŕ gustion arloa da. Oŕetarako, Jauna'k erakusten dauskun bidea baru ta otoya dira. Baru ta laztasunaren bidez, ludi gauzakaz lotuten gaituzen lokaŕia uŕatuten dogu, ta otoi bidez Jaungoiko' agaz batzen gaituen, eta beaŕ doguzan goi-laguntzak geureganduteko, biaŕa dogun atea idigiten dogu. Otoya zeruko atea idigiteko uŕezko giltza da, laztasuna, gokaiztoa geure biotzean saŕtu eztaiten ipinten dogun esi sendoa. Kistaŕ gustion ikuŕitza auxe izan beaŕ da: *Otoi sutsua, ta laztasun etenbakoa.*

GABIREL.

Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 19'gn.; 26'gn.; *Deun-Estepan, jaupaltseña, lenengo ziñopea.*

JAI OSUAK: Josu-Kistoren Jayotza; Deun-Adeltzinde, neskutza, lekenburua, labuŕdiŧaŕa.

Gure goteŕkijan, amabostaruon beste jai osorik ez da. Igande ta jai osuetan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 17'gn. Laurenaldija, *aratuzte*—aragija izteko eguna—barau-eguna ez baña.

18'gn. Barau ta *aratuzte* eguna; Itxaropendun Ama Neskutza: gauŕ asiŧa Josu'ren Jayotza egunerarte, bijak baŕnalki, seindun diranak, seña galdu ez dagijentzat, egunoro bederatzi Aguŕ Miren otoi-egiŧia oŧura onuragin-onuragiña da, ta askok iñarduten dauna.

21'gn. Deun-Toma, belduba, jai erditzat zaintzen doguna.

27'gn. Deun-Jon, belduba, goizpaŕkiŧia, jai erditzat zaintzen doguna.

28'gn. Sein ziñopeak, jai erditzat zaintzen doguna.

31'gn. Deun-Silbester, doipurua, autoŕlia, jai erditzat zaintzen doguna.

* * *

Lotaziŧa 13'gn.

Deun-Olinbede, emalarguna

Olinbede Deuna emalargunen eredu bikain-bikaña guraso aberats - aberatsen alabea ixan zan eta berez goi - eskaŕez Jaunak aberatsago egin eban. Ume - ume zala gurasuak il eta zurtz geratu zan; bere ardurea Todose etxekandera entzutetsu, sen andidun, kistaŕ zintso - zintsuak aŕtu eban, eta umetxu au ekandontsu azi zedin alegin andija egin eban, itzez be bai, baña egikunez geyago, apala, nosnereña, eŕukioŕa, esku zabala ixaten irakasten eutsala; beraugaŧik Olinbede, berez ona, ekandontsuba azi zan, Jaunaren bilduŕez ta maŧasunez, txiruakanako eŕukiz bere bijotza eraldu ta edeŕagotzen ebala. Adiñera eldu zanian, Nebirda, Todosi Andijaren ogasunzaina, ixakeraz ta ekandonez beretzat egoki zan zalduna, senartzat aŕtu eban. Jaunak baña ezkonduba ez eban gura emalargunen eredu baño, ta amazortzi iŧabete buru Nebirda il eta Olinbede alargun geratu zan.

Gure Deunak burua-makuŕtu, Jaunaren erabagijak guŕ-egin eta bidaldu eutson gurutzia naretsu ta eruapentsu aŕtu eban. Osuago Jaunarena ixatiaŕen, gastia zan aŕen, geyago ez ezkontzia erabagi eban, eta asmo au sendo zaindu eban, Elpiki zaldun, andiki aberatsagaz ezkondu zedintzat, Todosi'k alegiñak-alegin egin euzan aŕen. Aberatsarentzat, aberatsa dalako, txiruai lagun-ixatea biaŕkunik nagosijena dala ondo ezagutzen eban, eta, beraugaŧik, bere ogasuna Goiko - Jaunak